

Zu hemen zaude.

goiena



HASI DIRA SANJUANAK

Makalaren igoerak eman die
hasiera ofiziala Arrasateko jaiei / 8

Arrasateko gazte kuadrilla, atzo arratsaldean, makala gainean, kalean barrena. JOKIN BEREZIARTUA



Bergarako Burdinolako taldea eguenean Labegaraletan. ENEKO AZKARATE

**Espainiako hockey talde onenak
Bergaran lehiatzen asteburuan** / 38

**Ikasturtea
amaituta,
udalekuak
hasiko dituzte
astelehenean**

Bergaran, Elgetan eta
Oñatin abiatuko dituzte;
Antzuolan, 30ean; eta
gainerako herrietan,
uztaileko lehen astean / 2



Astelehenean hasiko dituzte udalekuak Oñatin; argazkian, prestatzen. UXUE IGARZA

Udalekuak prestatzen, udan hezten jarraitzeko

Udan sartzearekin batera, udalekuek hartzen dute ikasturte bukaeraren erreleboa. Pandemiak baldintzatutako azken bi urteetan, edukierak murriztuta eta babes neurriekin egin dira gaztetxoendako ekintzak, baina oraingoan bestelakoa da egoera

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Astelehenean abiatuko dira udaleku irekiak Bergaran, Elgetan eta Oñatin. Antzuolan, berriz, hilaren 30ean. Eta bailarako gainerako herrietan, uztaile hasieran ekingo diete: uztailearen 4an Arrasaten, Aretxabaletan eta Leintz Gatzagan; 5ean Eskoriatzan; eta 6an Aramaion.

Bestetik, badaude beste hainbat eskaintza ere udal udaleku irekiez gain. Esaterako, kirol campusak, teknologia udalekuak eta Komunikazio Campusa.

Euskara, kultura eta natura

Txatxilipurdi elkarteak azaldu du Arrasaten, aurten ere, 34 urtean egin duten moduan, haurrei eta aurrenerabeei "udaldi magiko eta ahaztezina" eskainiko dietela: "Euskaraz, naturaz, sormenaz, bizikidetzaz eta elkartasunaz, talde lanaz, bustitako oporraldi paregabeak merezi dituzte". Labur esanda, 2 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoendako hiru asteko eskaintza prestatu du elkarteak. "Arrasateko txokoak hartuta, giro atseginean, egun-pasa, mendi-buelta, ur jolas eta bestelakoekin, eskaintza dibertigarria sortu dugu", gehitu dute.

Oñatin, ildo beretik, Aritz Iriondo koordinatzaileak adie-



Oñatiko ludotekako kideak, udalekuak prestatzen. U.I.L.

razi du udalekuak "zenbait balio lantzeko" baliatzen dituztela: "Euskararen aldeko apustua egiten dugu, naturaren eta elkarren arteko zaintzan sakondu, aniztasunari lekua egin... Azken finean, gizartean behar ditugun balioak lantzen ditugu hemen

EUSKARA, NATURA, HARREMANAK ETA KULTURA LANDUKO DITUZTE BAILARAKO UDALEKU IREKINETAN

ere; gure aletxoa jartzen saiatzen gara". Lau asteko udalekuak izango dira, eta aste bakoitzean gai bat jorratuko dute; esaterako, Oñatiko historia.

Aisialdia, hezteko baliatuta

Aisialdi hezitzaileaz "gozatzea" da Bergarako udaleku irekien helburuetako bat, eta baita ikastetxeak ezagutzea ere: "Udaleku irekietan haurrek herriko ikastetxe guztiak ezagutzeko aukera eskaini nahi da, bakoitzaren ikastetxeko eremua gainditu eta herri mailako udalekuen eskain-

tza osatu da". Hiru edo lau asteko udalekuak izan dituzte aukeran izena eman dutenek.

Aretxabaletan, berriz, 320 plaza eskaini dituzte 4 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. Oporretan euskaraz eta aisialdiaz gozatzea da horien helburua ere, askotariko ekintzak egiten.

Bestetik, Eskoriatzan bozketa egin zuten udaleku irekien ordutegia erabakitzeke. Azkenean, goizez bakarrik egitea erabaki dute. Gainerako herrietan bezala, euskaraz jardutea, natura, gozamina eta lagunak egitea dute xede eskoriatzarrek.

Leintz Gatzagan, Gurel Guraso Elkarteko kideek antolatutako dituzte udalekuak. Uztailearen 4tik 15era egingo dira, eta 4 eta 10 urte arteko zazpi neska-mutiko egongo dira.

'Oihana' izango da gaia

Elgetan 82 haur batuko dira astelehenean bertan. Uztailearen 22ra bitartean, 09:00etatik 13:00ak arte, arituko dira askotariko ekintzak egiten, aisialdiaz eta lagunez gozatzeko. Aurtengo gaia *oihana* izango da, eta umeak bost taldetan antolatuko dituzte, adinaren arabera: 2-3 urtekoak *sugandilak* izango dira; 4-5 urtekoak, *kameleoia*; 6-7 urtekoak, *tximuak*; 8-9 urtekoak, *zebrak*; eta 10-11 urtekoak, *lehoiak*.

Aramaion, berriz, uztailearen 6tik 22ra bitartean eta 10:00etatik 13:00etara egingo dituzte udaleku irekiak; 2 eta 12 urte arteko haurrek parte hartuko dute. Bestetik, 12 eta 18 urte arteko gazteentzat ere Gazte Udalekuak egongo dira; musika eta sormena izango dute ardatz.

Antzuolan, 159 umek eman dute izena udaleku irekietan. Astelehenean hasiko dira, uztailearen 14ra arte.

Bestelako eskaintzak

Udaleku irekiez gain, askotariko aukerak daude.

ARAMAIO

- Ekintza eta kirol udalekuak.
- Gazte Udalekuak.

ANTZUOLA

- Alaitzen txokoa.
- Ingeles udalekuak.

ARETXABALETA

- UDAREN campusa.

ARRASATE

- Txatxilipurdiren udaleku itxiak.
- Udaixe programa.
- Doke Antzerki Taldearen udalekuak.
- Arrasate Eskubaloaren campusa.
- Mondraren futbol campusa.
- Ointxeren saskibalo campusa.
- Mondrateren areto-futbol campusa.

BERGARA

- Kirol campusa.
- Igeriketa kanpaina.
- Campus teknologikoa.
- Laboratorium museoren ekintzak.

OÑATI

- Kirol kanpaina.
- Hizkuntza eskolen eskaintzak.

DEBAGOIENA

- Goienaren eta MUREN Komunikazio Campusa

Mondragon Taldeak salmentak berreskuratu ditu 2021ean

Taldeko kooperatibek –80.000 laguni eman zien enplegua– 11.404 milioi euro fakturatu zituzten iaz

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE

Mondragon Taldeak batzen dituen kooperatiba guztiak kontuan izanda, 11.404 milioi euroko salmentak izan zituen 2021ean. 2020ko zifrarekin alderatuta %5 salmenta gehiago izan ziren, eta

pandemiaren aurreko salmentak berdindu egin ziren ia-ia.

Enpleguari dagokionez, 2021aren amaieran 80.821 lanpostu zituen taldeak, eta aurreko urteko enplegu mailari eustea lortu zuen.

Inbertsioen zifra da Mondragon Taldeak urtero azpimarratzen duen beste datu bat. Iaz, 390 milioi euro izan zen zifra hori; hau da, 2020an baino %16,5 gehiago inbertitu zen.

Bestelako bideak aztertzen

Taldeko industria kooperatibek 6.017 milioi fakturatu zuten –2020an baino %14,2 gehiago–. Nazioartekotzearen alde egingakoaren ondorioz, kanpoko merkatuetako salmentak industria arloaren %72 dira. Mondra-



Erreka kooperatiba. 'TU LANKIDE'

gon Taldeak ekoizpeneko 132 filial ditu atzerrian, eta 14.626 pertsona ari dira lanean bertan. 2021ean industria arloan egingako inbertsioak 240 milioi eurokoak izan dira, aurreko urtean baino 48 milioi euro gehiago.

Bestalde, Banaketa arloak –Eroski eta Erko– 5.387 milioioko salmentak izan zituen 2021ean –aurreko ekitaldian baino %3,7 gutxiago–.

Azkenik, Laboral Kutxak 108,8 milioi euroko irabaziak izan zituen 2021ean.

"Aurrenerabeen ereduak formatzea da erronka"

KARMELE PEREZ HUHEZIKO ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO ZUZENDARIA

'Haurren trebetasun sozialak lantzeko dinamizazio estrategiak' izeneko ikastaroa jarriko dute martxan irailean; begiraleei dago zuzenduta, eta izena eman daiteke jada

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Eskola, Komunitatea, Kirola, Osasuna (EKKO) izeneko proiektu hezitzailea garatzen dihardute Aretxabaletan eta Eskoriatzan, eta Arrasateko Udala ere batu da egitasmora, Arizmendi Ikastolarekin eta Arrasate Herri Eskolarekin elkarlanean.

Proiektuaren lehen fasea izango da ikastaroa, ezta?

Asmoa begiraleei trebetasun sozio-emozionalak garatzeko tresnak ematea da, ondoren haiek LH-5 eta LH-6 mailetako ikasleekin esku hartu dezaten.

Irailetik 16tik abenduaren 3ra iraungo du fase horrek.

100 orduko ikastaroa izango da; 50 ordu inguru modu presentzialean emango ditugu Huhezin, ostegunetan, gehienbat, eta gainontzeko orduak esku hartzeak diseinatzeko, eskolak bisitatzen, ikasleekin harremanak egiten... pasako dituzte begiraleek.

Nork eman dezake izena, eta nola?

BAZen eta *arrasate.eus* atarian eman daiteke izena, datorren astera arte. Hogeia lagunentzako tokia egongo da. Guk irudikatzen dugu izena ematen dutenak eskolaz kanpo ere izango direla neska-mutilak eragiteko gai; udalekuetan, entrenamenduetan, gazte txokoetan... Aisialdian aritzen diren hezitzaile gazteak



Karmele Perez. H.L.

erakarri nahiko genituzke, baina badute tokia hezkuntza formaleko irakasleek eta udal teknikariek ere.

Ze gaitasun landuko dira ikastaroan?

Autoestimuan, komunikazioan, erabakiak hartzean, arazoak konpontzean eta pertsonen arteko interakzioan jarriko dugu fokua. Errealitatean oinarritutako erronkak garatuko dituzte begiraleek, erronka horiei aurre egiteko tresnak barneratuko dituzte eta gai izango dira tresna hauek gaztetxoekin erabiltzeko; modu horretan, neska-mu-

tilek erreferente positiboak izango dituzte euren bizi-garapenean.

San Juan de Dios osasun zentroak eta Aretxabaleta kirol elkarteak egindako ikerketatik atera duzue ondorio hori.

DBHko ikasleei galdetegia pasa zieten, drogamenpekotasunaren prebentzioa nola egin jakiteko. Emaizak eskuan, konturatu ziren gazteagoekin, LHko ikasleekin, hasi beharra zegoela lan hori gauzatzen. EKKO testuinguru horretan kokatzen da. Proiektu horren arduradunak Huhezira etorri ziren ea begiraleak formatzeko ikastaroa antolatuko genukeen galdezka. San Juan de Dios ospitaleko profesionalek landuta daukate ze ariketa mota egin daitezkeen gaztetxoekin. Guk egin duguna da eduki horiek hartu eta dinamizazio fasean jarri; hau da, moduak eta estrategiak diseinatu ditugu.

2023an hasiko litzateke bigarren fasea.

Ikasitakoa praktikan jarriko dute begiraleek, eskoletan lehenengo, eta eskolaz kanpo gero. Fase hori Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuek kudeatuko dute urtariletik aurrera: antolaketa, kontratazioak... Proiektua bi urtean garatzeko egin da.



Bergarako erdiguneko termometroa, maiatzaren 21ean. IMANOL SORIANO

Neurketak egiten direnetik, ekainik beroena izaten ari da

41 graduak gaintu ziren ekainaren 18an ibarrean; Hondarribian 43,5 gradu atzeman zituzten egun berean

H.L. DEBAGOIENA

2000. urte inguruan instalatu zituen Euskalmetek estazio meteorologikoak Debagoienera; Oñatin, Elorregin, Urkulun eta Arrasaten, zehazki. 41,7 gradu ko maximoak markatu zituen ekainaren 18an Elorregikoak, eta 41,3koak Arrasatekoak. Onintze Salazar Euskalmeteko meteorologoaren hitzetan, "ekainean zehar ez du sekula hainbeste bero egin Debagoienera; ez, behintzat, datuak ditugunetik".

Gipuzkoa mailan, gainera, ekainetik haragokoa da marka. Hondarribian joan den zapatuan jasotako 43,5 graduak baino altuagorik ez dute sekula atzeman lurralde historikoan; ondorioz, 1968tik gaintu gabe zegoen langa gaintu du kopuru horrek.

Martxoa, apirila eta maiatza ere "oso beroak" izan dira; bereziki, maiatzaren 14tik 22rako astea. "Egunez ez ezik, gauez

ere egin du bero handia, eta bero boladen iraupena luzarazi du horrek", azaldu du Salazarrek. Egoera horri gehitu behar zaio urtaro "lehorra" izan dela udaberria, noizbehinka zaparradak eta ekaitzak izan diren arren, euria "ganoraz" ez duelako egin.

Datorrena, "aldakorra"

Aste honetan, baina, aldatzera egin du eguraldiak, eta, udan sartu arren, udaberriko giroa nagusitu da Debagoienera. Temperaturak 15 eta 25 graduen artean mugitu dira, eta joera hori mantenduko dela dirudi datozen egunetan ere, nahiz eta "ezegonkortasuna" nagusitu daitekeen, iragarpenak egun batek bestera aldaraziz. Zentzu berean, Euskalmeteko meteorologoak "adi" egoteko gomendioa zabaldu die herritarrei, trumoi-ekaitzak lehertzeko "aukera handiak" egongo direlako.

5 PERTSONA BIZIPEN

BIZI ITZAZU!

Amaiurren historia ikusgai Bergaran

'Amaiur 1922-1936 Memoria demokratikoa' erakusketa zabalik dago astelehenetik Bergarako Laboratorium museoan. Herria memoria-gune bilakatzeko prozesua bildu dute bertan; zabalik egongo da irailaren 11 arte eta bisita gidatuak egingo dituzte

Beñat Alberdi Igartua BERGARA

Amaiurko gazteluak bere zatia dauka Euskal Herriko historian, baina gertakarian fokua nola jarri zen bertan eta memoria-gune nola bilakatu zen batu dute *Amaiur 1922-1936 Memoria demokratikoa* erakusketan. Izan ere, Amaiurko gazteluak berak, 1522an tropa gaztelauen partetik emandako setioaz geroztik diskurtso eta sentimendu desberdinak bildu ditu bere baitan, memoria gune bilakatzeraino. Astelehenetik dago zabalik Bergarako Laboratorium museoan eta irailaren 11ra bitarte egongo da ikusgai. Uztailean eta abuztuan bisita gidatuak egingo dituzte.

Astelehenean bertan egin zuten lehenengo ikustaldi gidatua, Maite Errarte Aranzadi elkarteko langilearen gidaritzapean –etnografia saileko teknikaria da hura–. 1522an jazo zena baino gehiago, memoria-gune nola bilakatu den bildu dute erakusketan. "Amaiur gure iruditegia kolektiboan dagoen gune bat da", azaldu du Errartek. "Erakusketa honek oroimen horren eraketaren erroetara eta zergatira jo nahi du".

Bisita gidatuak udarako

Uztailean eta abuztuan gidaritzapean ikusi ahalko da bilketa lana. Ohiko bisiten tratamendua emango zaie eta 11:00etan eta 12:30ean izango dira. Bergarako Turismo Bulegoak eskaintzen dituen bost aukerei gehituko zaie. Zabalik dago, alde zuzenetik, bisita egitea eskatzea; bestela, ordu horietan bertaratzen diren herritarrek aukeraturiko dute noiz egin.

Lau gune dauzka erakusketak, eta bakoitzean dagokion Amaiurko setioari garaiko artistek eman zioten trataera biltzen du. "Erreferentzia nola joan den loratzen bildu dugu", gaineratu du Aranzadiko kideak. Erreferentzia



Erakusketan bisitariak Maite Errarte –eskuma– entzuten. BERGARAKO UDALA

AMAIUR BERA MEMORIA-GUNE BILAKATZEKO BEHAR IZAN DIREN LANAK BATU DITUZTE

bilakatu da Nafarroako gazteluko gertaera, baina puntu horretara iristeko behar izan diren lanak batu dituzte.

Hemeretzigarren mende amaieran jarri dute fokua lehenengo, euskal nazionalismoaren eta identitatearen gorakadan. "Ordura arte, irabazleek soilik hitz egin zuten gaiari buruz". Teknikariak zehaztu du bildu dituztela Amaiurko erresistentzia goraipatzen eta aldarrikatzen hasi ziren lanak. "Fenomeno hori sortu zuten pertsonaien kontaketa bat egiten da". Pertsonaia horien artean daude, besteak beste, Telesforo Monzon politikaria eta Bittori Etxeberria politikari eta feminista.

Bigarren gunea Espainiako gerrari eta horren osteko ondorioei zuzenduta dago. Errartek argitu du 1936 arte sortutako diskurtsoaren etena ekarri zue-

la gerrak, eta horren osteko diktadura. Etenduraren adibide bat izan liteke Amaiurko monolitoa 1931n zartatu izana.

Gerran parte hartu zuen Amaiurko gudarostea ere gogora ekarri du teknikariak. "Amaiurko 1522ko erresistentzia bere egin eta gogora ekarri zuten, beraien identitatea aldarrikatzeko".

Frankismo osteari bideratutakoa da azkenengo zatia, nola joan diren erreferentzia berreskuratzen. "1982an monolitoa berreraiki zuten Amaiurko herritarrek", esan du Aranzadiko kideak. "XXI. mendearen bueltan askatasun demokratikoetan aurrera egiteko eta memoria toki hau ahaztera kondenatu zituzten horiei errekonozimendua emateko pausoak ematen hasi dira, bai herritarren aldetik eta baita politika publikoen aldetik ere".

Erakusketaren jatorria

Elizondoko Arizkunenea kultur etxean jartzeko prestatu zuten lana, berez, joan den urteko abuztuan. Olaso Dorrea Fundazioak jo zuen begiz eta ekarri du Bergarara. Herri gehiagotara eramateko asmoa dute.



Ikasleak eta omenduak, oroigarriekin, Gomiztegin. TXOMIN MADINA

Hamar lagun diplomatatu dira ikasturteon Artzain Eskolan

Tartean da Alberto Royo eskoriatzarra; Migel Maiztegi eta Maria Luisa Moiuia omendu dituzte ekitaldian

Julen Iriondo M. de Zuazo OÑATI

Atzo, eguna, egin zuten Arantzazuko Artzain Eskolan ikasturte amaierako ekitaldia. Alberto Royo eskoriatzarra eta beste bederatzi lagunek jaso zituzten bertan diploma, makila eta txapela. Oraingoarekin, 25 ikasturte bete ditu Gomiztegi-ko eskolak; mende laurden ikasleak artzaintzarako "gaitzen" eta jarduera bera "modernizatzen" eta "gaztetzen", arduradunek adierazi zuten. 300 ikaslelik gora pasa dira urte hauetan Arantzazutik.

Aurtengo ikasturtean aurrekoetan baino formakuntza eskaintza zabalagoa izan dute Artzain Eskolan; teoria ordu gehiago eman dituzte, eta berriak gehitu zaizkie ohiko moduluei –prozesu osoa lantzen dute, animaliatik hasi eta esneki salmentara arte–, digitalizazioarekin, ekizpen ekologikoarekin eta terapia alternatiboekin lotuta, besteak beste. Alderdi praktikoa ere landu dute, betiko legez, eta, lehen aldiz, bederatzi hilabete iraun du ikastaroak.

Ikastaroa egin duten hamar lagunetatik zazpi 31 urtez azpikoak dira, eta lauk ez dituzte oraindik hogeitaz urte. "Datu horiek erakusten dute nolako lan garrantzitsua egiten duen Arantzazuko eskola euskal ardi eta ahuntz sektorea gaztetzen, belaunaldi aldaketa bermatzeko; hori izan zen duela 25 urte eskola martxan jartzeko arrazoi nagusietakoa", adierazi zuten arduradunek. Aurtengo hamar ikasleetatik

seik, gainera, dagoeneko badute euren artaldeak.

Ekitaldian diplomak banatuta, omenaldia egin zieten Goiko-Benta ostatuko Migel Maiztegi eta Maria Luisa Moiuari, "artzaintzaren alde egindako lan handiagatik eta Artzain Eskola laguntzeko erakutsitako prestutasunagatik". Horrekin batera, Jaime Zubia kazetariak artzaintza balioesteko egindako lana ere goraipatu zuten –Onda Vasca irrati kateko *Baserrria* saioa zuzentzen du egun–.

Protagonisten berbak

Alberto Royok adierazi zuen "asko" ikasi dutela ikasturte honetan. Eskolara joatea zer dela-eta erabaki zuen galdetuta, berriz, haxe erantzuna: "Krisiarekin eta gerrarekin-eta ikusten da lehen sektorea oso garrantzitsua dela, eta neure ekarpena egin nahi dut".

Migel Maiztegi eta Maria Luisa Moiuia, berriz, "oso gustura" agertu ziren jasotako omenaldiarekin. Beti izan dituzte ikasleak praktiketan euren, eta Artzain Eskolarekin "sektoreak asko irabazi" duela adierazi zuten. Pozik agertu ziren artzain ikastera joandako "horrenbeste gazte" ikusita.

"GERRAREKIN-ETA IKUSTEN DA LEHEN SEKTOREA ZE GARRANTZITSUA DEN"

ALBERTO ROYO, DIPLOMATUA



Alderdiekin aurkeztuta alkate dihardutenak –Leintz Gatzagako kasua desberdina da–, aurreko hauteskundeen ostean. GOIENA

Erdiak, behintzat, ez lirateke berriz aurkeztuko

Urtebete eskas falta da 2023ko udal hauteskundeetarako, eta Debagoieneko bi alkatek dagoeneko jakinarazi dute ez direla berriro hautagai izango –Antzuolakoak eta Aramaiokoak–; beste hainbestek, gutxienez, erabaki bera har dezaketela dirudi

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE Datorren urteko maiatzaren 28an izango dira hurrengo udal hauteskundeak, eta dagoeneko jakinikoa da gaur egungo zenbait alkatek ez dutela hautagai gisa errepikatuko. Horixe da Antzuolako Beñardo Kortabarriaren eta Aramaioko Lierni Altunaren kasua –biek egingo dituzte zortzi urte alkatetzan, eta beste agintaldi bat egin zuen Altunak zinegotzi–; hala baieztatu diote GOIENARI EH Bilduko bi alkateok.

"Erabakita daukat; etapak izaten dira, eta aire berria ere behar da", dio Kortabarriak, eta zera gehitu: "Gure lanak eginak ditugu praktikoki –gauzaren bat baino ez da falta–, aurreikusitako bidetik ibili gara, eta halako arduren akabera jarri behar zaie, ezin da hemen betikotu".

Lierni Altunak martxoan aurreratu zuen Goiena telebistan –*Harira* saioan– ez dela berriro hautagai izango, eta erabakia berretsitu du orain. "Deskantsu bat behar dut, eta uste dut he-

rriarantz ere ona izango dela aldaketa. Eskolara [irakaslea da] itzultzeko asmoa dut", adierazi zuen Altunak saioan.

Gainerako alkateei dagokienez, eta EH Bildukoekin jarraituz, Elgetako, Bergarako eta Oñatiko kasuetan ez dago, oraingoz, jakinarazpen ofizialik. Aurkeztuko ez denik egotekotan, hori Iraitz Lazkano izango litzatekeela dirudi. Elgetako alkateak zortzi urte egingo ditu karguan, eta, Lazkanok berak izan ditzakeen arrazoiak gorabehera, denbora horretatik harago karguetan ez jarraitzeko irizpidea aipatu izan da EH Bildun. Dena dela, Elgetako alkateak GOIENARI adierazi dio "goiztxo" dela oraindik ezer esateko.

OÑATIKO ELORZAK ETA BERGARAKO ARTOLAK IZAN EZIK, ZORTZI URTE BETEKO DITUZTE DENEK ALKATETZAN

Gorka Artolak eta Izaro Elorzak ere ez dute euren asmoaren berri eman nahi izan, baina, besteak beste, alkatetzan lau urte *soilik* daramatzatela kontuan hartuta –Artolak beste agintaldi bat ere bai zinegotzi–, ezustekoa litzateke ez aurkeztea.

EAJko alkateei so, Arrasateko Maria Ubarretxenak, Aretxabaletako Unai Elkorok eta Eskoriatzako Joserra Zubizarretak, hirurek, dute hau bigarren agintaldia alkatetzan. Batek ere ez du ezer baieztatu nahi izan etorkizunaz, nahiz eta baden gainerakoek baino gehixeago iradoki duenik: "Erantzuna mundu guztiak daki", zioen Elkorok, GOIENARI erantzunez. Alkate arduetan zortzi urte nahikoa izan daitezkeen galdetuta, berriz, haxe erantzuna: "Izan daiteke, izan daiteke, bai".

Leintz Gatzagako kasuan, azkenik, Eugenio Otsoak ez du hautagai izateko asmorik: "71 urte egin behar ditut aurren, eta jende berria behar da".

"Gauzak larri jartzen direnean denok jartzen gara martxan"

MIKEL ETXEBESTE LEZAUNGO ALKATEA

Nafarroako suteen aurka lan egin du arrasatearrak

Beñat Alberdi Igartua ARRASATE

Lizarra merindadean dagoen Lezaun (Nafarroa) herriko alkatea da Mikel Etxebeste arrasatearra. Sutearen kontrako borrokan ibili dira lezaundarrak ere; lehenengo, herria garretatik babesteko, eta ondoren, inguruko herrietako bizilagunei laguntza eskaintzeko.

Egoerak hobera egin du, baina lasaitu al da egoera?

Momentu honetan ia lasaitasun egoeran gaude. Igande goiza izan zen momentu zailena, sua nahiko gertu ikusi genuelako hemen. Suhiltzaileek deituta, koan, alerta aurreko egoeran jarri gintuzten; hau da, esan ziguten traktoreak zisternekin prest edukitzeko eta beste traktore batzuk prestatzeko lurrari buelta emateko tresnekin. Igande arratsaldea oso gogorra, baina orain, gure inguruko suak kontrolatuta daude.


Zein suk kalte egingo zizuela espero zenuten?

Larunbat eguerdi aldera Gares inguruan sortu zen sua, autobia saltatu zuen eta orduan ia pasatu zen gure ondoko bailarara, Gesalatzera. Hor Esparatz deitzen den tontor bat dago, eta hori pasatu zenean hasi zen, nahiz eta urrun egon, benetako arriskua: uztak bildu barik daudenez, gari zoruetatik ziztu bizian doa sua. Horregatik jarri gintuzten alertan. Igande eguerdian erabaki genuen ondoko herrietara laguntzera joatea.

Antolatzeko eskaria jaso zenuten.

Horretarako prest dago herri bat?

Prest-prest ez gaude sekula, baina egia da gauzak larri jartzen direnean denok jartzen garela martxan, eta ordu laurdenean prest zeuden zisterna guztiak eta beste traktoreak erreminta horiek lotzeko. Egia esan, herritarren erantzuna izan zen oso azkarra. Nafarroako Gobernutik ondo egin dena da, nire ustetan, informazioa eta aginduak udalen bitartez kudeatzea. Bestela, jendea hasten da suhiltzaileei deika, adibidez. Batez ere, askotan, jendea lasaitzeko. Oso urduri jartzen garenean ez dira hartzen era-



Mikel Etxebeste alkatea. GOIENA

baki egokiak. Oso pozik nago nola kudeatu den dena.

Sua ez da iritsi, baina ondoko herrietara laguntzera joan zarete. Zein laguntza eskaini duzue?

Laguntza mota izan da makineria eta pertsonak. Esaterako, traktore pare bat joan ziren uzta bildu barik zeuden soro horiei buelta ematera. Buelta eman bihar zitzaien, sua helduz gero herrietara ez heltzeko.

Nora bideratu zintuzteten?

Arzotz herrira joan ginen gu, Esparatz mendiaren ondora. Gu ibili ginen mendiko bide batean su-hesiak egiten. Joaten ginen motozerrekin pinuak bidearen bi aldetara moztzen eta hondeamakinak pinuak kentzen. Gero, lurrean zegoen belarra altxatzen zuten sua ez pasatzeko. Geroago, suhiltzaileak heldu ziren. Gu lauretan heldu ginen eta suhiltzaileak ez ziren heldu zortziak arte edo. Su asko zeuden, eta ez suhiltzaile asko.

Suhiltzaileekin amaitu zen zuen lana?

Pinuak moztzen jarraitu genuen, lana errazteko. Baina haizeak norabidea aldatu zuen eta suak abiadura ikaragarria hartu zuen. Denok irten ginen handik.

"URDURI JARTZEN GARENEAN EZ DIRA HARTZEN ERABAKI EGOKIAK; POZIK NAGO NOLA KUDEATU DEN"



ZABALIK

BEÑARDO KORTABARRIA

Bazterrak argiztatzen

Uztailaren 2a. Ez dakit horoskopoko zein zeinu konfabulatu edo gurutzatuko ziren, baina data bero moduan gorde beharko dut agendan. Egia esan, aurten baino lehen ere, gorriz markatuta eduki izan dut data hori, Santa Ixabel eguna izanda, eta urte luzez Usurbilen lan egin izan dudanez, jai edukitzen nuelako.

Aurten, baina, egun/gau betea egokitu zaigu antzuolarroi. Begira ze aukera agertu zaizkigun begien aurrean uztailaren 2rako: goizean auzolana Gorla sasiz garbitzeko –hamarretakoa, Udalaren kontura–, Lizarraga auzoan San Martzial jaietako ekintzak egun eta gau osoan zehar, iluntze aldera herriko frontoian pilota-partidu berezi-bereziak –besteak beste, Galeano ahizpak, Aitor Mendizabal, Manex Balerdi, Oinatz Bengoetxea eta Iñigo Pascual– eta gauean Iparraldearekin muga egiten duen Buztanzelai mendi-tontorra argiztatzea Gure Esku Dagoren ekimenaren eskutik.

ELKARTASUNA, PARTE HARTZEA, LANA, KONPROMISOA ETA, GARRANTZITSUENA, GOZAMENA

izanaren gozamena. Aukeratzen duzuna aukeratzen duzula, aipatutako horretatik zerbait eman eta eroango duzu, irakurle.

Hori bai, aukeratu egin behar. Ze erremedio, ez gara mundu kuantikoan bizi, eta, hortaz, ezin gara une berean toki desberdinetan egon.

Aurten, uztailaren 2ak mendi-tontorrean harrapatuko nau. Egia esan, behin baino gehiagotan egon izan naiz gauez mendian, iluntasun beteko zero izartu ederrari begira; oraingoan, baina, farola eta frontalez hornituta joango gara, helburua Euskal Herria eta Katalunia arteko 300 tontor argiz bete eta herrien autodeterminazioa aldarrikatzea delako. Herria eginez, mendi-tontorrean, auzolanean, edo jaiak edo ikuskizunak prestatzen. Aletxoa jarri eta bazterrak argiztatzea da kontua.

Aipatu diren lau aukerak, berez, oso desberdinak diren arren, elkarrekin badute zerikusia eta balio antzerakoak partekatzen dituzte: elkartasuna, parte hartzea, konpromisoa, lana eta, garrantzitsuena, gozamena, egiten ari zaren edo egin

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Laneko ziberjazarpena

F. JAVIER ARRIETA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Zoritzarrez, pertsonok indarkeria-mota asko jasan dezakegu, eta esparru desberdinetan, gainera; lanean berbarako.

Aurrerapen teknologikoen eta IKTak gizartean hedatzeak harremanak izateko aukerak erraztu dituzte.

Alabaina, horren ondorioz, arrisku eta indarkeria-mota berriak sortu dira; ziberjazarpena kasu.

Horrek berebiziko garrantzia du lan-esparruan gauzatzen denean.

Izan ere, laneko ziberjazarpenak bere baitan

hartzen ditu lanean gerta daitezkeen jazarpen-mota guztiak, hala nola morala, bereizkeriazkoa, sexuala eta sexuan oinarritutakoa.

Hori dela eta, enpresaburuek neurri bereziak hartu behar dituzte laneko ziberjazarpena prebenitu eta, ahal den neurrian, saihesteko.

Bi dira horretarako oinarri juridikoak: langileak lan-arriskuetatik babesteko eginbeharra eta lan-esparruan eskubide digitalak babesteko eginbeharra.

Azken buruan, ziberjazarpena, arrisku psikosoziala ez ezik, eskubide digitalak uki ditzakeen fenomeno ere bada; besteak

beste, intimitaterako eta deskonexiorako eskubideak.

Esangura horretan, kontuan hartu behar da enpresaburuak langile guztien duintasuna bermatu behar duela.

Bi esparru horietan legeriak dituen gabeziak aintzat hartuta, negoziazio kolektiboa litzateke neurriok zehazteko baliabiderik egokiena.

Horrela, hitzarmen kolektiboaren edo enpresako itunaren bidez arau daiteke laneko ziberjazarpena, beren-beregi jasoz horren definizioa, berau gauzatzea eragin dezaketen jokabideak eta enpresan aplikatu beharreko protokoloa ziberjazarpena prebenitu eta horren aurka egiteko.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Edurne Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hasi dira herrietako jaiak, eta horiekin batera, animaliekiko tratu txarrak

YOLANDA JIMENEZ SUDUPE
ARRASATE

Bigantxekin egiten diren ikuskizunetan animalia hauei estutasuna eta sufrimendua eragitea gaur egun moralki guztiz onartezina da. Jarduera hauetan zaurituak ez diren arren, seguru sentitzeko taldearen babesa behar duten animaliak erabiltzen dira festa hauetan, defenditzerik ez duten animalia gazteak. Jendez beteriko ingurune zaratatsu batean egoten dira, non ezkutatu eta ihesbiderik ez duten esparru itxi batean. Animalientzat ulergaitza den egoera honek desorientazioa, estresa, antsietatea, larritasuna, ikara eta sufrimendua eragiten die. Ikuskizun hauetan animaliekiko isekak, burlak eta irainak gertatzen dira. Honela, festa hauetan transmititzen ditugun balioak hauek dira: sentsibilitate eta enpatia falta eta animaliekiko tratu txarren normalizazioa. Entzierroak eta bigantxekin egiten diren ikuskizunak herrialde honetan gertatzen diren animaliekiko tratu txarren beste eredu bat besterik ez da. Ondorioz, animaliekiko errespetua, babesa eta tratu duina bermatu nahi dituen herri batean ikuskizun hauek guztiz onartezinak dira.

Erraustegiari eta Tapia Legeari ez!

MAREN BELASTEGI GURIDI
BERGARAKO SORTU
BERGARA

Bada urtebete pasatxo herrian egin nahi duten errauskailuaren mamutzarrarekin gainean. Herritar eta kolektibo ezberdin mordoa proiektuaren aurka agertu diren arren, Eusko Jaurlaritza eta Valogreene enpresa errauskailua egitearekin tematu dira eta euren plana aurrera eramateko edozer egiteko gai direla erakusten dabilta. Agiri, lege eta paperetan erabilitako trikimailuak, errauskailuak izango duen jardueraren zuritzea, egia erdiak, hiru laurdeneko gezurrak, auzia epaitegietara eramateko mehatxuak... eta, hori gutxi balitz, herri osoa proiektuaren aurka agertuko dela ikusi dutenean, Tapia Legea delakoa atera du EAJ-PNVk Larramendiko errauskailua eta antzerako proiektu ezberdin batzuk aurrera eramateko. Zertan datza Tapia Legea? Hitz gutxitan azalduta: eurentzat interes handiko proiektuak daudenean, herriei, udalei eta mankomunitateei euren eskumena eta erabakitzeo eskubidea kendu eta EAJ-PNVk erabakitzea herritar guztien ordez. EAJ-PNVk eta Arantxa Tapiak San Juango baserritarren, San Martingo eskolako umeen eta Uberako ingurugiroaren eta

ekosistemaren alde edo euren gertuko enpresen etekin ekonomikoen alde egingo dute? Guk argi daukagu herritarren aurretik eliteen etekin ekonomikoak jarriko dituztela. Guk argi daukagu herritarron osasuna, ingurugiroa, erabakitzeo eskubidea, enpresa txikiagoen jardun eta etorkizuna, zaborren kudeaketa jasangarria eta Bergarako Udalaren eskumenak askoz ere garrantzitsuagoak direla! Domekan berriz ere herritarrek garbi adierazi genuen proiektuarekiko gure aurkakotasuna. Eskerrik asko bertaratutako guztioi eta baita antolakuntzan jardun duen Larramendi Arnasa taldeari. Zorionak, Bergara! Horregatik guztiagatik, Larramendin egin nahi duten errauskailuaren aurka azaltzen gara eta herritarrak animatzen ditugu balkoietan errauskailuaren aurkako banderatzokak jartzera, desadostasuna adierazteko.

Pello Garitano

ITZIAR USANDIZAGA
BERGARA

Pello joan zaigu. Denon laguna, xume eta maitagarria, beti herrigintzan. Jende askorentzat eragile, ikur eta eredu, zure indarra eta kemena eskainiz. Jaietan adineko egoitzan irribarrea jarriaz. Haurrekin, berriz, bazenuen sentsibilitate berezia, Hamelingo txirulariaren pare jarraitzen zintuzten eta

Poligonoko haurren danborradan benetako ikur bihurtu zinen. Ezin ahaztu Altzasu elkartean ere denen batutzaila zinela. Gaztaina erre haietan beti hurrez inguraturik nola esaten zenuen, "eragin danbolin horri", txispak ateraz, gustura asko denok. Erreferente arlo askotan izan zinen: presoekin, txirrindularitzan, danborradan, abesbatzan... Benetan emankorra zinen. Pandemia garaian ere, auzoa alaitzen eta batzen. Pentekosteak tarteko zirela, Bitorianatxo ere atera zenuen, gora eta behera hor ibili zenuen, auzoan parte hartuaz eta Arantxarekin zure balkoian musikak lagunduta balsa dantzatzu. Azkenik, pentsiodunen astelehenetako elkarretaratzean biltzen ginen. Hor ere, zure duintasuna erakutsiz.

Ekainaren 15a: zahartzaroko abusu eta tratu txarren gainera kontzientzia hartzeko eguna

PILI IRIARTE
ARRASATEKO NAGUSIEN KONTSEILUKO
PRESIDENTEA
ARRASATE
Arrasateko Nagusien Kontseiluak adierazi nahi du ekainaren 15a izan dadila gogorarazteko adinekoa izate hutsagatik gehiegikeria eta/edo tratu txarrik ez dela izan behar.

Egun seinalatua da adinekoei eragindako abusuak eta sufrimendua gaitzesten ditugula adierazteko. Zahartzarokari lotutako estereotipo negatiboak hautsi behar ditugu. Adinduei loturiko adjektibo batzuen erabilera desagerrarazten hasi beharko genuke: *zaharra*, *baliaezina*, *zaharkitua*... Ez dugu onartu behar tratu txar horiek gizartean izatea, eta, are gutxiago, normalizazio-izaera ematea adin jakin bateko pertsonak izateagatik bakarrik. Adinekook erreferente sozial eta kultural posible gisa agertu behar dugu, urteetan zehar lortutako esperientziak duen balioa emanez. Gainera, erretiroaren irudi positiboa eman behar dugu, eta horretaz hitz egin behar dugu bizitzako etapa berri gisa, zeina ikasten jarraitzeko aukeraz beteta dagoen, pertsona gisa hazteko eta gizarteari helarazteko gure ezagutza, jakinduria eta bizi-esperientzia. Eraiki dezagun guztion artean ohitura onez betetako gizarte bat, non adinekook errespetatuak izango garen, geure duintasuna kontuan hartuko den, eta adinkeria ez den inoiz gehiago belaunaldien arteko oztopo bat izango. Arrasateko Nagusien Kontseiluak aukera eta premia baliatzen ditu gogorarazteko zahartzarokan izaten diren abusuaren eta tratu txarren inguruan kontzientziatzeak duen garrantzia. Horregatik, adierazpen honen babesa eta zabalkundea eskatzen dizuegu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA



SANJUANAK 2022



Atzo, eguna, Uarkapen egin zuten herri bazkarian, lagun talde bat. E.A.

Eztanda egin du jaiak, zeruari so

Itxaronaldia luze egin bada ere, haien elementu guztiekin itzuli dira sanjuanak; hori bai, eguraldi ezegonkorrekin. Edozelan ere, San Juan bezperan berde kolorez jantzi dira gazte arrasatearrak, euri gutxi egiteko esperantza dutela adierazi guran-edo...

Eneko Azurmendi ARRASATE

Bi urteko etenaren ostean, eta eguzkiaren eta euriaren arteko lehia medio, pandemia aurreko osagai guztiekin lehertu dira sanjuanak. Atzo eguerdian, ohi moduan, txosnaguneko txupinazoarekin abiatu zituzten jaiak, eta Euskal Herrian Euskaraz taldeko ordezkariak izan zuten ardura hori. Gitarra doinuek lagun eginda irakurri zuten pregoia eta gazte asko elkartu zen haien bueltan. Ostean, herri bazkaria egin zuten Uarkapen, kolore berdea nagusi zela. Halaber, 18:00etan makala ziren jasotzekoak –zenbaki hau aurrez itxi zen–, eta ondoren, errementari dantza, San Juan sua, dantborrada eta manifestazioa ere egitekoak ziren, *Autodefentsa feministaz armatuta gaude* lelopean. Orain, asteburu emankorra dute aurretik arrasatearrek.

108 herritarri omenaldia

San Juan egunarekin batera, Arrasaten erroldatuta dauden 80 urtetik gorako 108 herritar omenduko ditu gaur Udalak. Etxaluze eraikinean egingo dute ekitaldia, 12:30ean alkatearen agurrarekin hasita. Ondoren, omenduak izango diren emakume eta gizon nagusiei lore sorta bana emango diete. Bukatzeko, Abaroako abesbatzak emanaldia eskainiko du, eta gero, luntxa egingo dute.

Eguna borobiltzeko, bestalde, dragoi jana egingo dute Herriko Plazan –euria eginez gero, azo-

**80 URTETIK GORAKO
108 ARRASATEAR
OMENDUKO DITU
UDALAK ETXALUZE
ERAIKINEAN GAUR**

kan–, eta herritar ugari elkartuko dira, sarrerek "oso ondo" saldu baitira, AEDko ordezkarien esanetan. Beste horrenbesteko arrakasta izan du bihar egingo duten *Zeuk in zeuk jan* bazkari herrikoia ere, 1.025 izen-emate egon dira eta.

TAOrik ez da egongo gaur

Jaieguna izanik, gaur, egubakoitza, ez da TAO sistema indarrean egongo. Era berean, Udal Gobernutik azaldu dute sanjuanek ez dutela "aparteko eraginik" izango motordun ibilgailuen zirkulazioan, eta, autobus zerbitzuari dagokionez, ohikoa izango da asteburuan.

Indarkeria matxistatik gabe

Indarkeria matxistatik gabeko jaiak aldarrikatu dituzte Arrasateko Udalak eta Emakume Txokoak eta gune berezi bat



Txosna Batzordeko kideak, astean, protokoloa aurkezten. A.T.B.

Txosnetan, protokolo transfeminista

Sanjuanetan, erasoen aurkako protokoloa egongo da txosnagunean. "Baina, oraingoan, berritasun batekin dator: protokolo transfeminista izango da, eraso matxistez gain, bestelako erasoei ere aurre egingo diena –eraso arrazistak, gorputz disidentearen aurkakoak, LGTBIAQ+ foboak eta abar–", azaldu dute Arrasateko Txosna Batzordetik.

Protokoloak hiru helburu nagusi ditu: "Jendartean gaiaren inguruko kontzientzia landu eta erasoen kontra egitea guztien ardura eta konpromisoa dela ulertaraztea; hainbat neurri zehatz martxan jartzea, eraso baten aurrean, ikuspegi transfeministarekin erantzun ahal izateko eta Emakumeak*, gorputz disidenteak zein pertsona arrazializatuak jaietan subjektu aktibo bilakatu eta autodefentsa transfeministaren aldarria zabaltzea".

Txosna Batzordearen borondatea da pertsonak "modu seguru, horizontal eta askean" harremanetara diren espazioak sortzea. Beraz, espazio horiek bermatu ahal izateko, autodefentsa transfeministarako dei egiten dute: "Auto, gu geu gai garelako eta salbatuko gaituen inor behar ez dugulako; defentsa, legitimitate osoa dugulako eraso ororen aurrean erantzuteko; transfeminista, errora jotzen dugulako harreman eredu berriak sortuz".

Hortaz, diote protokoloa aktibatzeak aukera izango duela eraso bat pairatu edo ikusi duen edonork, barran daudenei jakinaraziz.

jarri dute Arbolapetan, emakumeek jaietan indarkeria sexistarekiko dituzten bizipen, iritzi eta interesak jasotzeaz gain, babes eta elkartasun gune bat izan dezaten. Atzo ireki zuten eta gaur eta bihar 20:00etatik 01:00etara izango da gunea zabalik. Etzi, aldiz, 18:00etatik 21:00etara. Gainontzeko egunetan, ohiko telefonoetara deitu daiteke: Emakume Txokoa (943 79 41 39), Gizarte Zerbitzuak (943 25 20 07), Larrialdiak (112), Udal-tzaingoa (943 25 20 10) eta EAEko 24 orduko telefono arreta zerbitzua (900 84 01 11).

**ARRAKASTA HANDIA
IZAN DUTE DRAGOI
JANAREN ETA 'ZEUK
IN ZEUK JAN'-EN
IZEN-EMATEEK**

Txosnagunea eta Euskaraldia

Euskaraldirako motorrak berritzen hasiak dira dagoeneko Arrasaten, eta San Juan jaiak baliatuko dituzte gazteak ekimenara erakartzeko. Izan ere, txosnagunean *photocall* antzeko marko bat jarriko dute, eta herritarrek animatuko dituzte horrekin argazkia ateratzera, sare sozialetan argitaratu eta ekimenari zabalkundea emateko asmoz. Horrekin batera, lorpenen kalejira ere egingo dute datorren egunean (Ikus 10.orria).

Saio berezia martitzenean

Egun hauetan guztietan jasotako askotariko edukiak oinarri hartuta, *Sanjuanetako jaiak* saio berezia ekoiztuko du Goiena telebistak, Aitor Agirianok aurkeztuta. Ekainaren 28an, martitzena, izango da ikusgai, 21:00etan eta 23:00etan.

Irabazleak "guztia" dira; saridunak, batzuk soilik

Kulturateko areto nagusian egin dute AEDk hogeita hamabosgarrenez antolatu duen Arrasate Literatur Lehiaketaren sari banaketa, eta aurkeztu dituzten 383 lanetatik hemeretzi izan dira sarituak; hala ere, antolatzaileek "guztia" jo dituzte irabazletzat

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Aspaldiko parte-hartze altuena" izan du aurten lehiaketak. Hlere, DBH mailan, bertso paperetan eta komikian ez da lanik aurkeztu, eta, datorren urtera begira, ikasle horiek animatu gura izan dituzte AEDtik. 383 lan aurkeztu dituzte, eta, kalitateari dagokionez, "maila polita" ikusi dute epaimahaikideek.

Helena Azkarragaurizar ilustratzailea izan da gonbidatua, eta lehiaketak ikasleentzat duen garrantzia nabarmendu du.

Narrazioan, 114 lan

Saridunei erreparatuta, narrazioan, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan, Jare Urrutiak irabazi du sari nagusia, *Leihotik mundura* lanagatik, eta bigarren saria Aimar Morenorentzat izan da, *Auto miragarria* lanagatik. DBHko 1. eta 2. mailetan, *Kolore gabeko mundu bat* lanarekin, Andoni Osinaldek irabazi du sari nagusia, Ainara Revillaren aurretik –*Euli bidaiaria* lana–.

Ilustrazioan, 188 lan

Ilustrazioan, LHko 5. eta 6. mailetan, Anne Sofia Dazak irabazi du sari nagusia, Ilargi Bengoaren aurretik. DBHko 1. eta 2. mailetan, Ane Fernandez izan da onena, epaimahaiaren iritziz, eta Jare Bereziarri eman diote bigarren saria.

Bertso paperetan, 35 lan

Bertso paperetan, LHko bosgarren eta seigarren mailetan, *Ametzak* izan da gaia. Ane Aranzabalek eskuratu du sari nagusia eta Jare Urrutiak, bigarrena.

Mikroipuinetan, 34 lan

Mikroipuinetan, DBHko 3. eta 4. mailetan, Nora Zeziagaren *Hormonen kantuak* lanari eman

"ASPALDIKO PARTE-HARTZE ALTUENA" IZAN DA ETA "MAILA POLITEKO" LANAK AURKEZTU DITUZTE

dio sari nagusia epaimahaiak. Bigarren saria, berriz, Oier Armentiairen *Hamairu* lanarentzat izan da. Batxilergoan, aldiz, Ainhize Ibaberen *Zoratuta ni?* lana izan da onena, Oihane Bengoaren *Azken muxua* lanaren aurretik.

Poesian, hamar lan

DBHko 3. eta 4. mailetan, *Ilargi eta Iletargi* izan da poesia onena, Alaitz Etzebarriak idatzi duena, eta bigarren saria ere idazle berak irabazi du, *Argazkietara mugatu ezin daitezkeenak* olerkiagatik. Batxilergoan, bestalde, Ane Sologaitzaren *Ipuineko erregina* olerkiari eman dio epaimahaiak sari nagusia. Bigarren saria, berriz, Alaitz Sanchezek irabazi du, *Ordezko maitea* olerkiagatik.

Komiki bakarra aurkeztu da

Nahia Davilarena izan da komiki bakarra, eta harentzat izan da sari nagusia. Informazio gehiago, Goiena.eus-en.



NIRE USTEZ

RAMON UGALDE

San Joan berriak

Orain dela urte batzuk ekimen bitxi bati ekin zioten arrasatear batzuek San Juan jaiei izaera euskaldunagoa emateko. Eta hala, Udalaren sustapenarekin, elementu berriak txertatu zituzten jaietako programa ofizialean: Dragoi jana, Errementari desfile-dantza, Eguzkilaru izeneko izate mitiko baten agerraldia, txosnagunea... Xedea ez zen erraza eta arazoetariko bat zen, eta da, gure herriko euskaldunen belaunaldien arteko transmisio kulturean eten bat gertatu zela eta euskalduntasun berri bat asmatu zutela aurrekoarekin zerikusi handirik ez duena: Eguzkia larua izatea udako solstizioan erabateko anomalia bat izango litzateke, Errementari dantzako kantaren letra ulergaitza egiten zait, eta *txosnagune* berbari serioegia deritzot. Lehenagokoetan, "erre, erre, erre subak eta sapuek erre" kantatzen zuten; orain, berriz dragoia jaten dute. Narrastiak erretzetik jatera sekulako aldea dago. Eta asuntua da ea inoiz izan ez diren zera berri hauekin sanjuanak euskaldunagoak ote diren. Ez dakit, diferenteak bai.

Eta zuei, ze pentsetan jatzue?

GORA ETA BEHERA



Umeak lorategian jolasten, Arimazubin

Herriar bat kexu azaldu da: "Lorategi guztia zapaltzen aritzen dira umeak, eta errua gurasoena da. Laster eguzkia hartzen ikusiko dugu norbait lorategian, eta ez da horretarako lekua".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.



Saridunak, martitzenean, Kulturateko areto nagusian, sari banaketa ekitaldiaren ostean. E.A.

"Aitortzarekin oso pozik nago; izugarria izan da"

MARIA JOSE GIL ATLETA

Arrasate Kirol Sarietan, kirol ibilbide onenaren saria jaso du Gilek eta "ilusio handiz" hartu du aitortza. Abenduan 82 urte beteko dituen arren, sasoi betean dago oraindik

Eneko Azurmendi ARRASATE

1940ko abenduaren 21ean jaio zen Maria Jose Gil, Igualejan (Malaga). Edozelan ere, 20 urterekin etorri zen Arrasatera eta ia bizitza osoa darama hemen. 53 urterekin hasi zen lasterketetan parte hartzen, eta ordutik askotariko garaipenak eta errekorrak lortu ditu.

Sari eta aitortza asko izango dituzu, baina etxekoa berezia da.

Bai; ilusio handia egin dit. Hautagai izatearekin bakarrik pozik nengoen, baina aitortza jaso izana izugarria izan da. Alde batetik, espero nuen, baina, bestetik, ez, jende asko zegoelako aukerakin. Hala ere, niri eman didate eta oso pozik nago.

Zein da zure sekretua?

Lana eta lana; beste sekreturik ez dago. Amodio propio handia daukat, eta, molestiak izan arren, entrenatzen jarraitzen dut.

Zenbat entrenamendu egiten dituzu hain ondo egoteko?

Ja egunero entrenatzen naiz. Domeketan atseden hartzen dut, baina, bestela, ia egunero egiten dut zerbait. Lehen, ez neukan entrenatzailerik, baina Durango Kirol Taldean nagoenetik, 2014tik, bai. Beraz, hark esaten dit egun bakoitzean egin behar dudana zer den, eta ni ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz.

Oraindik ez duzu kirola uzteko asmorik...

Egia esan, iaz Malagan jokatu-tako Espainiako Txapelketaz geroztik, uzteko asmotan nenbilen, baina taldetik esan zidaten ahal dudanera arte jarraitu egin behar nuela. Batek esan zidan balantzan jartzeko bi aldeak, eta, hausnartu ostean, konturatu naiz merezi duela jarraitzea, lehiatzeak ematen didan poztasunagatik. Beraz, Jainkoak hala nahi badu, datorren denboraldian jarraitu egingo dut.

DKTn ze giro daukazue?

Oso harreman ona daukat guztiekin eta esango nuke haiek



Maria Jose Gil, iaz, Mojategin, bi domina erakusten. XABIER URTZELAI

"IA EGUNERO ENTRENATZEN NAIZ; GELDITZEN BANAIZ, ASKO KOSTATZEN ZAIT ERRITMOA HARTZEA"

nirekiko ere hala uste dutela. Horrek ere laguntzen du. Esaterako, ekainaren 3an, Espainiako Txapelketa egon zen, master kategoriakoa. Min hartuta nengoen, ezin nuen parte hartu, baina haiekin joan nintzen. Hori esanguratsua da. **Baduzu beste errekorrik begiz jota?** Lehiatzen hasi nintzenetik, ia beti egin izan ditut errekor berriak, baina hori ez da inoiz izan nire helburua. Normalean, lehiatzen ari naizenean, ez diot denborari begiratu ere egiten, eta bukatzen dudanean jakiten dut ze denbora egiten dudana.

Anekdotak bitxi bat ere badaukazu. Zer gertatu zitzaizun Madrilen urte hasieran?

Urtarrilaren 23an, 800 metroko proba bukatu nuen eta ez nekien ze denbora egin nuen ere. Gizon bat gerturatu zitzaidan eta esan zidan sekulako lasterketa egin

nuela eta errekorra ondu nuela. Kazetaria zela pentsatu nuen, dopinaren aurkako proba egin behar nuela esan zidan arte. Egia esan, sekula ez zidaten probarik egin ordura arte, baina lasterketa guztietako irabazleei egiten ari zirela esan zidaten, eta, noski, niri ere egin zidaten. Hiru ordu eta erdi eduki ninduten han, eta oso urduri jarri nintzen, delitu bat egin izan banu bezala. Hala ere, negatibo eman nuen eta anekdota hutsean geratu zen. Hori izan da, oraingoz, parte hartu dudana azken txapelketa.

Orain, uda atseden hartzeko baliatuko duzu?

Ez. Min hartuta nagoenez, eliptikoa eta bizikleta egiten ari naiz orain. Baina ez dut atseden hartzen; izan ere, gelditzen banaiz, gero asko kostatzen zait erritmoa hartzea. Beraz, saiatzen naiz ia egunero zerbait egiten.

Beste txapelketaren batean parte hartzeko asmorik baduzu epe laburrean?

Oporretan Galiziara joan ohi gara eta han emakumeen aldeko lasterketan parte hartu izan dut, irailean. Aurten ere, han bana- go, egingo dut.



Euskaraldiaren Arrasateko herri batzordeko kideak. EUSKARALDIA ARRASATE

Euskaraldiaren lorpenen kalejira egingo dute ekainaren 30ean

Herriarrek orain arte lortu dutena ikusaraztea da asmoa, eta lorpenak panel batean idaztera animatuko dituzte

E.A. ARRASATE


Aurtengo Euskaraldia hirugarrena izango da eta erronka nagusietako bat da Euskaraldiarekin orain arte lortu dena ikusaraztea. "Indar berezia" eman gura diote horri.

Ildo horretan, Euskaraldiaren lorpenen kalejira egingo dute ekainaren 30ean, eguna. Horrekin lortu gura dutena da norbanakoek eta entitateek orain arte eman dituzten aurrerapau- soak ikusaraztea. "Lorpen txi- kienak ere balio du; are gehiago, horiek dira garrantzitsuenak. Jendea horrekin identifikatu

dadila eta parte hartzera animatu", adierazi du Ikuska Lizarralde, Euskaraldiaren Arrasateko dinamizatzaileak.

San Andrestik Herriko Plazara

18:00etan San Andrestik abiatu- ko dira, txalapartari eta trikiti- larekin, eta jai giroan egingo dute kalejira. Establezimendu batetik bestera joango dira, mer- katariak panelean idazten joan daitezen, eta Herriko Plazan bukatuko dute. Merkatariez gain, norbanakoek ere haien bizipenak eta lorpenak azaleratzea gura dute antolatzaileek.



SAIOA KARATE TALDEA

Lehenengo borrokan, garaipena

Joan den asteburuan, I. Elorrioko Kickboxing Muay Tah Opena jokatu zuten, Hilario Azkarate pilotalekuan. Kickboxing multzoan aritu zen Luka Bergaretxe, Kcic Ligth amateur modalitatean eta 69 kiloz azpiko kategorian. Txapelketa batean debuta izan zen arrasatearrarentzat, eta irabazi egin zuen borroka.

SUV gama Hibridoa eta elektrikoa

Merkatuko ECO gama osatuena



Hyundai BAYON
Hilean

130 €-tik aurrera

- 130 €-ko 47 kuota
- Sarrera: 3.285
- Azken kuota: 9.608,49
- UTB: %9,01*
- TIN: %7,50



Hyundain badakigu zein garrantzitsua den zuretzat modu iraunkorrean mugitzea.

Horregatik aurkezten dizugu merkatuko **SUV Gama Hibrido eta Elektrikorik** osoena. Ezagutu zein den zure beharretara ondoen egokitzen den ECO eredua, eta aukeratu nola mugitu.

Bayon Hibridoa (48V): merkatuko osatuena. Ezagutu zein den zure beharretara ondoen egokitzen den ECO eredua, eta aukeratu nola mugitu.

KONA Gama: ezagutu Hyundai KONA Gamaren aldakortasun harrigarria eta gozatu haren bertsio hibrido eta elektrikoarekin.

TUCSON Gama: ohikotasunetik haratago joango zara TUCSON Hibridoaren eta TUCSON Hibrido entxufagarriaren diseinu ausartarekin eta azken teknologiarekin.

SANTA FE Gama: gozatu beste maila batean SANTA FE Hibridoarekin eta SANTA FE Hibrido entxufagarriarekin, eta haien 7 plaza zabalekin.

Hyundain lanean ari gara karbono-aztarna ezabatzeke. %100 gama elektrikoa European 2035erako.



HYUNDAI MUGARRI OARSO CAR
San Andres kalea 6 • Arrasate
943 79 70 06



5 URTE Km-en mugarik gabeko
Bermea

8 URTE **Bateriaren**
bermea

Hasier Larrea ARRASATE

Meritu handiko musikariak dira Arrasateko gaiteroak. San Juan eguneko lehen argi printzekin batera aterako dira kalera, gupasa-zaleen gozamenarako. Entzierroa eta zezen-plaza girotzearekin nahikoa ez, eta erraldi eta kilikien konpartsarekin kalejira egingo dute goizean zehar, Arrasate Musikaleko bandaren konpainian. Azken hauek sanjuanetako kontzertu klasikoa eskainiko dute Monterron parkean, 13:00etan hasita.

Ilargipeko sorginak

Eta toki berean, baina gauerdian, ilargia bere onenean dagoen unean, hasiko da Neomak taldearen ikuskizuna. Taldeko zazpi emakume gipuzkoarrek, tartean Irati Gutierrez, Amets Ormaetxea eta Leire Etxezarreta arrasatearrek, azken hilabeteetan landutako abesti eta eszenografia berriak erakutsiko dituzte zuzenekoan. Gaur goizean Arrasate Irratian azaldu du Etxezarretak nolako aldarreakin dauden emanaldia hasi aurreko orduetan. Etxean jotzea "berezia" da eurentzat, "urduritasuna agerikoagoa" delako eta gertuko jendeak "gozatzea" besterik espero ez dutelako. Panderoen eta ahotsen doinuak baliatuko dituzte egiteko horretan, baita trikitiarenak ere, protagonismo urriagoarekin bada ere.

Gainera, zazpikoteak mimo handiz zaindu du kanpora begirako estetika, *Ilargi berriak* bideoklipen erakutsi zuten moduan. Amaia Albesek diseinatutako jantziek eta Maite Albesek landutako estilismoak dotorezia handia gehitu zioten eszenifikazioari, eta Monterronen plazaratuko duten itxura "des-



Neomak, Eskoriatzako Zaldibar aretoan. IMANOL SORIANO

Gustu musikal bakar bat ere ez da baztertuko

Egun bogan dauden estilo gehienak, guztiak ez esateagatik, daude ordezkaturak sanjuanetako egitarauan. Atzotik hasita, zuzeneko lasaiak, bortitzak, dantzagarriak eta abesteko modukoak jarraitu nahi dituenak badu zer, non eta noiz aukeratu

berdina" izango den arren, bideoklipen ikusitakoaren "antz apur bat" baduela aurreratu du Etxezarretak.

Beraz, panderoak eragindako kolpe tradizioaletatik abiatuta, berritasun eta aniztasun handiko kontzertua eskainiko du Neomak taldeak. Aurrerantzean ere zeresana ematen jarraituko dute, udan plazaz plaza ibiliko direlako eta disko berria laster kaleratuko dutelako.

Txosnetan, denentzako tokia

Txosna Batzordearen filosofia zein den argi ikusten da aurten go egitarau musikalarri erreparatuta bakarrik, denetariko estiloen oholta izaten ari baita Monteazpiko berdegunea. Atzo gauean, Banana Shake, Añube eta Las Clitorixxx taldeei eman

zieten euren onena emateko aukera. Goienak azken talde horretako abeslarietako bat den Maier Gallastegirekin hitzak jaso ditu. aspaldian Arrasaten emanaldirik eskaini gabekoak izan arren, hara eta hona ibili dira joan den udan zehar, ezarritakoaren gaineko kritika garratza lau haizetara eta lotsagabe zabalduz. Punka baitute euren aldarriak helarazteko helduleku. "Gorputzak, gure aluak, monogamia, patriarkatua, heterossexualitatea, jaso dugun heziketa, Eliza Katolikoaren arauak nola jarraitzen ditugun... halako kontu tabuei buruz berba egiten dugu ikuskizunetan, bai kantuen bitartez eta bai testuak irakurrita", azaldu du Gallastegik. Jendeak nola erreazionatzen duen galdetuta, askok

euren jarrera "beharrezkoa" dela esaten diete, baita sarri barrez lehertzen direla ere. Harritzeko, hausnartzeko eta barre egiteko, denetarako tartea izan zuten Monteazpin batutakoak.

Hiru talde horiek utzitako itzalaren parera heltzen saiatuko dira gaur, 21:00en bueltan, bailarako musikariz osatutako Nhil taldekoak. Pop eta funk doinuez gozatu nahi dutenendako hitzordu aproposa. Ziur bat baino gehiago jarriko dela dantzan *Bizi bagina bezala* disko freskoko kantuekin.

Bihar txosnaguneko agertokira bata bestearen atzetik igoko diren taldeak kartel berean ikustea imajinaezina izango litzateke duela ez asko, baina errealitatea da gaur egun, euskal gizartean dagoen estilo anizta-

sunaren ondorioz. Hala, Merina Grisen elektro-pop bortitza, Etxepe, Fane, Tatta, Mutiko eta Densoren musika urbanoa eta Su Ta Gar talde mitikoaren heavy eta rock kanta entzutetsuak dastatu ahaliko dituzte gustu guztietako belarriek.

Borobiltzeko, Anari

Monterron eta txosnagunea bezala, Herriko Plaza eta kalea bera izango dira emanaldi musikalak egiteko eremuak. Garinband taldearen haize doinuak eta Arrasate Trikitixa Eskolako kanturik herrikoia erdiguneko kaleetan zehar entzungo baitira, lehenengoak gaur bertan, 19:30ean, eta bigarrenak, berriz bihar, 12:30ean. Herriko Plazan, bestalde, hiru kontzertu nagusi egongo dira. Gaur gauean, 23:00etan hasita, erromeria giroa jarriko dute Oxabi galdakotzarrak, joan den asteburuan Gauragikoek jarri zuten moduan. Bihar, 22:30ean, mariatxiak izango dira protagonistak, jatorri mexikarra duen Mexico Lindo, Si Señor taldeak ereserki ugari eskainiko baititu.

Ekainaren 26a, festazaleek iristea nahi ez duten eguna, iritsiko da, azkenik. Anarizaleek, domeka izanagatik ere, gustura jasoko dute, abeslari azkoitiarra bandarekin etorriko baita Herriko Plazara. 20:00etan hasiko den emanaldiak ajea modu solemneagoan pasatzeko aukera eskainiko die batzen diren post-rock jarraitzaileei.

ERDIGUNeko KALEAK, TXOSNAGUNEA, HERRIKO PLAZA ETA MONTERRON MUSIKAZ MOZORROTUKO DIRA

Antzerki, bertso eta umore saioz josiko dira oholtzak asteburuan

Musika emanaldiez gain, ikuskizun kultural ugari jarraitzeko aukera egongo da gaur eta bihar artean

H.L. ARRASATE

Gaur, 20:00etan, barrez lehertu nahi duenak ez du aukera bakar izango esku artean, bi baizik: batetik, Trapu Zaharra taldeak *Por hacer un favor* antzezlan taularatuko du Seber

Altube plazan. Santi Ugalde eta Lierni Fresnedo aktoreek gidatuta, hautagai politiko baten jendaurrean agertzeko lotsak gainditzeko saiakera izango du hizpide kale-antzerkiak. Txosnagunean, bestalde, Bea Egiza-

balen *Magma Mia* izeneko bakarriketa feminista egongo da ikusgai. Umoristak bere "kontraesan eta buruhaustea" plazaratuko ditu, "egunerokoan patriarkatuak duen eragina" azaltzeko.

Bertso freskoak

Kritika eta umorea landuko dute baita ere, baina AEDk antolatutako bertso jaialdian, Ane Zuazubiskarrek, Jone Uriak, Xabi Igoak eta Xabat Ilarregik. Gai jartzaileak, berriz, Olatz



Marimotots eta Pirritx. GOIENA

Zuazubiskar eta Maria Oses izango dira. Biharko dago programatuta hitzordua, 12:30ean, Seber Altube plazan.

Txatxilipurdiren eskutik

Ahaztu gabe egun hori, ekainaren 25a denez gero, haurren eta gaztetxoaren festa eguna dela. Horrek esan nahi du aisialdiko hainbat eta hainbat ekintzaren artean, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Kuikui* ikuskizuna egingo dutela Monterrongo parkean, 19:00etan hasita.

Etapia berria gazteentzat eta erretiratuentzat

LHko 6. mailakoen agur ekitaldia egin zuten martitzenean kultura etxean. Aramaioiko ibilbidea bukatu duten 15 ikasleak oholza gainera igo ziren eta eskola komunitatearen agurra jaso zuten. Gainera, aurtan, hiru irakasle erretiratu dira

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Aramaio Herri Eskolan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza egin ondoren, herriko eskolako ibilbideari agur esan eta etapa berria hasteko ordua iritsi zaie LHko 6. maila bukatu berri duten ikasleei. Martitzenean egin zuten, urtero egiten duten moduan, agur ekitaldia.

Kultura etxean batu ziren eskolako ikasle guztiak, irakasleak eta gurasoak, eta oholza gainera igo ziren LHko 6. mailako 15 ikasleak. Lehenengo, bosgarren mailakoek egindako bertsoak entzun zituzten: banan-banan aipatu zituzten LHko 6. mailako bertsoak. Ondoren, euren txanda iritsi zen. Eskola komunitatea osoa eskertu zuten 12 urteko ibilbidean ondoan izateagatik: "12 urte onenak" izan direla nabarmendu zuten, baina, era berean, "Arrasaten etapa berria hasteko gogoz" daudela gehitu zuten.

Lanaren aitortza

"Ederra izan da. 2 urterekin etorri ziren, Haur Hezkuntza eta LH etapak egin dituzte eta gure eskolan egindako ibilbideari itxiera ematea izan da gaurko ekitaldia. Bizitzarako tresnak har dezaten eta Arrasatera indartsu joan daitezzen hezkuntza komunitate guztiak egin du lan; egindako lanaren aitortza da guretzako agur ekitaldia. Uste dut pozik doazela eta aurrera egingo dutela bizitzeko duten etapa polit honetan", azaldu du eskolako zuzendari Saioa Uriartek.

"Euren ibilbide guztia argazkietan eta laburtuta ikusi dute... Euren heziketan parte hartu duten guztiak ikusi dituzte. Izan ere, pertsona baten heziketan jende askok parte hartzen du eta horiek ere gogoratu behar dira, denok egin dugulako ahal duguna euren onerako", nabarmendu du Uriartek.



LHko 6. maila bukatu duten neska-mutikoak. A.E.G.



Astelehenean agurtu zituzten erretiroa hartu duten irakasleak. ARAMAIOKO HE

Hiru irakasleak, erretiroa

Martitzenean agurraz gain, astelehenean, 2021-2022 ikasturtean erretiroa hartu duten hiru irakasleak agurtzeko ekitaldia egin zuten. Eli Eizagirre, Ane Miren Etxeberrria eta Nekane Arrondo ere omendu eta eskertu zituzten. "Eskola txikia izanda, erretiroa

ELI EIZAGIRREK, ANE MIREN ETXEBERRIAK ETA NEKANE ARRONDOK HARTU DUTE ERRETIROA

hartzten duten irakasleak beti izaten ditugu inguruan, antolatzen ditugun ekintzetan laguntzen", dio Uriartek.

Ikasturtearen balorazio positiboa egin du zuzendariak: "Kontuan hartu musukoarekin hasi genuela, eta egun pentsaezina da musukoarekin egotea".

Udako oporrak aprobetxatuko dituzte hainbat lan egiteko: "Hezkuntza Sailak bigarren solairuko bi gela bateratuko ditu, eta, horrez gain, hainbat gela margotu egingo ditugu". Udalak egingo ditu eskolako margotze lan horiek.



2019ko herri afaria. GOIENA

Dagoeneko salgai daude jaietako herri afariko txartelak

Jaietako astelehenean izango da afaria: 18 euro ordaindu beharko dute nagusiek eta 10 euro umeek

A.E.G. ARAMAIO

Uztailaren 4an, astelehena, egingo den herri afarirako txartelak dagoeneko salgai daude. Añain, Anboton eta okindegian egongo dira txartelak salgai: 18 eurotan nagusiendako; eta 10 urtetik beherakoendako, 10 eurotan. Afarirako txartelak erosteko azkeneko eguna ekainaren 29a izango da, eguaztena.

Udalak dagoeneko argitaratu du San Martin jaietako egitaraua. Eguenetik astelehenera bitartean ekintzez betetako jaietan ibiltzeko aukera izango dute aramaiotarrek.

Anbotoko Mari

Azken bi urteetan, Anbotoko Mari bideo bidez agurtu ditu aramaiotarrak; bada, aurtan, berriro ere jaitsiko da Aramaio-ko udaletxera. Barikuan, uztailaren 1ean, izango dira txupinazoa, pregoia eta Anboto Mariren jaitsiera -19:00etan-. Musika, umeendako jolasak, jaioberrien ongietorria, patata-tortilla lehiaketa, antzerkia... Denetarik izango dute. Gazte Asanbladak ere egitarau zabala prestatu du.

Jaietako kartel lehiaketa Aina Inuntziagak irabazi du; umeena, Enai Bolinagak.

Nerabeei begira musika eta kirol udalekuak uztailan

Bi aukera izango dituzte nerabeeek aurtengo uda beste modu batera pasatzeko. Gazte udalekuak egingo dituzte, Udalak antolatuta: Aramaio Cover musika udalekuak, batetik, eta ekintza eta kirol udalekuak, bestetik. Musika udalekuak uztailaren 6tik 13ra izango dira, Manex Arriolabengoaren gidaritzapean. Gazteek euren gustuko cover-a egin eta grabatzeko aukera izango dute. Kirol udalekuak uztailaren 25etik uztailaren 30era bitartean izango dira, Irati Lasagarekin eta Jati Nuñezekin.

Izena udaletxean eman beharko da, uztailaren 4ra arte, 35 euro ordainduta -programa baikoitzeko-.

Doako 'fitflamc' saioa egingo du Malena Lobok astelehenean

Flamenkoa eta fitnessa batuko dituen eskola emango du Malena Lobok astelehenean: *fitflamc* saioa. Kiroldegian izango da, 18.30etik 19.30era bitartean, eta doan egingo du. Parte hartu gura duenak maledantza@hotmail.com helbidera idatzi edo 659 46 47 53 telefonora deitu behar du. "Oso dibertigarria izango da. Ariketak egingo ditugu: pisuarekin, sentadillak... Adin guztiendako izango da", azaldu du Lobok. Gaur egungo abestiez lagunduta egingo dituzte ariketak. Parte hartzeko, arropa eroso, ura eta toallatxo bat eramatea gomendatu du. Loboren asmoa da irailetik aurrera eskolak ematea.



Unai Elkoro alkatea eta Koldo Zubillaga zinegotzia herritarrek hautatutako proposamenaren alboan. MIRARI ALTUBE

Kirol eta aisialdi gune bateratuaren alde

Kiroldegiaurren aurrealdeko berdegunean zer egin erabakitzeko hiru proposamen izan dituzte aukeran herritarrek eta botoen erdia baino gehiago jasota gune mistoa izan da irabazlea; 1.397 boto baliodun jaso dira, guztira

Mirari Altube ARETXABALETA

Kiroldegiaurren aurreko zelaia ekipatzeko hiru proposamenen artean aukeratu ahal izan dute herritarrek ekainaren 13tik 17ra bitartean. 6 urtetik gorako aretxabaletarrek izan dute botoa emateko aukera eta 1.397 izan dira jasotako baliodunak; 1.197 online formularioaren bidez eta gainerako 200 botoak Arkupen.

Gune mistoa, hau da, aisialdi-rako berdegunea eta kirolgunea bateratzen dituen proposamena izan da boto gehien jaso duena: 706 –emandako boto guztien artean %50,5–; bigarren postuan geratu da gune berdearen proposamena, 385 botorekin; eta hirugarrenean, kirol instalazioen aukera, 326 botorekin. Baliogabetzat jo dituzte 45 boto, bikoiztuta zeudelako edo Aretxabaletan erroldatutakoa ez izateagatik.

Balorzio positiboa

Maiatzaren 12an jarri zuten abian parte-hartze prozesua; bilera ireki batean elkartutako herri-

tarrek hainbat aukera proposatu zituzten, eta, "ikusuntu tekniko egokitu" ondoren, bozketan faseratu pasatu ziren hiru. Unai Elkoro alkateak eta Koldo Zubillaga Kirol zinegotziak eskerrak eman dizkiete herritarrei eta "pozik" agertu dira: "Balorzio positiboa egin dugu, herritarrek interesa erakutsi dute eta. Jasotako boto kopurua erantzun ona dela horrelako prozesuetan uste dugu; eta, aldi berean, berretsi egiten dugu Udal Gobernuak herritarrei ahotsa emateko duen apustua".

Lehenengo, berdegunea

Proposamen irabazleak aisialdirako lekua eta kirolgunea bateratzen ditu. Berdegunean

BERDEGUNEAREN EGOKITZAPENAREKIN EHINGO DIETE LANEI ETA EGUTEGI BAT ZEHATZUKO DUTE

aurreikusitako zuhaitzak eta mahaia, baita ur jolasak ere, eta kirol ekipamendu txikiak: kalistenia eta ping-pong eta mahai-jokoak. Markole auzoaren ingurua oinezkoentzat egokitu dute; horretarako, aparkalekuak kenduta. Hala, Ibarra futbol zelaia ondoan padelerako eta beste kirol modalitate batzuetarako ekipamendu estaliak jarriko dituzte.

Egokitzapen horien plangintza eta epeak zehazten hasiko dira orain. "Egutegi bat egingo dugu, epeak eta kostuak zehazteko", dio alkateak. Aurtengo aurrekontuetan partida txiki bat jasota dagoela jakinarazi du Zubillagak: "Zuhaitzak landatzeko eta instalazio txikiei heltzeko aukera emango digu horrek. Beste ekipamendu batzuek inbertsio handiagoa eskatzen dute, baita proiektu bat idatzi eta hirigintza araudia egokitu ere". Agintaldia bukatzeko geratzen den urtebete eskasean "bideratuta" uztea da asmoa.



Herritar bat Etxebarri Eraikiz kapsulan. M.A.

Aretxabaletarrek Gipuzkoarako dituzten ekarpenak jaso dituzte

Eider Mendoza Gobernantza diputatua gidari zela Etxebarri Eraikiz kapsula izan zen martitzenean

M.A. ARETXABALETA

Foru Aldundiaren Etxebarri Eraikiz kapsula herririk herri dabil gipuzkoarrek lurraldearen etorkizunaren inguruan dituzten ekarpenak jasotzen, eta martitzenean Aretxabaletara iritsi zen. Eider Mendoza Gobernantza diputatua bertaratuta zen eta Unai Elkoro alkatearekin batera aurkeztu zuen ekimena.

Konpromisoak eskatu

Gipuzkoaren ezaugarriak herritarrei jakinaraztea da kapsularen helburua eta horren bueltan ariketa bikoitza egiteko eskatu

zieten aretxabaletarrei: "Alde batetik, 2040ra begira jartzea, hau da, hogeita urte barru nolako nahiko luketen Gipuzkoa izatea. Eta aldi berean, konpromiso bat hartzeko eskatu, zein ekarpen egiteko prest dauden, hain zuzen ere, ekarpen guztiek fruitua ematen dutelako ondoren".

Herritarren parte-hartzeak politika publikoen diseinuan egon behar duela berretsi zuen Elkoro: "Aretxabaletaren diseinuan, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren barruan, herritarren iritzia jasotzen ari da Udala, baita beste ekimen batzuetan ere".



M.A.

Musikarien agurra ikasturteari

Leizarra musika eskolako kideek martitzenean agurtu zuten ikasturtea, Herriko Plazan egindako emanaldiekin. Txistulariak, pandero-joleak, flauta ikasleak, trikitilariak, perkusio-joleak eta abestaldeko gaztetxoak elkartu ziren, besteak beste, oholtzan. Eta musika ikasketak bukatu dituztenei diplomak banatu zizkieten eskolako arduradunek.



Hainbat elkartetako ordezkariak, eragileak eta herritarrek eguaztenez egindako aurkezpen ekitaldian. MIRARI ALTUBE

'Hitzez ekiteko' prest agertu dira herritarrek

Abenduan iritsiko den Euskaraldirako motorrak berotzen hasi dira eta hainbat talde eta elkartetako ordezkariak eta herriko zenbait eragilek babesa agertu diote horri; aurtengo dinamika aurkeztuta, lanerako ordua dela gogorarazi dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Gazteen zein erretiratuen elkarre eta mugimendutako ordezkariak, kultur eta kirol taldeetako kideak, ikastetxeetako irakasleak, merkatariak eta udal ordezkariak besteak beste, elkarre ziren eguazten iluntzean Euskaraldiaren prestatze lanak abiarazteko eta herritarrek "lanera" gonbidatzeko. Musika eta bertsoak lagun, *hitzez ekiteko garaia* dela adierazi zuten festa giroan.

Indarrak berreskuratzen

"Aurreko edizio gorabeheratsuen ondoren, aurtengo indarrak hartu eta bultzada ona eman gura diogu Aretxabaletan", adierazi

zuen horren bueltan sortutako batzordearen gidari den Loramendiko Ainhoa Sanchezek, eta gaineratu: "Egia da aurrekoetatik ahalduka iritsi garela, baina asmoa da jende berria erakartzea batzordera eta ilusioa eta lanerako gogo berreskuratzea". Dagoeneko bilera batzuk egin dituzte eta Sanchezek gogorarazi gura izan du taldearen ateak edonorendako daudela zabalik; argibideren bat gura duenak Loramendi elkartera jo dezake.

Aurkezpen ekitaldi horrekin, azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo den dinamikaren gertatze lanei eman zieten hasiera. Hirugarren Euskaraldiak eus-

kararentzako ariguneak areagotzea du helburuen artean, eta ariketa horretan parte hartu gura duten entitateen izen-emate epea dagoeneko zabalik dago; horretarako, *euskaraldia.eus* atarira jo daiteke.

"Ezusteak" datuetan

2021eko kale erabileraren gainean egindako ikerketaren berri eman du asteazko Soziolinguistika Klusterrak, eta Aretxabaletako datuen berri izan du Sanchezek: "Oso txarrak direnik ez dut esan gura, baina ezusteko batzuk hartu ditugu. Horri buelta emateko lana egon badago, eta ea euskarren bonbilla pizten zaigun guztioi Euskaraldiarekin".

Zergatik babestu Euskaraldia?



A. CABALLERO / U. ASTOLA
GAZTE MUGIMENDUA

"Euskal hiztunak batu egiten gaituen dinamika da eta guk ere parte izan gura dugu. Izan ere, euskararen erabilera gazteen artean ere jaitsi egin da. Ildo horretatik, proiektutxo batzuk baditugu esku artean; kale neurketa egitea, esaterako".



MIGEL ELORTZA
BASOTXO

"Aretxabaletar guztion babesa behar du, nork bere aletxo jarrita egin behar dugu aurrera. 900 bazkide inguru gara eta uste dugu euskara bultzatu beharra dagoela elkarrekin; irailtik aurrera ikasteko aukera eskainiko dugu berriz".

Bost pilota partidu jokatu dira aste bukaeran

Senior mailako Zugastik Azpeitiko Ilunpe elkarteko Elozegi izango du aurkari gaur, egubakoitza, pilotalekuan (19:00). Bihar, oster, lau partidu izango dira (10:30); bigarren mailako infantilen artekoa, lehenengo mailakoena, alebilen partidua –etxe-koen artean– eta Barandiaran gazteak Amezketako Balerdiren aurka jokatu du lau eta erdian.

Andramaixetako kartela aukeratzeko lehiaketa abian da

Herriko jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Kultura Sailak. Lanek ezinbestean izan beharko duten testua honako hau da: *Andramaixak 2022 Abuztuaren 13a, 14a, 15a, 16a eta 17a Aretxabaletan*. Aurkezteko azken eguna uztailaren 7a da –udaletxean edo *kultura@aretxabaleta.eus* helbidean–, eta irabazleak 300 euro jasoko ditu.

Domeka da Udaero programan izena emateko azken eguna

Gaztelekuak Udaero egitasmoa antolatu du uztailerako, 12 eta 16 urte arteko nerabeendako. Irteerak egingo dituzte, besteak beste, Mutrikura, Urdaibaira eta Usakora; baita parrillada eta txapelketak ere. Izena emateko epea hilaren 26an bukatuko da; horretarako, honako telefonoz zenbaki honetara deitu behar da: 688 84 38 15.



RPS: 83/19



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

Eskua larruaren aurka, hamabi bikote lehian

Kontzejupeko eskupilota txapelketan azken urteetan gazteen eta nagusien txapelketak izan diren arren, zapatu honetan nagusiek bakarrik jokatu dute; hala ere, gazteendako irailean antolatzea aurreikusten dute Atxorrotx Kultura Elkartekoek

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Atxorrotx Kultura Elkarteko antolatutako Kontzejupe eskupilota txapelketa zapatu honetan jokatu da. Asteon erabaki da txapelketaren ordutegia; izan ere, izen-emateen arabera erabaki da goizean soilik egitea txapelketa edo goizez eta arratsaldez egitea; hala, hamabi bikote izena emanda, 15:00etan hasiko da txapelketa.

Berreskuratutako txapelketa

Lehia herrikoia urte askoan jokatu da udaletxeko arkupeetan, eta, 2003tik, Atxorrotx Kultura Elkartea ari da aitzinako zaletasuna galdu ez dadin kirola eta pike sanoa uztartzen dituen ekitaldia antolatzen. "Betidanik jokatu da pilotan kontzejupean, eta horrekin batera liga ere jokatu zen; astebururo izaten ziren partiduak. Hala ere, galdu egin zen, eta egun bakarreko txapelketa antolatzen hasi ginen. Normalean, goizez gazteak aritzen dira, 6 eta 15 urte artekoak, eta arratsaldean, 16 urtetik gorakoak. Inoiz, bi edo hiru ediziotan emakumezkoak ere izan dira, eta, animatuz gero, ongietorriak izango dira", adierazi du Edorta Zubizarretak. Horrekin batera, Zubizarretak gaineratu du edonork irabazi dezakeela: "Gure garaikoak umetatik aritu gara kontzejupean pilotan, eta Enrique Iregi bikotekidearekin batera duela lau edo bost urte egindako ediziora arte parte hartzen izan gara. Gogoan dut behin irabazi ere egin genuela...".

'Binbi' eta Illarra, gogoz

Lehia lagun artekoa izaten da, baina broma gutxi izaten dira udaletxeko arkupeetako txokoan jokoa hasten denean. Hori horrela, parte hartzera animatu diren bikoteak gogoz aritu dira entrenatzen, txapelketarako prest egoteko. Horren adibide da Asier

Urzelai *Binbi*-ren eta Beñat Illarramendiren kasua. "Asteon entrenatzen ere aritu gara, beste asko moduan, eta kontzejupeak eskaintzen dituen trikimailu guztiak batu eta txapelketan praktikan jartzeko gogoz gaude. Txikitatik aritu naiz bertan jokatu, lehenengo nire anaiekin, gero lagunekin... Eta ondoren, Illarrarekin bikotea osatu, eta bost ediziotan hartu dugu elkarrekin parte. Kontzejupeko sekretu gehienak aritzen garen guztiok ezagutzen ditugu; pilota eramateko zailtasun handienak dituzten koskak non dauden badakigu, eta jakinekoea da udaletxeko atea dela pilota gaiztotzeko eremua, guztiok topatzen dugun txokoa. Hala ere, beti agertzen da koska berriren bat... Beraz, une oro egin behar duzu adi", adierazi du Asier Urzelai *Binbi*-k.

ALTUNA HARATEGIKO TXULETAK JASOKO DITUZTE SARI GISA TXAPELKETAKO IRABAZLEEK



Edorta Zubizarreta, Beñat Illarramendi eta Asier Urzelai pilotariekin. J.BEREZIARTUA

Haien palmaresaren berri emateko galdetuta, berriz, honako hau dio Illarramendik, barrez: "Pilotan jokatzeko jakitea ezinbestekoa da hemen ondo aritzeko, baina pilota eramatearekin asko egiten da. Pilotakada zail bat nolabait jasotzean, esaterako, koska baten jo dezake eta dejada itzela gertatu, pilotari onenak ere ezingo lukeena eraman. Gure kasuan, edizioaren batean izan gara finalean, baina irabazi, sekula ez. Ea zapatuan...".

Binbi eta Illarramendi bikoteak aurkari zailak ere izango dituzte bertan, eta horietako batzuk ere aipatu dituzte. "Aitor Oyon eta Ibai Gracia izaten dira, normalean, finalera iristen direnak, baina irabazi dezakegu. Guztiok ditugu puntu ahulak, eta edozer gerta liteke", adierazi du *Binbi*-k.

Irailean, gaztetxoentzat

"Herriarrak Kontzejupeko eskupilota txapelketa jokatzeko gogotsu zeudela ikusita, bikote ugari emango zuela izena pentsatzen genuen, eta, horrenbestez, gazteen mailako txapelketa irailerako antolatzea erabaki dugu, eta zapatu honetarako nagusia bakarrik".



EUSKARALDIA ESKORIATZA

Euskaraldirako panel berria

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean egingo da Euskaraldia. Hirugarren ekinaldia izango da, eta Eskoriatzako batzordea martxan da dagoeneko. Ariketan DBHko 4. maila bukatu duten Almeneko ikasleek lehenengo aldiz parte hartuko dute, eta hormako panelari aurpegia aldatu diote; Herriko Plazaren eta Gernika plazaren artean ipini dute.



ESKORIATZA K.E.

Bazkaria eta sari banaketa

Eskoriatza kirol Elkarteko kideek bazkaria izan zuten joan den zapatuan, Manuel Muñozen. Denboraldiari agur esateko batu ziren, eta bide batez, denboraldian nabarmendu diren jokalariei sariak banatzeko ere aprobeztatu zuten hitzordua. 100 lagun inguru batu ziren bazkaltzeko, eta ederto pasatu zutela adierazi dute zuzendaritzatik.

Sanpedroak ospatuko dituzte Zarimutz elizatean

Aurten, San Pedro jaiak ospatuko dituzte berriro Zarimutzen. Hain zuzen, jaieguna ekainaren 29an ospatu beharrean, asteburura aldatzea adostu dute auzokideek, eta, beraz, uztailaren 2an, zapatuan, ospatuko dute. 12:00etan, meza nagusia izango dute Santa Agedako koruko kideekin, eta gero, luntxa izango da, trikitilariak girotuta.

Guadalajarara bidaiara antolatu dute Olazar Elkarteko kideek

Uztailaren 18tik 21era bitartean Guadalajarara bidaiara egingo dute Olazar Erretiratuen Elkarteko kideek. Lekuak mugatuak dira, eta izen-ematea ekainaren 28an amaituko da. Zehaztepen gehiago, erretiratuen elkarteko bulegoan jaso dezakete interesdunek, baina, lau egunetarako egitarau ederra prestatu dutela azpimarratu dute.

Lanketa ona egiteko, elkarlanari balioa ematea

Emakumeen aurkako sexu indarkeria matxistaren inguruan egindako adierazpen instituzionala bertan behera geratu arren, talde feministek ekarpenak eta galderak egin dituzte, "gaiaren seriotasunak lanketa sendoa" behar duela adierazita

Imanol Beloki ESKORIATZA

Ekaineko ezohiko osoko bilkuran, azpimarratzekoa izan zen EAJk aurkeztutako adierazpen instituzionala: *Gipuzkoa emakumeen aurkako sexu indarkeria matxistatik gabeko jaien alde*. Bilduren abstentzioarekin ez zuen udal talde guztien babesik izan adierazpenak, baina bere fruituak eman zituen gaia mahai gainean jartzeak; izan ere, Eskoriatzan Feminismoa Bizirik eta Eskoriatzako Neska Gazteak taldekoak eta Debagoieneko Guerreras taldekoak bertan izan ziren ekarpenak egiten.

"Adierazpena ez da aurrera atera, eta pena da, Gipuzkoa mailan ideologia ezberdinekoek onartu duten arren Eskoriatzan ez delako irten. Hala ere, pozik gaude eman dugun pausoagatik. Horrez gain, herritar talde bat etorri da ekarpenak egitera, eta betikoa; dagokion batzordean landuko dugu, teknikariekin batera, eta bideragarria dena aurrera aterako dugu, eta ez dena, ez. Alde horretatik, poztekoa da herri partaidetza", adierazi zuen Josu Ezkurdiak, EAJko bozeramaileak. EH Bilduk, bestalde, abstenitu izanaren zergatia argudiatu zuen: "Herriarren ekarpenak zuzenagoak dira, eta eztabaida sakonagoa



Martitzeneko ezohiko osoko bilkuran batutakoak. IMANOL BELOKI

da. Hala, abstentziora jo dugu, penaz, adierazpen instituzionalak indar bat duelako, baina ezin gara bere horretan geratu, gai hauek jorratu egin behar dira, eta ekintzak proposatu", adierazi zuen Nestor Aranek, EH Bilduko bozeramaileak.

Elkarlanari balioa ematea

"Urte osoko lanketa egin behar izango litzateke, genero indarkeria ez delako jaietara soilik mugatzen. Ekarpene sorta bat egin dugu, eta helburua da genero formakuntza bat egotea admi-

nistrazioan eta herrian, eragile ezberdinekin, elkarlanean. Jaiei erreparatu, bestalde, puntu lila bat dago, eta ez dugu informazio berezirik jaso; ordutegi laburra du, eta horretatik kanpo Udalak badu erremintarik nola jardun jakiteko? Horrekin batera, Eskoriatzako Neska Gazteak taldekoek protokolo bat egin dute euren aldetik, eta berritortu diot, urte osoan sustatu behar dugu elkarlana", adierazi zuen Lore Diaz de Gereñuk, Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideak.

Mural zapatista

Aste Zapatista amaitu arren, Iban Urreta @mutikokristal artista aretxabaletarraren laguntzarekin mural zapatista amaitu dute asteon Olazarren, Kimu ile-apaindegi alboko paretan. *Ez dago bakerik maitasunik gabe... Ez dago etorkizunik borrokarik gabe!* lelopean egindako murala berbagai izan da eta ikusi dutenen arreta piztu du.



IMANOL BELOKI

LEINTZ GATZAGA 17



Beñat Agirreurreta, Eugenio Otsoa eta Juanito Bengoa ekaineko osoko bilkuran. I.B.

Gaztainuzketako mendi-etxeen zerbitzua, Gaizka Perezi esleitura

Eskaera bakarra jasota, eta udal ordezkariak begi onez ikusita, aretxabaletar gazteak hartuko du ardura

Imanol Beloki UNAMUNO GATZAGA

Atzo, eguena, egin zuten ekaineko ohiko osoko bilkura Leintz Gatzagako Udaleko Hautesle Elkarteko kideek, eta, gai zerrendari erreparatu, azpimarratzekoak izan dira zenbait puntu. Horietako bat izan da Gatzagako Udaleko lanpostu zerrendaren aldaketaren hasierako onarpena egitea, eta horren arrazoiak izan da udal langile batek erretiroa hartuko duela: "Bi emakume ditugu Udaleko administrazioan lanean, Josune eta Marijo, eta Marijok erretiroa hartuko duenez, beste pertsona bat beharko dugu, hark egiten duen lana egiteko", adierazi du Juanito Bengoa Gatzagako zinegotziak.

Mendi-etxeak hizpide

Horrekin batera, Gaztainuzketako mendi-etxeak ere izan zituzten atzoko osoko bilkuran

berbagai. Izan ere, Gaztainuzketako apartamentu turistikoaren konplexua kudeatzeko esleipena egin dute, eta aho batez onartu dute udal ordezkariak. "Gaizka Perez Aretxabaletako mutil gazte bat da, eta LEINNEko ikasketak egin ditu Oñatin, enpresa bat martxan jartzeko asmoz. Hura izango da Gaztainuzketako mendi-etxeak kudeatuko dituen, eta, gauza bereziren bat ez bada gertatzen, hark eramango du zerbitzua. Itxura ona hartu diogu; alegia, aholkulari oso onak ditu, eta gure konfiantza osoa du. Hori horrela, uztailaren 1ean martxan jarriko da. Apurka-apurka mendi-etxe batzuetan hobekuntzak egingo ditu, eta aurrera begira taberna zerbitzua irekitzeko asmoa ere badu. Hala ere, azken honi erreparatu, aurrean, behintzat, ez duela irekiko taberna aurreikusten du", Bengoak adierazi duenez.

Udaleku irekietarako izen-ematea itxita, gertu daude hasteko

Leintz Gatzagako Gurel Guraso Elkarteko kideek antolatutako udaleku irekiak uztailaren 4tik 15era bitartean izango dira. Aurretik, Eskoriatzako Jone Azkargorta eta Garazi Barandiaran izango dira begiraleak, eta 4 eta 10 urte arteko zazpi neska-mutiko arituko dira uztailako aisialdi eskaintzako ekintzez disfrutatzen.

Uztailako bi asterako prest duten aisialdi programaren barruan, Leintz Gatzagako udalekuan arituko diren haurrak dibertitzeko plangintza aztertzen ari dira Azkargorta eta Barandiaran hezitzaileak egunotan, eta hurrekin batera eta haien nahien arabera osatuko dituzte ekintzak. Hala ere, eguraldiaren arabera moldatuko dituzte ekintzak, irteerak eta, bestelakoak, eta, beraz, bigarren planak ere izango dituzte gertu kasu horietarako.

JAIETAKO EGITARAUA

ASTELEHENA 27

19:00 *Axtrokiko ontziak* erakusketaren inaugurazioa, Ibarraundi museoa.

MARTITZENA 28

BEZPERA EGUNA

11:00 ARKU TIRAKETA erakustaldia, Ibarraundi museoa.

12:00 Umeentzako MARRAZKI LEHIAKETA, plazan (4-12 urte).

17:00 2021ean JAIOTAKOEI ONGIETORRI EKITALDIA, udaletxean.

17:00 KUADRILLEN ARTEKO JOKOAK, plazan (8-12 urte).

18:30 JAI KANPAIAK.

19:00 Jaiei hasiera emateko TXUPINAZOA ETA PREGOIA herriko plazan. Aurtengo pregoia sektore soziosanitarioan lanean ari diren zenbait eskoriatzarrek egingo dute, sektoreko langile guztien ordezkaritzan. Ondoren, Musika Eskolako bandaren kalejira eta txistulari taldearen kalejira buruhandiek.

19:30 SALBEA, parrokian.

19:30 DANTZALDIA Iratzar taldearekin, plazan.

22:30 NAGUSIEN DANBORRADA.

00:30 DANTZALDIA Iratzar taldearekin, plazan.



2019ko nagusien danborradako une bat; aurtengo ere, San Pedro eguneko ekitaldi nagusia izango da. AITOR AGIRIANO

EGUAZTENA 29

SAN PEDRO EGUNA

10:00 DIANA Eskoriatzako txistulari taldearekin.

11:45 ELIZBIRA.

11:50 KOPORAZIOA ELIZARA joango da txistulariek lagunduta.

12:00 MEZA NAGUSIA, San Pedro elizan.

12:00 HEGAZTI HARRAPAKARIEN ERAKUSTALDIA, Gorosarri plazan.

13:00 MUSIKA ESKOLAKO BANDAREN KONTZERTUA, plazan.

17:15 KENPO ERAKUSTALDIA, plazan.

18:00 'GOIAZEN' ikuskizuna Gorosarri plazan.

18:00 ESKU PILOTA PARTIDAK, Joseba Iñurrategi pilotalekuan. Sarrerak: 5 euro. Etexzarreta-Txusti vs. Zubia-Gartzia, eta Retegi Bi-Ladis Galartza vs Garmendia-Labaka.

19:30 'ZIRKO TXOSKO' kale ikuskizuna, plazan.

22:30 SANPEDROETAKO TRAKA – Santa Marinatik botako da–.

22:30 KILIMAK TALDEA, plazan.

22:45 RAP KONTZERTUA, Gorosarri plazan: Dave, Chaos, Gota00, Cryne540, Alka eta Gafer.

EGUENA 30

HAURREN EGUNA

11:00 DIANA Eskoriatzako txistulari taldearekin.

12:00 Hildakoen aldeko MEZA.

12:00 ENTZIERRO TXIKIA Apotzagako bidetik Intxaurtxuetako plazara. Bertan, errektore eskola ibiltaria.

13:00 SONIDOS DE MEXIKO mariatxi taldea, plazan.

13:00 UKRAINAREN ALDEKO DASTAKETA SOLIDARIOa elkarte gastronomikoen eskutik, plazan.

14:30 BAZKARIA gaztelekuan (12-16 urte).

16:00 29. MUS TXAPELKETA, Gernika plazan. Izen ematea: 30 euro bikotea (15:30-16:00). Sariak: 1.a: Jasotako diruaren %50, txapela eta bertako produktu sorta. 2.a: Jasotako diruaren %25 eta bertako produktu sorta ertaina. 3.a: Jasotako diruaren %15 eta bertako produktu sorta txikia. 4.a: Jasotako diruaren %10.

16:30 KUADRILLEN ARTEKO JOLASAK (12-16 urte).

18:30 DISKOPUNTU, Txaloka antzerki taldearekin, Partxis plazan.

20:00 OTENPODIZ dantza taldea, Gorosarri plazan.

23:00 BON SCOTT REVIVAL SHOW, plazan.

EGUBAKOITZA 1

EUSKAL JAIA

11:00 DIANA Eskoriatzako txistulari taldearekin, herriko kaleetan barrena.

11:30 UMEENTZAKO PUZGARRIAK, Santa Marina plazaren ondoan, 13:30ak arte.

12:30 MUSIKA ESKOLAKO DANTZA TALDEA, plazan.

12:30 TALOGILEAK ETA SAGARDO KUPELAK, herriko plazan.

13:00 TRIKITILARI KALEJIRA.

15:00 KANTU BAZKARIA, plazan.



MARTIN frutategia
Frutan eta txarkuterian espezialista
Gora Eskoriatzako jaiak!

San Juan kalea 12 ESKORIATZA Tel.: 652 77 53 58

Helduak (+18 urte): entsalada mistoa, baserriko oilaskoa eta txerri saiheksia parrillan, Ezeizako pasteltxoak edo limoizko sorbetea, edariak, kafea eta txupitua. Prezioa: 20 euro.

0-17 urte: urdaiazpiko kroketak, iberikoak, zero kilometroko hanburgesak parrillan patatekin, izozkia, ogia eta edariak. Prezioa: 13 euro.

Txartelak hartzeko: kiroldegia, Benta-motz eta Inkernu, ekainaren 22a arte. Lekua erreserbatzeko: 636 78 59 71 (Whatsapp).

17:00 OZTOPO trialsin taldearen erakustaldia, Gorosarri plazan.

18:30 UMEENTZAKO PUZGARRIAK, Santa Marina plazaren ondoan.

19:00 BURUHANDIEN TXIRRINDULARI LASTERKETA, plazaren ondoan, 16 urtetik gorakoentzako.

20:00 Lehian taldearekin DANTZALDIA.

23:00 Lehian taldearekin DANTZALDIA.

ZAPATUA 2

KUADRILLEN ETA FAMILIEN EGUNA

11:00 DIANA Eskoriatzako txistulari taldearekin.

11:30 REALEKO PUZGARRIAK, Santa Marina plaza ondoan.

12:00 PATATAK+ LEHIAKETA, Gorosarri plazan.

13:00 DUO IMPERIAL taldea, plazan.

14:30 BAZKARIA, Gorosarri plazan, *Patatak+* lehiaketan parte hartu dutenentzako. Eta, gainera, kuadrillen arteko lehiaketa: bazkarira joaten diren kuadrilla guztiek parte hartuko dute.

17:00 KI DJ-A, Gorosarri plazan.

18:30 REALEKO PUZGARRIAK, Santa Marina plaza ondoan.

20:00 EN ESENZIA orkestra, herriko plazan.

23:00 EN ESENZIA orkestra, herriko plazan.

Txupinazoa zuzenean

Goiena telebistak jarraipen berezia egingo die Eskoriatzako jaiei. San Pedro bezperan, martitzenean, ekainaren 28an, *Hemen Debagoiena, jaietan* saioa zuzen-zuzenean emango du Eskoriatzako plazatik, 18:30ean hasita. Larraitz Zeberio aurkeztuko du saioa eta jaiei hasiera emango dion txupinazoa eta pregoia jasoko ditu. Zenbait protagonista elkarrizketatuko ditu: Joserra Zubizarreta alkatea, Andoni Moto danborradako kapitaina eta txosnetako ordezkari bat.

Horretaz gain, ekainaren 29an, 19:00etan eta 21:30ean, Eskoriatzako danborrada eskainiko dute; danborradak Eskoriatzako plazan egingo duen emanaldia, hain justu ere.

Txosna Batzordearen egitaraua

MARTITZENA 28

- **18:30** IREKIERA ETA BRINDISA.
- **19:00** TXUPINAZOA, plazan.
- **Ostean** MUSIKA KARRO IBILTARIA.
- **22:30** DANBORRADA.
- **Ostean** Musika: DJ MOTO.

EGUAZTENA 29. GAZTE EGUNA. 'HONDARTZARAAA!'

- **14:30** BAZKARIA: Zuk egin, zuk jan.
- **Ostean** JULENE ETA UNAI, musika emanaldi akustikoa.
- **19:00** TELMO POTEOLA.
- **23:00** Musika: DJ ROSAMARI.
- **Ostean** Musika: PINTXADA KOLEKTIBOA.

EGUENA 30. KONTZERTU EGUNA

- **18:00** STREET BOULDERRA musika karroarekin herrian zehar.
- **22:00** KONTZERTUAK: Klineks, The Clayton eta Tres Kuervos.



EGUBAKOITZA 1 EUSKAL JAIA

- **21:00** KONTZERTUAK: Banana Shake, Txerrikumeak eta Azken Sustraiak.

ZAPATUA 2 KUADRILLEN EGUNA

- **14:30** BAZKARIA.
- **17:00** JOLASAK, IX. Banderia.
- **19:30** UPEIDE elektrotxaranga.
- **23:00** LIZARTXO erromeria.
- **00:00** Jolasen SARI-BANAKETA. Eta ondoren, DJ Pontapin.
- **Ostean** MUSIKA: DJ Pontapin.



AINGERU Gasolindegia S.L.



Aingeru Guarda pasealekua z/g
20540 Eskoriatza
Telf.: 943 71 53 73



Inoiz baino garrantzitsuagoa

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

*Aurten bai!
Ondo ibili jaietan!!*

Hemen
garbiketak

Intxaurtxueta 16, behea
ESKORIATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com



Urrutia, Eguzkiza, Arevalo eta Bengoa. ESKORIATZAKO UDALA

Txupinazoa osasun langileek botako dute

Pandemia garaian egin duten lanaren eskertza egin gura diete langile soziosanitarioei; horregatik, euren ardura izango da jaiei ofizialki hasiera ematea. Aurtengo San Pedro jaiek egun bat gehiago izango dute: uztailaren 2a, zapatua

Arantzazu Ezkibel ESKORIATZA

Osasun arloan lanean diharduten profesionalak aitortuko ditu aurtengo Eskoriatzako Udalak. Hala, jaietako txupinazoa bota eta pregoia esateko ardura izango dute. Lau izango dira udaletxeko balkoira igoko direnak, gainerako profesional soziosanitarioen izenean: Dorleta Urrutia, Deiane Eguzkiza, Loli Arevalo eta Maider Bengoa.

Ekainaren 28an, martitzenean, hasiko dituzte San Pedro jaiak Eskoriatzan. 19:00etan emango zaie ofizialki hasiera jaiei, txupinazoarekin eta pregoiarekin. "Pandemiaren ostean, Udalak nahi izan du aitortza bat egitea sektore horri, pandemia osoan egin duten lanagatik", azaldu du Kultura teknikari Arantzazu Unzuetak.

Pozik eskertzarekin

Maider Bengoa: "Orain dela hiru aste izan genuen txupinazoaren berri. Egia esan, ez nuen espero, eta ilusioa egiten du; baina, ilusioaz gain, urduri ere banago". Bengoa Gurutze Gorriko boluntarioa da 2014az geroztik; Urrutia Jose Arana egoitzako langilea da; Eguzkizak Debagoieneko Ospitalean eta Aita Menni ospitalean egiten du lan; eta Arevalok, Debagoieneko Ospitaleko ama-haurren unitatean.

Dagoeneko prest dute martitzenean esango duten pregoia. "Pregoi motza izango da, eta eskerrak emateko aprobetxatuko dugu aukera. Eskerrak, baita ere, beste sektore batzuei; izan ere, beste batzuk ere ibili dira lanean. Horrez gain, hil direnak gogora ekarriko ditugu.

Azkenik, jaiak ondo pasatzeko eta errespetuz jokatzeko mezua zabalduko dugu", dio Bengoak.

Pregoiaren ondoren, brindisa izango dute udaletxean; profesional soziosanitarioez gain, merkatariak ere gonbidatu dituzte brindisera. Pandemiaren zehar bizi izan duten egoera gogorren aitortza egingo diete azken horiei.

Egun bat gehiago

2022ko San Pedro jaiek ohikoek baino egun bat gehiago izango dute: zapatua arte luzatuko dituzte, uztailaren 2a. Zapatuan, kuadrillen eta familien eguna ospatuko dute. Besteak beste, *Patata+* sukaldaritza lehiaketa izango dute, 12:00etan, eta ondoren, bazkaria egingo dute Gorosarri plazan, 14:30ean.

Ume jaioberriei ongietorria egingo diete lehenengo aldiz

2021ean jaioetako umeak omenduko dituzte: guztira, 23. Martitzenean izango da, 17:00etan, udaletxean

A.E.G. ESKORIATZA

2021ean Eskoriatzan jaio ziren haurrei ongietorria egingo diete udaletxean ekainaren 28an. Beste herri batzuetan indarra hartzen dabilen ekitaldia da, eta, hala, aurtengo San Pedro jaietan Eskoriatzan ere egingo dute. 17:00etan egingo dute eta "ekitaldi xumea" izango dela nabarmendu dute.


23 ume

2021ean, 23 ume jaio ziren Eskoriatzan, eta horien guztien familiek jaso dute ekitaldira joateko gonbidapena.

Ekitaldian parte hartuko duen umeetako bat Adei Labayen Landa izango da. 2021eko apirilaren 23an jaio zen, eta, iazko sanpedroez gain, aurtengoak izango ditu lehenengo jai ofizialak. Ainhua Landa eta Iban Labayen gurasoek maiatzan jaso zuten ekitaldia parte hartzeko

gonbidapena. "Ekimen polita iruditzen zait gure artera datozenei harrera egitea", nabarmendu du Landak. Aurtengo jaiak modu berezian biziko dituztela gehitu du Landak: "Lehenengo jaiak izango dira Adeirekin. Bestelako plan batzuk egin beharko ditugu, umei begira-koak. Egia da umeek guztiari ilusio bereziarekin begiratzen diotela, eta hori ikustea ere polita da".

Eneritz Zubia eta Joseba Azkune Aiert txikiarekin, eta Malen alabarekin joango dira. "Otsailaren 24n jaio zen Aiert. Pozik hartu dugu gonbidapena; egia esan, berrietasun polita da eta jaioberriak hartzeko modu polita iruditzen zait", dio Zubiak. Lehenengo alabarekin ez zuten horrelako ongietoririk izan: "Hala ere, Eskoriatzan badago beste ohitura bat, zuhaitzak landatzearena".



Ezkerrean, Aiert Azkune; goian, Adei Labayen eta behean Sara Lamarain. A.L.



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Gozatu eta
ondo pasa
San Pedro jaiak!

Eskoriatzako campusa

Dorleta auzoa, z/g
20540 Eskoriatza

Aretxabaletako campusa

Otalora 31
20550 Aretxabaleta

943 71 41 57

harrera.huhezi@mondragon.edu

www.mondragon.edu

Erreplika berriak utzita, Ibarraundin ikusgai

Axtrokiko urrezko ontziak duela 50 urte aurkitu zituzten, eta, hori horrela, Aranzadi Zientzia Elkartekoez utzitako erreplikak izango dira ikusgai Ibarraundin. Ekainaren 27an inaugurazioa izango da, eta bisita gidatuak egingo dira zenbait egunetan

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Bolibar elizatean, Axtroki haitzaren magalean, 1972ko abuztuaren 17an, lur-jausi baten ondoren, urrezko bi pieza aurkitu zituzten Eskoriatzan. Aurtun, 50 urte betetzen dira ontziak aurkitu zituztenetik, eta, Eskoriatzako Udalak kudeaketa ofizialak egin dituen arren *Axtrokiko ontziak* izenez ezagutzen diren piezak berreskuratu eta Euskal Herrian erakutsi ahal izateko, 50 urte bete diren honetan, Eskoriatzako Udalak kalitate handiko erreplika hauek aurkeztu ditu. Erreplika hauek Aranzadi Zientzia Elkartek gorde ditu aurkikuntza garaitik.



Axtrokiko urrezko ontziak. MADRILGO MUSEO ARKEOLOGIKO NAZIONALA

Balio handiko piezak

Urte hauetan hainbat ikerketa egin dira bi ontziei buruz, pieza hauen jatorriaren zantzak argitzeko asmotan, eta azken Bronztze Aroan datatu izan dira; hau da, K.a. 1200-850 urte inguruetan. Dituzen dekorazioen interpretazio astronomikoak ere egin dira, eta, aurkitutako lekuaren erreferentzialtasuna zein orduko kulturekin izan dezaketen harremana kontuan izanik, horien erabilpenari buruzko hainbat teoria ere garatu dira.


"Lur-jausi handi baten ondorioz metaturiko lurra erretiratzeko

lanetan, ontziak bata bestearen barnean sartuta aurkitu ziren, inongo testuinguru arkeologikorik gabe. Lanen eraginez, apurketa partzial bat jasan zuten ontziek. Hala ere, balio arkeologiko handiko piezak dira Eskoriatzako urrezko ontziak, eta gaur egun Madrilgo Museo Arkeologiko Nazionalean daude. Ibarraundi museoa baditugu erreplika batzuk, baina erakusketan jarriko ditugunak kalitate handiagokoak dira. Horiek Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek utzi dizkigute, eta, pie-

zekin batera, panel informatiboekin egongo da osatuta erakusketa", adierazi du Saioa Alzuak, Ibarraundi museoko langileak.

Bisiten ordutegia

Asteon prestatu dute erakusketak Ibarraundi museoa, eta San Pedro jaietan ekainaren 28an, 29an, 30ean eta uztailaren 1ean bisita gidatuak izango dira, eta baita uztaileko martitzen guztietan: 5ean, 12an, 19an eta 26an; euskaraz 18:00etan eta 19:00etan gazteleraz.



Aitziber Errazkin, Ander Lacalle eta Asier Burguete izango dira Eskoriatzan. GLU GLU

'Go!azen' telesailekoak Gorosarrin izango dira San Pedro egunean

Ikuskizunean parte hartzeko aukera izango dute gonbidatuek, protagonistekin batera oholtzara igota

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako San Pedro jaietako programazioan ekintza ugari izango dira haurrei zuzenduta: marrazki lehiaketa, kua-drillen arteko jokoak, entzierro txikia eta barrakak, besteak beste. Hala ere, San Pedro egunean, 18:00etan, Gorosarri plazan, jailetako programazioan dagoen eta haurrentzat zuzendutakoa den hitzordu azpimarragarria izango da. Izan ere, Pausoka eta Glu Glu Produzioak konpainiek egindako *Go!azen karaokea* musika ikuskizun berria aurkeztuko dute ETB1eko *Go!azen* telesaileko zenbait protagonistek.

5 eta 16 urte bitarteko haurrei zuzendutako ikuskizuna izango da, ordubete inguru iraungo du, eta, telesaileko hainbat aktoreren parte-hartzearekin eta artista gonbidatuen laguntzarekin, denboraldi honetako

abestiak abesteko karaoke irekia eskainiko dute.

Ikuskizun parte-hartzailea

Maiatzaren 29an estreinatu zuten ikuskizun berri hau, *Go!azen karaokea*, eta bertaratzen direnek dantzekin eta kantuekin gozatzeko aukera izango dute Gorosarri plazan. *Go!azen karaokea* ikuskizunean, Aitziber Errazkin *Enara*, Ander Lacalle *Luken* eta Asier Burguete *Markel* aktoreek gidatuta, telesaileko zenbait abesti kantatzeko aukera izango dute jarraitzaileek: batzuetan, aktoreekin batera; eta, beste batzuetan, eurek bakarrik. Ikuskizun animatua eta parte-hartzailea izango dela aurreratu dute, eta gazteei bertaratzekei dei egin diete. Horrekin batera, zehaztu dute aste gutxiren buruan telesailaren 9.0 denboraldia grabatzen hasiko direla-eta adi egoteko.



Azken urteetan gazia,
erein deigun herriz hazia.
Ondo ibili sanpedrotan!!



eskoriatzako
udala


Tradizioari balioa eman, eta berrikuntzak ezarri

Pieza berriekin eta batailoi berri batekin, 200 lagun baino gehiago irtengo dira San Pedro bezperan herriko kaleetan zehar danborrak astintzera. Azken entseguetan abestiak fintzen dabilta, eta gertu daude parte-hartzaileak festarako




**NIEVES
GALDOS**

"Urte mordera egin ditut danborradan. Lehen, Amuska konpainian irteten nintzen; desagertu egin zen, eta gaur egun, Irrintzi taldean ari naiz. Abestiak ondo ezagutzen ditugu, eta berriak ere ikasita, gertu gaude danborradarako".



**IRATI
UNANUE**

"Lehen aldiz arituko naiz danborradan. Presoen aldeko batailoian arituko naiz, eta, entsegu bakarrean huts egin dudana arren, nahiko ondo ikasi ditut piezak. Abesti berriak errazak egin zaizkit, baina pena da betiko pieza batzuk kentzea".



**JAVI
GIL**

"San Pedro eta Intxaurtxuetako batailoia sortu dugu aurten. 28 lagun arituko gara talde berri honetan; horietako zenbait pertsona beste hainbat edizioetan ere aritutakoak dira; beste batzuk, ordea, ez. Ondo egitea aurreikusten dugu".



**DORLETA AGIRIANO ETA
EIDER ELORZA**

"Urteak daramatzagu alabak eta biok batera danborradan parte hartzen. Ni entseguen batera ezin izan naiz etorri, baina, Eider, guztietara etorri da. Hala ere, entseguak ondo egin ditugu, ondo koordinatzen gara, eta uste dugu primeran egingo dugula".

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Andoni Moto helduen danborradako zuzendariaren gidaritzapean, bederatzi konpainia arituko dira aurten, 22:30ean hasiko den danborradan, eta zenbait berrikuntzarekin irtengo dira herriko kaleetan zehar danborhotsak gogoz jotzera: Presoen Aldeko Taldea (131), Eguzkilore (14), Gu Geu (20), Kirol Elkartea (14), Dorleta sukaldariak (14),

Irrintzi (14), San Pedro Txiki (28), Egokiena (10) eta Elizoste (9); hain zuzen, 254 lagun.

Pieza berriak ondo ikasita

"Esko aurrera Kirol Elkarteen himnoa eta *Marioren martxa* Eskoriatzako txistulariaren omeneko piezak dira berriak, eta horiek sartzeagatik, *San Sebastian martxa* eta *Martxa de Viejas* kendu ditugu. Entseguetan kosta egin da pixka bat horiek ikastea, baina uste dut parte-hartzea ona izan dela, ondo ikasi dituztela eta prest daudela parte-hartzaileak egunerako", adierazi du Andoni Motok, Eskoriatzako danborradako zuzendariak.

Danborrada txikirik ez

Helduen danborradan dagoen parte-hartze handia positiboa da, baina arazoa ere izan daiteke; izan ere, Fernando Eskoriatza plazara iristean, danborrari guztiak bertan sartzeko lanak izango dituzte. Bestalde, haurren danborradarik ez da egingo aurten, Sanpedroetan, Udaletik jakinarazi dutenez. Horren arrazoiak da guztia antolatzekeo boluntario falta dagoela.



ESKORIATZAKO SAN PEDRO JAIK

ZUZENEAN TXUPINAZOA HERRIKO PLAZATIK

EKAINAREN 28AN, MARTITZENEAN, 18:30EAN

NAGUSIEN DANBORRADA

EKAINAREN 29AN, MARTITZENEAN, 19:00ETAN ETA 21:30EAN

goiena
Zu hemen zaude.



Ondo ibili jaietan!!

Akeita • Inkernu
O'Dogherty • Txalaparta
Urrestilla





Tres Kuervos taldeko musikariek lehenengo emanaldia egingo dute sanpedroetan, txosnagunean. IMANOL BELOKI

Gazteria inplikatuta ekintzen prestakuntzan

Eskoitzako Txosna Batzordeak bertako taldeen aldeko apustua egin du. Horrez gain, parte-hartzea sustatzeko asmoz, 'pintxada kolektiboa' egongo da, eta baita "sekretupean" antolatzen ari diren kuadrillen arteko jolasak ere, IX. Banderia eskuratzeko

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Txosna Batzordearen programazioa antolatzeke garaian gazteriaren inplikazioa izugarria izan dela aurtun adierazi dute Eskoitzako Txosna Batzordeko kideek. Horrekin batera, herriko musika taldeen aldeko apustua egin dela azpimarratu dute, eta, bost eguneko egitarauan, ibilbide luzeko musikariak eta hasiberriak egongo dira Santa Marinan. "Errelebo aldaketa beharra zegoen antolaketa taldean, eta ilusioz aritu dira herriko gazteak proposamenak egiten, ardurak banatzen, ideia berriak ekartzen...", adierazi du Mikel Letonak, Eskoitzako Txosna Batzordeko kideak.

Musika eskaintza zabala

Kontzertuen egunean, hau da, ekainaren 30ean, Aramaioko The Clayton taldea izango da txosnetan, eta, harekin batera, Eskoitzako Klineks eta Tres Kuervos taldeak. Klineks Ibai Gorosarri –gitarra-jolea–, Jon Regaño Zeke –abeslaria eta gitarra-jolea–, Asier Hernandez Ax –bateria– eta Liher Armendariz Baresi –baxu-jolea– lauko-

teak osatzen du, eta, hamabost urtez geldirik egon ostean, kontzertu gutxi batzuk eskaini dituzte azkenaldian. Tres Kuervos taldeak, berriz, Maitane Otamendi *Manzana* gitarra-jotzaile eta Joseba Olmo baxu-jotzaile eskoitzarrek eta Jon Iglesias *Moroti* bateria-jotzaile soraluzetarrak osatzen dute. Musika egiten urte asko daramatzate hirurek, baina, talde berria osatu, eta proiektuaren aurkezpena egiteko emanaldia izango dute sanpedroetan. "Hala ere, aurretik, San Pedro egun bezperan, Andoni Moto DJa izango dugu; uztailaren 1ean, Aretxabaletako Txerrikumeak eta Arrasateko Banana Shake taldeak eta baita Goierriko Azken Sustraiak, besteak beste", adierazi du Letonak.

Kuadrillen arteko jolasak

Eskoitzako Txosna Batzordeko hiru pertsona ari dira antolatzen kuadrillen arteko jolasak, eta sekretupean ari dira dena prestatzen. Hauxe aurreratu dute: "Banderia jolasaren hasierako jolasak berreskuratzeko ditugu, lehenengo urteetakoak, baina berrikuntzak ere izango dira..."

**maulanda
jatetxea**

*Aurten bai!
Gora sanpedroak!*

943 71 47 20
678 62 74 85

Maulanda auzoa 1 • 20540 Eskoriatza
www.maulandajatetxea.com



ESTALKETA ELEKTROLITIKOAK

Aurten bai! Gora sanpedroak!



Aingeru Guarda pasealekua 41 - Eskoriatza - Tel.: 943 71 45 06 - www.mirvat.com

Uda betea dator, kulturaz neurri barik gozatzeko

Uztailaren 1ean, 8an, 15ean eta 22an kontzertuak izango dira Espoloian, Berumugaren barruan (22:00), eta Usondon bost emanaldi izango dira; bestalde, etzi, kontzertu berezia emango du bandak San Pedro elizan (12:30), erraldoiekin eta Elgoibarko gaiteroekin

Jokin Bereziartua BERGARA

Udalaren udarako kultura eskaintzaren barruan musika izango da osagai nagusia. "Bergara herri bizia izatea nahi dugu, eta sinistuta gaude kulturak herria aberastu egiten duela. Maila handiko taldeek hartuko dute parte, eta saiatu gara emakumeen presentzia ere bermatzeko, herriko taldeei lekua egiten eta nazioartean sona duten taldeak ekartzen", esan zuen Kultura zinegotzi Kristina Markinak, atzo egindako agerraldian.

Uztaleko musika, Usondon

Kontzertuetarako "ederto" funtzionatu izan duen Usondo parkeko bost emanaldi prestatu dituzte. Kultura teknikari Mainer Osak azpimarratu du Usondo parkearen egokitasuna: "Usondon egindako emanaldiek ederto funtzionatu izan dute eta aurten erabaki dugu uztaleko musika eskaintza parke horretan zentralizatzea". Uztailaren 2an, Pelax taldeak joko du (22:00); uztailaren 5ean, Ertzak taldeak (20:00); uztailaren 10ean, Potx eta Lotx pailazoaren emanaldia egongo da (19:00); uztailaren 14an, Liher taldeak joko du; eta Usondoko emanaldiak borobiltzeko, La Furia abeslaria igoko da Usondoko oholtzara, uztailaren 28an (22:00). Musikaz gain, uztailerako ardo dastatzea eta ikastaroa antolatu dute San Lorentzon, Mikel Garaizabalen eskutik; uztailaren 19an izango da, 19:00etan. Gainera, uztailaren 21ean *Trapu zikinak* antzez-lana ikusi ahaliko da Errekalde jauregian (19:00).

Berumuga, kalitatearen berme

Berumugako lau kontzertuak "bereziki goi-mailakoak" izango dira aurten; Espoloian, 22:00etan hasita. Uztailaren 1ean, Mexikoko Son Rompe Pera taldeak joko du; bost musikariek osatzen dute, eta marimba, conga, per-



Markina, Osa, Alustiza, Uzin eta Arizabaleta, atzo, Usondon egindako agerraldian. J.B.

BERUMUGA BARRUKO LAU KONTZERTUEZ GAIN, USONDON BOST EMANALDI IZANGO DIRA UZTAILEAN

kusioa, güiroa, bateria, gitarra, baxua eta bateria jotzen dituzte. Soinu bizia eskainiko dute, garage, marimba, punk eta cumbia doinuak nahastuz. Uztailaren 8an, Donostiako Arima Soul taldea izango da gonbidatua; Mikel Makala baxu-joleak eta Lidia Insausti abeslariak sortutako proiektua Paul San Martin teklatu-joleak eta Gorka Gaztanbide bateria-joleak osatu dute. Soul, funk eta jazz-groove doinuak eskainiko dituzte. Uztailaren 15ean, Los Angelesetik (AEB) datorren The Reverend Shaman Amos taldea igoko da Espoloiko oholtzara; rhythm & blues doinuak oinarritutako "kontzertu zirraragarria" izango da. Eta, uztailaren 22ko kontzertuarekin, Montpellier-ko (Frantzia) The Big Marteen's taldeak itxiko du zikloa; swing eta rhythm & blues doinuak eskainiko dituzte, zu-

zeneko indartsu bezain dotorea rekin. Abuztuaren 3an eta 31n, Fraiskozurin *Aztikeriak* magia emanaldia eta *Hemendikara* zirku saioa izango dira, hurrenez hurren.

Domekan, banda eta erraldoiak Uztailera arte itxaron barik, domeka honetan bi emanaldi berezi izango dira: batetik, 2020an erraldoien taldeak 20. urteurrena ospatzeko bandarekin batera egin behar zuen kontzertua berreskuratu dute, eta San Pedro elizan joko dute etzi (12:30). "Piezak erraldoien bueltakoak izango dira gehienak. Elgoibarko gaiteroen ezinbesteko laguntza izango dugu horretarako, eta, bereziki, Txomin Mujikarena. Gaita eta banda munduak ederki ezagutzen ditu Mujikak, eta dantzaldian eskainiko diren pieza guztiak hark konposatu edo moldatutakoak dira", dio bandako zuzendari Enrike Txurrukak. Elgoibarko gaiteroek 50 urte bete dituzte aurten. Bestalde, Mozart protagonista izango duen *Missa coronación* kontzertu sinfonikoaz gozatzeko aukera egongo da Santa Marina elizan, 19:00etan (Ikus 41. orria).

GORA ETA BEHERA



Elorregiko geltokiaren egoera "penagarria"

Elorregiko autobus geltokiaren egoera "benetan penagarria" dela salatu dute: "Zikintzen duenarena da errua, baina ze udalena da ardura? Hilabete pare bateko tartean zabor berbera topatu dut".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Pentsiodunen bizikleta martxarako autobusa

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren Bizikleta Martxa Donostian amaituko da zapatuan, Alderdi Ederren (11:30). 12:00etan hasiko dute manifestazioa. Autobusa antolatu dute Ibargarai geltokitik, 10:00etan. Izena emateko: 630 74 81 95 (Itziar).

San Joxepe elkarteak: San Martzial eta korua

San Martzialera igotzeko 07:30ean elkartuko dira hilaren 30ean, Santa Marina elizan. Ermitako mezaren ostean, txokolate beroa banatuko dute. Bestalde, abesbatzarekin jarraitzeko gogotsu daudela diote: "Trailean hasiko gara entseatzen, martitzenetan".

San Martin eskola: jangela ereduaren eraldaketa

Eskola-jangelak eraldatzea helburu duen topaketa egingo dute bihar, eskolan (10:30); egungo egoerari buruzko "informazioa, ideiak, erronkak, aukerak eta energiak" partekatuko dituzte. Euskaraz izango da eta amaieran mokadutxo bat egingo dute.

Kontzertua kartzela zaharrean

Bihar, ekainak 24, Antuxuna Ta Patx eta Txost taldeek kontzertua emango dute kartzela zaharrean (22:30). Sarrera zortzi euro ordaindu beharko da.

UGARTE
 AROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak
 Leihoak · Tarimak
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea
 Tel.: 943 034630

AROTEGIA
 San Juan 1a
 Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

I21
 KALITEA
 Empresa Registrada V190/025



Asteleheneko azken agurra: Lokatzakoen pasilloaren ostean, Alai abesbatzakoek *Goizeko izarra* abestu zioten Pello Garitanori. A. GOITI

"Betiko agur" Garitanori, herrigintzaren ikur berezi

82 urte zituela hil zen, ekainaren 18an, Pello Garitano Mendibil; Lokatzan, danborradan, Alai abesbatzan eta beste hainbat herri proiektutan itzal handia utzi duen "erreferenteari" agur beroa eta hunkigarria eman diote asteen. 'Goizeko izarra' kantuarekin agurtu zen Alai

Jokin Bereziartua BERGARA

Ekainaren 18an itzali zen, 82 urte zituela, Pello Garitano Mendibil argia, baina luzea izango da hainbat bergararren utziko duen itzala. Lokatza Ziklismo Eskolan utzi du, bereziki, hutsune handia: "Lokatzagatik eta herriagatik egin duzun guztia ez dugu sekula ahaztuko. Zuregatik gara eta izango gara". Lokatzako presidente Ion Unamunok honako hau aitortu dio GOIENARI: "Lokatzak Pellori esker biziraun zuen urte batzuetan. Lokatzari asko eman dio, baina baita herriko beste hainbat proiektuari ere. Hutsune handia utzi digu, ez dago-eta hura bezalakorik. Egundoko pertsona zen, paregabea".

Bizirik zela aitortza jasotakoa

Bizirik zela jaso zituen omenaldiak herriaren alde egindako lan mardulagatik. 2009ko urriaren 18an, *Pelloren Eguna* ospatu zuten, frontoian egindako herri bazkarian 500 lagun batzeraino; orduan ere jasotako aitortza "gehiegizkoa" zela esan zuen arren, hunkituta eta pozik sentitu zuen herriaren maitasuna.

Era berean, 2018ko sanmartinetako umeen danborradaren ostean ere omendu zuten, 40 urtez haurren danborradako erreferente nagusia izatearren; honako hau esan zuen *San Martin martxa* zuzendu eta omenaldia jaso berrian: "Urte asko dira, bai, baina gustura egiten dudana boluntario lana da. Sanmartinak eta bi danborradak sakratuak dira niretzat. Ezinbestekoak".

Bestalde, horrenbeste maite zuen Zubieta kalea berritzeko lanak martxan ikusita oso pozik zegoen: "Garaikoetxea lehendakari zenetik hasitako borroka irabazi dugu, *Zubitta* konpondu egingo da!". Alai abesbatzako kide ere bazen Garitano; 2022ko maiatzaren 7an eman zuen azken kontzertua Alai taldeak eta kontzertu hori izan zen Garitanoren azken agerraldi publikoetako bat. Asteleheneko Santa Marina elizako hiletaren ostean, hilketzak Lokatzako ziklistek erruberekin egindako pasilloa zeharkatu eta berehala, Alaiok *Goizeko izarra* abestia eskaini zioten; senitartekoen eta hainbat herritarren txalo artean eman zioten azken agurra Garitanori.



Manso Optika

50 urte
Mila esker
urte hauetan
bidelagun
izateagatik

www.opticamanso.com

943 76 27 86

Irizar pasealekua 2
Bergara

Aldarri ozena, "isilpean" landutako planaren aurka

Larramendiko Arnasaren arabera, ekainaren 19ko protestan 1.500 bat lagun egon ziren; diote Jaurilaritzak proiektua "inposatu" egin duela, eta gaia "isilpean" eroan. Valogreenek ziurtatu dio GOIENARI baimena baduela, baina dio orain ezin duela beste daturik eman

Jokin Bereziartua BERGARA

Erraustegirik ez! Ez hemen, ez inon! lelopean, manifestazioa egin zuen Larramendiko Arnasak ekainaren 19an; antolatzaileen arabera, 1.500 bat lagun elkartu ziren. Protestarako sei arrazoi eman zituzten; besteak beste, proiektua "isilpean" landu dela: "Ezkutatu egin dituzte, adibidez, tratatu beharreko hondakinen protokoloa, erabiliko diren ekipoen teknikoak eta kare produktuen irtenbideak". Ingurumen azterketak "akatsak" dituela ere adierazi zuten: "Ez dira aztertzen berotegi-efektuko gasen isuriak, airearen kalitatea, sintesi-gasaren kontrolak gabeko erretzearen ondoriozko leherketa arriskuak, eta ezta inpaktu akustikoak ere".

Jaurilaritzak proiektua "inposatu" duela ere salatu zuten protestan. "Udal Gobernuaren eta herritarren gehiengoaren nahiaren gainetik ezarri nahi dute (...) Jaurilaritzaren lehen-tasuna enpresa pribatuaren inte-

res ekonomikoen alde egitea da, herritarren osasunaren gainetik (...) Mozorro berdearekin jantzi dute Valogreeneren proiektua".

Udala eta Valogreene

Jaurilaritzak bide administrati-boa itxi diola ulertuta, Udal Gobernu aurrera begira zeurrats egin aztertzen ari da: "Oraingoz, ez dugu berririk". Elxeko (Alacant) Valogreene enpresan ere galdetu du GOIENAK, eta enpresak ziurtatu dio ingurumen baimen bateratua baduela, baina, oraingoz, ezin duela bestelako daturik eman.

Ezker Anitzaren mozioa

Bestalde, Debagoieneko Ezker Anitzak mozio bat erregistratu du Udalean, Jaurilaritzak hilaren 13an Valogreeneri emandako ingurumen baimenari Udalak helegitea jar diezaion eta *Tapia legea*-ren aurka egin dezan. Ekainaren 27ko osoko bilkuran landuko da gaia udalbatzan.

San Juango jaiak bueltan datoz, errotei bisita nobedadea dela

Pandemia aurreko ohiko egitarauari bereziki gogotsu heldu diote aurten San Juango auzotarrak. Atzo, San Juan sua piztu zuten hainbat baserritan, eta gaur, San Juan eguna, hainbat ekitaldi izango dira: lore sorta lehiaketa (13:00); 80 urtetik gorakoei omenaldia –eta ondoren auzotar gazteenari, Alluitz Aznal Azpeitiari– eta erretiratuaren bazkaria. Bihar, amaitzeko, aurtengo nobedadea: Narbaizabolua eta Elortzabolua baserrietako errotetara bisitatu, 12:00etan hasita. Izena emateko, 659 29 79 65 telefono zenbakira deitu behar da –auzotarrek izango dute lehentasuna–. Amaitzeko, herri bazkaria egingo dute San Juan elkartean (14:30).

Euskara sustatzeko ekimenak: 'Bertatik Bertara' eta 'Harixa'

Uemaren *Bertatik Bertara* ekimena zerbitzu sektoreari dago zuzenduta. Manteltxoak prestatu dituzte, ostalaritzan sarri erabiltzen diren esamoldeak sei hizkuntzatan jarrita. Tabernako hizkuntza paisaia euskararen presentzia areagotu nahi duten ostalariek Uemara (943 81 66 99) edo Udaleko Euskara Zerbitzura (943 77 91 66) dei dezakete. Bestalde, *Harixa*-rekin herriko enpresen artean euskara sustatzeko hitzarmenak sustatu nahi dituzte. Gaian esperientzia duten enpresek, Jardunek eta Udalak osatzen dute mahaia, eta Emun ari da gidari. Hurrengo bilera hilaren 30ean egingo dute, Miguel Altunan –12:00etan eta 17:00etan–.



Domekako manifestazioaren burua, Bideberri kalean gora. IMANOL SORIANO

Ekainak 30 + Uztailak 1 eta 2

UDAKO MERKEALDIAK

Bergarako kaleetan

19:00etatik 21:00etara txaranga egunero!

PINTXO LEHIAKETA

100 €-ko saria

Bozkatzen baduzu!!!

Ekainak 29 eta 30 + Uztailak 1

TXARANGAK

29an - **Adiskideak**

30ean - **Dunbots**

1ean - **Elektrotua**

PARTE-HARTZAILEAK:

Amilotx - Egon - Erreki - Etxagi - Euxe - Ganbara

Hamaika - Kayak - Sirimiri - Txamonix - Venti - Zazpi








Buztinzuriko tabernetako terrazak Antzuolako erdigunean. M.A.

Terrazen ordenantza berritua onartu dute

Antzuolako terrazen ordenantza 2008koa da; egun, alarma egoera amaituta, "orekan eta bizikidetzan" oinarritutako ordenantza berria onartu dute martitzenean egindako ezohiko osoko bilkuran. Interesa dutenek lizentzia eskaera egin beharko dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Pandemia ostean, terrazen ordenantza egokitzea onartu du EH Bilduk. "Alarma egoera amaituta, ordenantza errepasatu dugu egungo egoerara egokitzeko. Oreka bilatzen saiatu gara, lotarako zein kalean ibiltzeko eskubidea aintzat hartuta. Taberna bakoitzak hartzen duen espazioa ere kontuan izan dugu", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Hala, astean zehar 22:30ak arte -pintxo-potea, 23:00- luzatuko da ordutegia; egubakoitzetan eta zapatuetan, berriz, 00:00ak arte. Gainera, ezingo da terraza erakusleihen eta atarien aurrean jarri, eta lizentzia eskatu beharko da. Eskatzaileek Udalarekin ezingo dute zorrik izan, eta isunek %10eko igoera izango dute. EAJ abstenitu egin da, proposamenak "aldaketaren diagnosia eta herriarren bizimoduak izango duen afekzioa" ez dakarrela jasota iritzita. Ildo beretik, aurka bozkatu du alderdi sozialistak.

Eraso matxista bako jaiak

EAJk aurkeztuta, Gipuzkoa emakumeen aurkako sexu indarkeria matxistarik gabeko jaien aldeko mozioa aho batez onartu dute. "Emakunderen gidarekin, adituekin eta udal ordezkariak zabal baten -baita berdintasun teknikariekin ere- parte hartzearekin osatutako testua da. Prebentzioan, biktima eskaini beharreko arretan eta erantzun publikoan oinarritzen da adierazpen hau", azaldu du Miren Elgarresta zinegotzi jeltzaleak.

Frontoi txikiko lanak

Frontoi Bidea kaleko pilotaleku txikia estali egingo dute. Horretarako, aho batez onartu dute

PILOTALEKU TXIKIA ESTALI EGINGO DUTE; 90.000 EUROKO AURREKONTUA DU PROIEKTUAK

kreditu aldaketa. "Goizperrek 58.650 euroko dirulaguntzarekin babestuko duela proiektua adostu dugu; hala, diru hori baliatuz eta guk jarriko dugunarekin estaliko dugu pilotalekua. Guztira, beraz, 90.000 euroko kostua izango duen proiektua lehiaketara aterako dugu", dio alkateak.

Nabarralderen mozioa

Bi ikur herri bakarra mozioa EH Bilduren botoekin onartu da, eta plazan ikurrinaren alboan jarriko dute Nafarroakoa ere. "Zergatik ez gogoratu gure historia? 1200ean, bortxaz konkistatu artean, antzuolarrok ere nafar estatuaren baitan ginela?", dio mozioak. Alderdi sozialistak eta EAJk aurkako botoa eman dute. "Euskal lurraldetasun nazionalaren aldetik herri honek bandera bakarra dauka, ikurrina, 1977an onartu genuena diktadorea hil ostean. Herri bat eta ikur bat dugula deritzogu guk", dio Aitor Urrutia jeltzaleak.

Haurren danbor hotsek emango diete hasiera Kalebarrengo jaiak

Gaur, Zurrategin, Anelkarrek tortilla-pintxoak banatuko ditu Kongori eta Senegali elkartasuna helarazteko

Maidar Arregi ANTZUOLA

Kalebarrengo Jai Batzordeak gertu zabala egitarau zabala.

Bi urteren ostean, gainera, herritarrak gogotsu daude eta elkartasuna sustatzeko aukera hori probestu nahi du Anelkarrek. Izan ere, 19:30ean, elkarrekin elkartasun tortilla-pintxoak banatuko ditu Zurrategin. Batzen duten dirua Kongoko eta Senegalgo proiektuak bultzatzeko izango da, eta herritarrei dei egin nahi diete tortillak eraman ditzaten.

Baina gaur, haurren danborrak emango die jaiak hasiera, 19:00etan; eta 21:30ean, Karena taldearen emanaldia izango da Zurrategin.

Sagar dantza

Zapato goizean, haurrendako ekintzak izango dira. Hala, mural kooperatiboa eta ginkana

egingo dituzte, 11:00etan hasita. Arratsaldeko seietan, berriz, buruhandiekin kalejira izango da; eta 20:30ean, Kittu taldearekin txaranga.

Ondoren, Zurrategin herri afaria izango da, nork bere afaria eroanda -mahaiak eta aulkiak egongo dira-. Gauean, 23:00etan, Narbaiza eta Laja trikitilariarekin erromeriaz gozatzeko aukera izango da, eta gauerdian, aspal-diko ohiturari jarraiki, sagar dantza egingo dute herritarrek.

Domekan, 10:00etan, txistulariekin goizeresia izango da, eta ondoren, meza. Amaieran, salda eta txorizoa banatuko dituzte Kalebarrenen. Eguerdiko hamabietan, dantzari gazteen emanaldia izango da.

Arratsaldean, aldiz, 17:00etan, Zirika Zirkusen eskutik *Aurkitu gabeko altxorra* ikuskizuna izango da Zurrategin.

Sexu Askapenerako Nazioarteko Egunean solasaldia izango da

Ekainaren 28an, martitzena, *LGTBIQ+ Bizitzak Antzuolan* izeneko solasaldia egingo dute Torresorua aretoan, 18:30ean hasita. Bingen Alkorta, Belen Azkarate eta Garikoitz Letek parte hartuko dute, eta "zer suposatzen du marikona/bollera izateak gure herrian?" gisako galderen inguruan hausnartuko dute bertaratutakoekin batera.

Erretiratuek bazkaria egingo dute uztailaren 10ean

Bi urteren ostean, erretiratuek bazkaria egingo dute patioan, uztailaren 10ean, 14:15ean. Ekainaren 29an eta 30ean, 16:00etik 17:00etara, izena emateko aukera egongo da. Zerbitzari-lanetarako boluntarioak behar dituztela jakinarazi dute; gertu dagoenak udaletxera (943 76 62 46) dei egin dezala, edo Joxe Angel Arbuluri (687 83 12 13).

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

82 ume hartuko dituzte aurten udaleku irekietan

Astlehenean zabalduko ditu ateak udaleku zerbitzuak, eta lau astez jokoak, lagunarteko irteerak eta askotariko eskulan tailerrak izango dituzte Elgetako gaztetxoek. Pandemia urteetako mugak lausotu egingo dira, zorionez

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Aurreko bi urteetan zerbitzua eman bada ere, mugatua izan da. Osasun egoera orokorrak hobera eginda, nolabaiteko normaltasunera itzuliko dira Elgetan ere udaleku irekiak. Zerbitzuak astlehenean, ekainak 27, zabalduko ditu ateak, eta lau astez egongo da martxan. Tarte horretan 82 neska-mutiko igaroko dira bertatik; guztiak, 2008tik 2018ra jaiotakoak.

Bost talde, sei hezitzaile

Sei hezitzaile izango dira aurten, guztiak emakumezkoak: Nerea Villa, Uxue Larrea, Paula Palacios, Amaia Otxoa, Sara Ugarte-buru eta Maitena Mañarikua. Seien artean gidatuko dute lau asteko eskaintza eta adinaren arabera bost taldetan antolatuta dituzte umeak. Txikienak -2, 3 eta 4 urte- *sugandillak* izango dira, 5 urtekoak *loritoak* izango dira, LH-1ekoak *tximuak*, LH-2 eta LH-3koak *zebrak* eta LH-4,



Udalekuetako amaiera festa, duela hiru urte. L.Z.L.

LH-5 eta LH-6ko umeak *lehoien* taldea izango da.

Harrera-gunea, eskola

Herri Eskola izango da udalekuetako egoitza nagusia, baina hezitzaileek nabarmendu dute

kanpo ekintzak izango direla nagusi aurten ere udalekuetan. Eguraldiak laguntzen ez duen egunetan, kiroldegia, frontoi zaharra eta pilotalekua ere erabilgarri izango dituzte. Gainerakoan, espazio irekiak eta



Zenbait urtez *Kaskajua*-k murgiltzen zituen umeak festa giroan. L.Z.L.

Jaiei hasiera ematen lehenengoak

Udaleku irekietako neska-mutikoak izango dira, aurten ere, Ferixa Nagusiko jaiei hasiera ematen lehenengoak. Eguenerako, ekainak 30, buruhandiak daude iragarrita plazan, 12:00etarako. Sasoi batean, *Kaskajua* ere irteten zen umeekin batera plazara.

herriko parkeak erabiliko dituzte ekintzak burutzeko.

Udalekuetako gaia, 'oihana'

Udalekuek gai konkretu bat izan ohi dute oinarri urtero. "Aurtengo udalekuetan landuko den gaia *oihana* izango da. Oihane-ko animaliak ezagutzeaz gain, ekosistema horrek duen garrantziaz jabetuko gara. Gure ingurunearekin lotuta ekintzak sortuko ditugu, era berean, kirola eta bizitza osasuntsua bultzatuz. Talde bakoitzak animalia bat izango du ikur. Eta moztarroak

eginiko ditugu azken eguneko festarako", azaldu dute Elgetako hezitzaileek.

Aniztasuna, parekidetasuna, kooperazioa, bizikidetzatza, autonomia eta sormena dira landuko diren balioetako batzuk; betiere, euskara ardatz hartuta.

**ASTELEHENEAN
09:00AK ETA 10:00AK
ARTEAN ELKARTUKO
DIRA UDALEKUETAKO
NESKA-MUTIKOAK**

Abadiñoko lotuneak ere Abiatu gailurako konputatuko du

Ermukoaren trataera bera izango du 2023tik aurrera; abantailak ekarriko ditu hainbat gidari gipuzkoarrendako

Uxue Igarza ELGETA

Une honetan, Abiatu gailua duten gidari gipuzkoarrek gastu muga bat dute AP-8a eta Arabako AP-1a erabiltzeagatik: hilean 50,93 euro, gehienez. Beherapen hori aplikatzeko, jatorriak edo helmugak Gipuzkoan egon behar du. Salbuespen bat dago: Ermuko lotunea, ibilbidearen bi muturrak Bizkaian kokatu arren deskontua aplikatzen baita. Bide Azpiegituretako diputatu Aintzane Oiartzabek jakinarazi du Abadiñoko lotuneak ere Ermukoaren baldintza berak izan-



Etxeberría eta Oiartzabek, Elgetan. L.Z.L.

go dituela datorren urtetik aurrera. Horrek esan nahi du elgetar bat Elorriotik joan ahalko dela Bilbora eta gehienezko gastu horretan konputatuko duela. Gauza bera gertatuko da Kanpanzartik Bilbora joaten direnekin, Elorrioren autobidea hartuta.

Eskaera ugari Elgetan

Bidegiko zuzendari Alfredo Etxeberriarekin egindako agerraldian eman du aldaketaren berri Oiartzabek. "Kontu honekin lotuta eskari ugari jaso ditugu Elgetatik, eta abantaila izango da Gerredian A-8 autobidean sartzen direnentzat; izan ere, Bilbora joateko, elgetar bat Elorriotik joan daiteke, han autobidea hartu eta Bilborako bidea deskontuaren barruan sartuko da. Berdin Kanpanzartik Bilbora doazentzat".

Oihana Kortazarrek eta Maite Retolazak sari bana jaso dute

Oihana Kortazarrek Izaban hasi eta amaitzen den Camille Extreme lasterketa irabazi zuen domekan. Elgetarrak bigarren aldiz irabazi du lasterketa hori, eta aurretik zeukan marka bost minutu eta erdi hobetu du, gainera, aurten. Hiru ordu eta erditik behera behar izan zituen 31,6 kilometroko ibilbidea egiteko. Hain zuzen ere, 3.29.58.

Maite Retolazak, berriz, Oiharte sagardotegiaren izenean jaso du saria. Gipuzkoako Foru Aldundiaren sagardo lehiaketako urrezko domina jaso du Oiharte Markesa Euskal Jatorri izeneko sagardo ekologikoak. Ez da txapelketa honetan Retolazak jasotzen duen lehen saria.

OHARRAK

Gaztekonkisi ez

Gaztetxoendako gazteleku zerbitzutik antolatutako Gaztekonkisi lehiaketa bertan behera gelditu da. Bihar zen egitekoa, Asentzión, baina gutxi eman dute izena.

Erretiratuak

Uztailaren 6an Hondarribira egitekoa den irteerarako izen-emateak eta urteko kuotaren ordainketa egiteko aukera egongo da domekan, 11:30etik 12:30era, Ozkarbin.

Garbigune ibiltaria

Debagoieneko Mankomunitateak Salbador kalean ipiniko du garbigune ibiltaria, eguaztenean, 10:00etatik 21:00etara.



Elcoro taldeko zuzendaritza taldea: I. Egizabal, I. Galarraga, X. Mujika, M. Rodriguez, E. Ojanguren eta E. Laskurain GOIENA

Elcoro Taldea indartsu 130. urteurrenean

Eibarren sortua 1892an, 1910ean heldu zen Elgetara. Gaur egun, bi planta ditu herrian eta beste bat Mendaron. Arduradunen esanetan, inbertsioak, kudeaketa eta lantaldea dira aktibo nagusiak. Uztailaren 1ean ospatuko dute urteurrena

Bi dira Elcoro Taldearen negozio lerro nagusiak gaur egun: alde batetik, dekoletajea eta mekanizazioa; eta, bestetik, mailu pneumatikoak. Automoziorako eta sektore elektrikorako egiten dute lan, gehienbat, baina beste bost lan-lerro ere badituzte, hala nola karabinak, eskuko erremintak, ekipo-ondasunak... "Kalitatea da bilatzen duguna eta

tokiko hornitzaileekin egiten dugu lan, guztiak Europakoak", azaltzen du Elcoro Taldeko zu-

"PANDEMIA URTEAK EZ DIRA TXARRAK IZAN; IAZ, 6,5 MILIOI EUROTIK GORA FAKTURATU GENUEN"

zendari nagusi Fernando Rodriguezek.

Garai, premia eta merkatu berrietara ondo egokitzea da industriaren sektorean aurrera egiten jarraitzeko gakoa, eta asmatzen ari dira Elcoro Taldean. Herriko langile asko dituzte lantaldean, hazten jarraitzen dute, eta 130. urteurrena ospatzeko motiborik ez dute falta.

"Orain arte moduan saiatuko gara gauzak ondo egiten"

MARIAJE RODRIGUEZ ELCORO TALDEKO KUDEATZAILEA

Mariaje Rodriguez 1999an heldu zen Elcoro Taldera. Ziurtatzen du giza taldea funtsezkoa dela edozein enpresa-proiektutan, eta uste du jende oso konprometitua eta eraginkorra dutela Elcoron.

Mailu pneumatikoen sektorea hazten ari da zuenean.

Bai, eta gure asmoa da jardura adar hori indartzea. Kolonbia da gaur egun gure merkatu potentziala; asko hazi gara bertan, baina zabalkunde handiagoa lortu nahi dugu. Ekuadorko azoka batean izan gara. Orain, Portugalen, Perun eta Mauritania hedatu nahi dugu. Gure jomuga, gehienbat, Afrikako iparralde eta Hego Amerika dira.

Erronka berriei aurre egiteko inbertsioak egiten jarraitzea ezinbestekoa da.

Azken teknologiarako kontrol numerikoko tornua erosi dugu, lehen baino eraginkorragoa eta ekologikoa den garbigailu berria ere jarri dugu. Kalitate-sailerako hiru dimentsioko makina berria ekarri dugu.

Teilatuan autokontsumorako plaka fotovoltaikoak jarri ditugu, eta tailerra hozteko sistema berria dugu. Eguneratzea ezinbestekoa da. Automoziorako lan asko egiten dugu eta ebaluatu eta homologatu gara IATF 16949:2016 kalitate-araudian, ISO 9001:2015 araudia berritzeaz gain. Orain, ISO 14001 araura homologatzeko prozedurak garatzen ari gara. Garrantzitsua da aurrera egiten jarraitzeko.

Lantaldeari garrantzi handia ematen diozue.

Eskulan kualifikatua aurkitzea zaila den honetan, belaunaldi-erreleboaren, barne-sustapenaren eta prestakuntza dualaren aldeko apustua egiten dugu. Hasieratik, gainera. Gaur egungo kalitate-zuzendaria, esaterako, formakuntza dualetik heldu zen. Familia bereko belaunaldi berriak ditugu gurean. Gainera, uste dut kalitate handiko zuzendaritza-taldea dugula, eta nahiko gaztea.

Beste urte asko beteko ditu Elcorok?

Merkatu oso lehiakorra da gurea. Mekanizazioa oso hedatuta dago. Ia guztia asmatuta dago, eta gure inguruan jende askok egiten du mekanizazioa, eta soilik kudeaketa on batek ahalbidetuko digu emaitza onak izaten jarraitzea. Oso adi egon behar dugu. Zazpi lan-lerro ditugu Elcoron, ez gara bakar batean espezializatu, eta hori alde dugu. Sektoreetako batean arazoak sortzen badira, besteak ditugu, nolabait ere, konpentsatzeko. Bai, saiatuko gara orain arte moduan gauzak ondo egiten.



GOIENA



GRUPO ELCORO



Ingeniaritza



Makineria-parkea



Prozesuak

Pagatza Industrialdea 5, saila E • Elgeta • Tel.: 943 78 80 02 • 943 78 80 15
Email: elcoro@elcoro.com • www.elcoro.com

EGUENA 30**MOZORRO EGUNA**

12:00 BURUHANDIEI ongi-etorria, plazan. Udalekuak.

19:30 MOZORROEN JAITSIERA Elgetako trikitilariekin. Alkate txikia izendatzea eta txupina.

19:45 BURRUNBAZALE txaranga.

23:00 Erromeria MUGI PANDEROA taldearekin.

00:00 LARRAIN DANTZA.

EGUBAKOITZA 1**UMEEN ETA ERRETIRATUEN EGUNA**

11:00 UMEENTZAKO PUZGARRI ETA JOLASAK, Salbador kalean.

11:15 Kuadrillen HAMAIKETAKOA, Ozkarbi elkarte.

12:00 EUSKAL PENTATLOIA, plazabarrenean: Karmele Gisasola eta Iñaki Gisasola. Imanol Albizuren erakustaldia.

13:00 MEZA NAGUSIA, iazko jaiak ezkerre hilen erretiratuen alde. Xalbadorpek antolatuta.

13:45 ERRETIRATUEN ARGAZKIA.

14:00 ERRETIRATUENTZAKO BAZKARIA, Espaloian. Ondoren, bingo jolasa eta erromeria.

14:00 UMEENTZAKO BAZKARIA, plazan.

15:30 PUZGARRIAK ETA JOLASAK umeentzako.

18:30 BURUHANDIAK.

19:00 Talde-jolas parte-hartzaileak. Izena emateko, idatzi danonartian@elgeta.eus helbidera.

23:00 ZEZENSUZKOA.

JAIETAKO EGITARAUA



Mozorroen jaitsiera aurten berrito ere, jaien lehen egunean. AITOR AGIRIANO

23:15 Kontzertua, plazan. GOZATEGI.

ZAPATUA 2**HERRI EGUNA**

11:15 ESNA DEIA.

11:30 KUADRILLEN HAMAIKETAKOA, Intxorta elkarte.

12:00 JAIÖBERRIEI HARRERA, udaletxe.

13:00 BERGARAKO ERRALDOIAK ETA KILIKIAK.

14:30 HERRI BAZKARIA, plazan. Paella erraldoia eta saiheski erre.

17:00 Erromeria JAINAGA ETA NARBAIZAekin.

18:00 BURUHANDIAK.

19:30 PINTXO MORUNOAK Intxortako Lehoiak peñaren eskutik.

20:30 BURRUNBADA elektroaranga.

23:00 ZEZENSUZKOA.

DOMEKA 3**FERIXA NAGUSIA**

10:00 Herriko eta Debagoieneko BASERRITAR ETA ARTISAU AZOKA.

11:30 Athletic-Reala PARTIDA HERRIKOIAK Intxortako Lehoiak peñak antolatuta.

17:00 Haur eta gaztetxoentzako MARRAZKETA MARATOIA. Egindako marrazkiak plazan jarriko dira ikusgai.

17:00 PILOTA PARTIDUA. Sanferminetako torneoko Baikokoen finala, eta honekin batera, binakakoak.

18:00 BURUHANDIAK.

20:00 PARRILLADA, plazan.

Jakingarriak

- Koldo Izagirre elgetarraren kartela erabiliko da jai egitaraua iragartzeko. Udalak lehiaketa antolatu zuen, eta lau lanen artean herritarren botoek aukeratu dute kartela. 110 boto jaso dira; 93 botok egin dute Izagirreraren lanaren alde. 100 euroko saria jaso du.
- Hainbat herri bazkari izango dira jaietan: paella herrikoia (5 euro), jubilatuen bazkaria (12 euro), haurren bazkaria (5 euro) eta saiheski erre (3 euro). Horietarako txartelak salgai daude Karraju dendan.
- 40.000 eurotik gorako aurrekontua dute aurten jaiak. Elgetako Udaletik adierazi dute oraindik ez dutela erabat itxita, baina ohikoa baino handiagoa izango dela; azken hilabeteetako prezioen igoerak aurrekontuan eragina izan du.



Jaietako kartela. KOLDO IZAGIRRE



Aurten bai! Disfrutatu jaiak!

MAKINA ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta



2019ko Elgetako jaietako erretiratuen bazkaria Espaiolan. GOIENA

Bigarren eguna, umeei eta erretiratuei eskainia

Eguenean argituko dute zeintzuk diren herritarrek prestatuko mozerroak, baina jarraituko du festak etxeko txikienentzat eta esperientzia gehien dutenentzat. Antolatu dituzte herritar guztientzako ekintzak ere: herri kirol pentatloia eta herri jolasak

Beñat Alberdi ELGETA

Jaiak herritar guztientzako izaten dira, baina, askotan, egitaraua bereziki bideratu behar da adin guztiak kontuan hartzeko. Horrela izango da Elgetako festetako bigarren eguna, barikua: haurrengan eta erretiratuengan jarriko dute fokua; herritar guztientzako ekintzak antolatzea ahaztu gabe.

Goizean abiatuko dute eguna, 11:00etan, umeentzako puzgarri eta jolasak prestatuta. Ordu antzekoan, 11:15erako antolatuko dute kuadrillentzako hamaiketako Ozkarbi elkarteak.

Herri kirolen tradizioa

Hirugarren urtez jarraian, herri kirol pentatloia eskainiko dute Karmele eta Ioritz Gisasola

lehengusuek. Imanol Albizuk erakustaldia egingo du jarraian, eta hark lotu eta lotzen dituela esan du Karmele Gisasolak: "Gure aitarekin entrenatzen zen eta ohikoa zen gure etxera etortzea. Aspalditik ezagutzen dugu elkar".

Pentatloia izaki, bost herri kirolentako probak osatuko dituzte bata bestearen jarraian. Harria jasotzen hasiko dira. 63

kiloko bola altxatuko du Karmelek eta ehunekoa Ioritzek. Giza proba gauzatzeko, berriz, 250 dituen eta 500 dauzkana erabiliko dituzte, hurrenez hurren.

Txingak eramango dituzte ostean. 50 kiloko altxatuko du Ioritzek, eta, Karmeleren kasuan, ikusteko dago oraindik ea 25ekoak edo 35ekoak erabiliko dituen. Berez, federazioko lehietan 25ekoak eraman behar dituzte, baina 35era igo dute azken pentatloietan. Korrika egitea da azkeneko proba.

Federazioko lehietako neurriak erabiliko dituzte, bi lehengusuek lehiatzen dira eta.

Lehenengo aldia izango da Elgetan pentatloia egiten dutena. "Gainera, pentatloia egiten dugu plazetan, baina ez horrenbeste".

Erretiratuen egitaraua

Jaietatik jaietara hil direnen omenezko meza prestatu du, 13:00etarako, Xalbadorpe erretiratuen elkarteak. Ohitura dute, horren ostean, mezetara joan diren guztiak argazkirako elkartzeko.

Tradizioei jarraiki, erretiratuentzako bazkaria egongo da, 14:00etan, Espaiolan. Aurtengo menua Lola jatetxeak kozinatuko duela argitu du Jose Antonio Ojanguren, Xalbadorpe elkarteko zuzendariak. Hasteko, urdaiazpikoa, zainzuriak eta entsalada errusiarra izango dituzte, azkenburuko batekin ondo bukatuta.

Aurreko urteetan 100 pertsona inguru bildu izan direla argitu du Ojanguren, baina aurtengoa oraindik ez dagoela kopurua jakiterik: "Izena emateko tokia aldatu egin dute eta horrek nahasmena sortu du.

Herri txikia da; orduan, bideratu daiteke ez dakiena".

Bingoa jokatuko dute bazkaldu eta gero Espaiolan, sariekin, noski.

Jubilatuen ordu berean izango da haurren bazkaria. Aurreko urteetan 35-40 haurrek bazkaldu izan dute eta aurtengorako antzeko zenbakia espero dutela gaineratu du Ane Bilbaok, Kultura zinegotziak. Makarroiak eta oilasko errea izango dituzte menuan, eta, urtero Elgetako jatetxe ezberdin bati tokatzen zaionez gero prestatzea, aurtengoa Bola Toki tabernari egokitu zaio.

Berririo izango dute puzgarri eta jolasekin dibertitzeko aukera bazkari ostean, eta, arratsaldeko sei eta erdietan, buruhandien aurretik egin beharko dute korrika.

Talde-jolas parte-hartzaileak

Zazpietarako, jolasak antolatu dituzte. Gutxienean adina 15-16 urtean kokatu dute; gehienekorik ez dago, ordea. Parte hartzeko izena ematen duen jende kopuruaren zehaztuko dute zenbatekoak.

Aurreko urteetan, ohiko jolasak zein herri kirolak izan dira aukeratutako probak. Oraingoz, ez dute zehaztu aukeraketa, baina ohikoetara joko dute; adibidez, mukizapiaren jokoa.

Eguna bukatzeko, 23:00etan, zezensuzkoak egingo du ikuskizuna, eta 23:15ean, Gozategi musika taldeak joko du kontzertua, herriko plazan.

HERRI KIROLN PENTATLOIA ESKAINIKO DUTE KARMELE ETA IORITZ GISASOLAK

ILEA
Ileapaindegia

Ondo ibili jaietan!

Andra Mari plaza 2 • Tel.: 943 76 81 97 ELGETA
f ilea peluqueria/ileapaindegia

LEGERITY
BEAUTY HAIR COLLECTION

Zugandik gertu! **Geolokalizatutako produktuak Elgetan**

LEGERITY
BEAUTY HAIR CREAM

LEGERITY
BEAUTY HAIR CREAM

LEGERITY
BEAUTY HAIR CREAM

LEGERITY
BEAUTY HAIR CREAM

LEGERITY
BEAUTY HAIR CREAM

Berrikuntzekin dator zapatuko Herri Eguna

Herri Egunean aldaketak izango dira aurten, ez baita soka dantzarik, umeen dantza ikuskizunik eta zapatu gaueko kontzerturik egongo; halaber, Bergarako erraldoiak ibiliko dira kaleetan eta emanaldiaren ordeztu elektrotzaranga ibiliko da kalez kale

Idoia Aranbarri Arzuaga ELGETA

Normaltasunarekin batera itzuliko da Ferixa Nagusiko jaietako Herri Eguna ere. Beti bezala, Arrasateko gaiteroen esna deiarrekin hasiko da eguna, 11:15ean.

Jaioberriei ongi etorria

Festen parte da elgetar jaioberriei ongi etorria egitea. Joan den urteko jaietatik hona lau ume jaio dira, eta horiei zapia jantziko diete, eta oparia eman. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, eguerdiko hamabietan.

Elgetako jarduneko alkate Ane Bilbaok azaldu duenez, normalean, gutxi gorabehera, herrian zazpi edo zortzi haur jaiotzen



Paella erraldoia, beganoa eta saiheski erreteko aukera egongo da. GOIENA

dira, baina "azken urteetan hamabostera" ere iritsi dira. Leku guztietan pasa den bezala, pandemiaren eraginez jaitsi egin da jaiotza-tasa. Errealitatearen parte da".

Bergarako erraldoiak Elgetan

Estreinakoz izango dira Bergarako erraldoiak aurten. Bilbaok aitortu duenez, aurretik ere bazuten Bergarako erraldoiak ekartzeko asmoa: "Begira ibili ginen eta 2020rako zen proposamen hori. Lotuta geneukan, baina, bertan behera geratu zenez, orain etorriko dira".

Bergarako erraldoien konparttsak kide da Ibon Unamuno, eta hark aurreratu du "haurrendako erraldoiek nahiz handiek" eta kiliekie animatuko dutela zapatu goiza, "dena girotu" nahi baitute, haurretatik hasi eta nagusietara arte.

Aurten ez da umeen dantzarik eta soka dantzarik izango, jaiak egingo zirela baieztatu zenean eta antolaketa lanak hasterako "berandu" zelako entseguen asteko. Dantzen ordu bueltan hartuko dituzte erraldoiek Elgetako kaleak.

Herri bazkarirako prest

Paella erraldoia eta saiheski erreteko aukera izango du aurrez txartela erosten duen orok. Halaber, paella beganoa ere prestatuko dute. Bilbaok dioenez, pandemia aurreko jende kopuru antzerakoa biltzea aurreikusten dute bazkarian, bostehun edo seihun pertsona inguru. Hala ere, txartelak "erritmo onean" saltzen ari direla gaineratu badu ere, aurreko urteetan ez denez egin ez dakite zehazki. Jainagak eta Narbairak girotuko dute bazkari ostea erromeriarekin.

Elektrotzaranga gauerdira arte

Zapatu gauean ez da kontzerturik egongo, eta horren ordeztu, Burrumba elektrotzaranga ibiliko da kaleetan barrena gauerdira arte. Bilbaoren hitzetan, "2019ko jaien balorazioan atera zen zapatuko kontzertuan plaza hutsik egoten dela". Horregatik, beste ekintzaren bat egitea baloratu dute, eta "herritar batek proposatu zuen elektrotzaranga. Ontzat eman da, eta aukera horrekin egingo dugu saiakera aurten".



**AURTEN BAI!
ONDO IBILI
JAIETAN!**



Norica, iraultza karabinen merkatuan

105 urte betetzen ditu aurten karabinak ekoizten dituen enpresak. Eibarren sortua, Fernando Rodriguezen eskutik heldu zen Elgetara, 2011n. Bi pabiloi hartzen ditu gaur egun Pagatza industrialdean. Hazkunde prozesuan dela azaldu dute kudeatzaileek

Erreferentzia markak da Norica karabinen merkatuan, eta mundu mailako hedapena du. Hazkunde prozesuan egoteaz gainera, aurten berri dute finantza eta industria arloetako zuzendaritza. Produzioari dagokionez, %85 atzerrira saltzen dute –bost kontinenteetako 60 herrialdetara– eta gainerako %15a penintsulako merkatutako da.

Batez ere, bi karabina mota egiten dituzte Norican: kiebra-karabina deiturikoa –betiko karabina– eta duela urte batzuk garatutako PCP karabinak. "Aire-biltegi bat dute, askoz indartsuagoak dira, eta irismen eremu handiagoa dute", azaltzen du Noricako kudeatzaile Asun Rodriguezek.

Noricaren egungo produktu izarra, ordea, Omnia ZRS karabina da. Kiebra-karabinari atzera-egitea neutralizatzeko ZRS izeneko sistema berritzailea gehitu diote. "Oso berritzailea da; goi-mailako teknologia du eta iraultza da karabinen munduan", ziurtatzen du Fernando Rodriguezek.

Gertuko hornitzaileekin egiten dute lan Elgetako enpresan. "Mekanizazioa piezak talde berekoa den Elcoro Decoletaje enpresan egiten dizkigute. Eguerra Zarauzkoa da, mikrofusioa



Elgetako tiro-eremuan Omnia ZRS karabina berriaren definizioa aztertzen. GOIENA

Eibarko Alfakoa eta zuntza Nafarroakoa", zehaztu du enpresa-gizonak.

Gaur egun, hamahiru langile ditu enpresak, gehien-gehienak gazteak. "Lantaldea ere berrituz joan da. Langile beterano asko genituen orain gutxira arte; oso

BI PABILOI HARTZEN DITU NORICAK ELGETAN ETA HAMAHIRU LANGILE DITU GAUR EGUN

langile onak, baina erretiroa hartzeko garaia heldu zaie eta langile gazteak ditugu orain".

Proba-eremua Elgetan

Berrantolaketa prozesu sakona egin berri dute Norican. Besteak beste, tiro-eremu berria egin dute, eta banan-banan testatzen dituzten Elgetan ekoiztutako karabina guztiak. "Kirol esparrurako erabiltzen dira karabinak gure inguru honetan. Herrialdearen arabera ehizarako ere izan daitezke; adibidez, Perun eta Txilen".

"Karabina berria arrakasta komertzial handia izan daiteke"

ASUN ETA FERNANDO RODRIGUEZ NORICAKO ZUZENDARITZA

Asun Rodriguezek laster beteko du urtea Noricako zuzendari karguan. Fernando Rodriguezendako garrantzitsua zen ondo antolatutako belaunaldi-erleboia egitea. Kudeaketa berrantolaketa lan handia egin dute azken urtean.

Karabina berriak harrera oso ona izan du.

Asun Rodriguez (A.R.): Gure merkatu nagusia ohiko karabina da oraindik ere, baina egia da Norica Omnia karabinak harrera oso ona izan duela, batez ere, egin ditugun nazioarteko bi azoketan –AEBetako Las Vegas Shot Show eta Alemaniako Nuremberg IWA–. Valladolideko

Unibertsitateko ingeniari batekin landu dugu atzera-egitea saihesteko sistema berria, eta patentatuta dago AEBetan, Kanadan, Txinan, Turkian eta Europan.

Ze berezitasun dituzte Norica karabinek?

Fernando Rodriguez (F.R.):

Kalitatezko karabinak dira. Gaur egungo merkatuan hori da eskulan askoz ere merkeagoa duten herrialdeei aurre egiteko modu bakarra. Bertako hornitzaileekin egiten dugu lan, eta, prozesu batzuk erdi-automatizatuta badaude ere, muntatze-prozesua eskuzkoa da %100.

Pandemiak zer-nolako eragina izan du?


A. R.: Pandemia urteetako emaitzak aurreko urteetakoak baino hobeak izan dira. Jendeak bilatu du entretenituta egiteko modua, eta karabinekin lotutako tiro modalitate asko daude. Katalunian txapelketak egiten dituzte, Bizkaian ere hasi dira zerbitzetan. Gustatuko litzaiguke Gipuzkoan ere kirol modalitate horiek garapena izatea.

Noricak, beraz, etorkizun oparoa du.

F. R.: Karabinen merkatuak urte asko ditu, eta garapen handia izan du. Lortzen baduzu merkatu horretarako produktu berritzaile bat, iraultza da. Aurkikuntza berria arrakasta komertzial handia izan daiteke guretzat. Zalantzarik gabe, inbertsio berriak egitea eskatuko du; langile gehiago eta espazio handiagoa ere bai, seguruenik... baina itxaropentsu gaude, bai.

Belaunaldi-erleboia ere gauzatzen doa.

F. R.: Ondo antolatutako belaunaldi-erleboia izan da. Asun ingeniaria da. Bikain zihoan enpresa bateko kudeatzailea izan da aurretik. Aipatuko nituzke, baita ere, kudeaketaren berrantolaketa, marka indartsu baten garrantzia eta mundu mailako patentea.



GOIENA

NORICA®

105 Uste

1917tik bide luzea eginez

Beti berrikuntzarekin

Elgetatik mundura

www.noricaairguns.com

Pagatza Ind. 2-D - Elgeta, Gipuzkoa

www.noricaairguns.com/norica-omnia-201

Baserritarrek, artisauek eta abereek hartuko dituzte kaleak domekan

Idiak izango dira Ferixa Nagusiko protagonista eta 34 idi pare egotea aurreikusten dute; txerriak dira aurtengo berritasun, baina ahuntzak eta ardiak ere egongo dira



2019an egin zen azkenengoz azoka jaietan. GOIENA

Idoia Aranbarri Arzuaga ELGETA

Dagoeneko hiru urte igaro dira azkenengo feria egin zenetik. Dena den, uztailaren 3an, domekan, itzuliko da herriko jai nagusiei izena ematen dien Ferixa Nagusia. Ganadu azoka berezia da Elgetakoa, bereziki bertan izaten dienez idiegatik.

Ohi bezala, bi gunetan banatuko da azoka: alde batetik, plazan eta inguruetan artisau eta saltzaileen postuak jarriko dituzte; bestetik, Berraondoko aparkalekuan ganadu feria kokatuko da.

Idiak nagusi

Sebastian Arantzabal Baserri-tarren batzordeko zinegotziak gaineratu du prestaketa lanetan dabilzala oraindik. Postuei dagokienez, berrogeita hamar inguru izatea aurreikusten dute, berrogeitik gora baieztatuta dituzte: "Denetarik produktuak egongo dira salgai, Elgetako baserritarrenak eta inguruko herrietakoenak".

Azokako protagonistak izango dira animaliak; hauek ere, Elgetakoak nahiz inguruko herrietakoak. Idiak dira protagonista,

baina kopurua ere zehaztu gabe daukate. Aurten ere, Agustin Beretxinagak hartu du azokako ganaduaren ardura, eta hauxe aurreratu du: "Foru Aldundira hogeita hamalau idi pareren zerrenda bidali dugu, baina ez dakigu denak onartuko dizkiguten aedo ez". Hala ere, ehun bat buru handi, behi, egotea espero dute.

Behorak, ahuntzak eta ardiak ere izango dira Ferixa Nagusian. Alabaina, txerriak izango dira berritasun, "herriko gazteek jarri baitituzte".

Azoken beherakada

Pandemia osteko lehenengo azoka izango da aurtengoa, eta, antolatzaileek azaldu dutenez, herriko hainbat baserritarrek ez dute hitzordua galduko: "Barrerenengua, Zalbide, Arantzeta, Lapurdi eta Larrabil baserriak egongo dira domekan, besteak beste".

Halaber, sumatu dute beste urteetan baino jende gutxiagok eman duela izena. Batzuek utzi egingo zutela pentsatzen du zinegotziak, lehen beti etortzen ziren batzuek ez baitute deitu.

Artisauen kasuan, eskari handiagoa egon dela dio.

Animaliei egiten zaizkien azterketekin ere arazoak izan dituzte; hori dela eta, feria asko murriztuko direla dio ganaduarren arduradunak.

Beretxinagaren hitzetan, "pandemia aurretik zetorren gain-behera hau". Hala ere, "lehen ere nahiko jende mugitzen zuen feriak. Bizkaitik eta Arabatik etortzen ziren. Mundu honek jendea mugitzen du, eta nik uste dut eguraldi ona badago jendea etorriko dela".

Elena Elkorok zorionik beroenak opa dikizue elgetar guztioi eta bertaratzen zareten guztioi!



CIE Recycle

**JAI ZORIONTSUAK
ELGETAR GUZTIO!**

Pagatza Industrialdea 3B
ELGETA
Tel.: 943 78 80 00



Peio Bilbao Elgetako ferian hartuko du parte lehen aldiz. J.J.I.

"Gazteak gara ferien etorkizuna"

Duela hiru urte erosi zuen baserria Peio Bilbao 29 urteko elgetarrak. Duela gutxi, *Gaztenek* programan sartu da, eta joan den urtean jarri zuen aurreneko txerri-lotea baserrian. Domekako ganadu azokan izango da aurreneko aldiz, eta, aitortu duenez, halako ekimen batean parte hartzen duen lehen aldia da. Abereak eramango ditu, dozena bat txerri eta bederatzina ahuntz eta ardirekin joango da.

Ferien egoeraz galdetuta, etorkizuna gazteak direla dio: "Kontua dagoen bezala eta prezioak dauden bezala, jendea ez dago animatuta ferietarako. Azoken egoera txarrera doa, baina gazteok izena eman behar dugu, eta animaliak plazara eramaten hasi". Kaleko jendeari euren animaliak ezagutzeko aukera eman behar zaiela irizten dio, eta, era berean, herritarrei informazioa eman.

San Fermin torneoko lau eta erdiko finalerdia domekan

Jaialdia 17:00etan hasiko da, eta, Baikoren adarreko finalerdiaz gain, binakako partida ere jokatuko da

Idoia Aranbarri Arzuaga ELGETA

Baiko enpresaren bi pilota partida hartuko ditu Elgetako Udal Pilotalekuak domekan: batetik, San Fermin torneoko Baikoren adarreko lau eta erdiko finalerdia; eta, bestetik, binakako partida. Jaialdia telebistaz jarraitu ahal izango dela aurreratu du Ibai Etxaniz Kirol zinegotziak.

Unai Laso Elgetan

Gaur arratsaldean Irunen jokatuko dute Laso eta Artolak torneoko final-laurden bat eta irabazlea Elgetan jokatuko den finalerdietarako sailkatuko da. Hark Jaka, Peña II.a edo Urrutikoetxea izango du aurkari.

Binaka, berriz, oraindik ez dago bikoterik itxita, torneoko final-laurdenetako galtzaileak arituko baitira aurrelari lanetan, Imaz eta Mariezkurrena II.a lagun dituztela. Hortaz, bi par-



Unai Laso Elgetan jokatuko du. EITB

tida horietako batean jantziko da zuriz buruz buruko txapeldun Unai Laso.

Sarrerak Baikoren webgunean eta Bolatoki jatetxean eskura daitezke. Berrehun sarrera jarri ziren salgai Bolatokin, eta atzo, ehundik gora salduta zeuden.

Athletic-Reala lehiak, Intxortako Lehoiak peñak antolatuta

Intxortako Lehoiak peñak festetan antolatzen dituen Athletic-Reala norgehiagoka herrikoiak jokatuko dituzte domeka goizean, 11:30ean hasita. Lehen partida neska-mutikoen jokatuko dute, eta ondoren, emakumezkoen eta gizonezkoen txanda izango da. Antolatzaileek aurreratu dutenez, hogei minutuko bi zati izango ditu partida bakoitzak.

Aste honetan zabaldu dute izen-ematea, eta ohiko tabernetan egin ahal izango da: Haizea tabernan eta Bolatoki eta Lola jatetxeetan. Domekara arte eman ahal izango da izena, "azkenean, parte hartzeko ekintza baita". Halaber, herritarrek parte hartzea animatu ditu peñak.

Bestalde, aurreratu dute aurten ez dutela ferriako produktuekin osatutako orgaren zozketarik egingo: "Sentitzen dugu, baina hurrengo urtean izan beharko du". Dena den, zapatuan, txi-txi-burruntziak emango dituzte, "doan edo borondatearen truke".



688 61 56 00

eguzkitzaetxea@gmail.com

<http://www.eguzkitzaetxea.eus>



**Aurten bai!
Ondo ibili
jaietan!**




MEK Lema

Doitasunezko torneaketa

Aurten bai! Gora Elgetako jaiak!

Pagatza industrialdea 7B • Elgeta • 943 78 80 23 • www.lemasa.com • www.mekgroup.eu





Xabier Igartua eta Izaro Elorza, atariaren aurkezpena egin ostean. O.E.

Herriko geografia, 'GeoOñati' atarian sartuta

Oñatiko mugen barruko geografiari lotutako informazioa jasotzen du 'GeoOñati' atariak. Urte ezberdinen arteko argazkien konparaketa egin daiteke bertan, adibidez, baina baita uholde arriskua herriko zein gunetan dagoen jakin ere

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

GeoOñati izeneko geotaria aurkeztu du asteen Oñatiko Udalak. GeoEuskadi plataformak ematen dituen aukerak baliatuz, Oñatiko mugetara ekarri dute aplikazioa, eta Oñatiri buruzko hainbat informazio ikusi eta kontsultatu daiteke bertan. Esaterako, lehengo-1956koa, adibidez- eta oraingo-2021- Oñati ikusi eta konpara daitezke, airetik ateratako argazkien, ortoargazkien, bitartez. "Herritarrendako interesgarria eta erabilgarria" dela irudituta, udal webgunetik jarri diote sarrera zuzena.

Ortoargazkiak

Argazki bidez egindako konparaketaz gain, beste aukera batzuk ere ematen ditu erreminta horrek. "Adibidez, puntu batetik bestera marra bat bota eta tarte horren profila ikusi daiteke, altuerak konparatu, azalera neurtu eta distantziak neurtu", dio Xabier Igartua zinegotziak. Distantziak neurtzeko, adibidez,

nahikoa da nondik norakoa adieraztea marra baten bitartez. Plazaren gainean hori eginez gero, kontzejupetik pareko arkupe-taraino 68 metro daudela ikus daiteke pantailan bertan. Berdin gertatzen da lursail baten azalera zein den jakin gura izanez gero: espazio hori aukeratu eta bertan agertzen da duen azalera, metro karratutan.

Koloreak erabilia

Mota askotariko informazioa dago, sailkatuta eta antolatuta. Herriko farmaziak non dauden jakin daiteke, baita herriko errekek zein luzera eta izen duten. Bestalde, uholde arriskua duten herriko zonak zeintzuk diren ere ikus daiteke,

GEOEUSKADI PLATAFORMAREN AUKERAK BALIATUTA EGOKITU DUTE; UDAL WEBGUNEAN DAGO

koloreak erabilia arriskuen maila kontuan hartuta. Eta berdin, herriko basoen inguruko kontsulta egin gura izanez gero ere: pinuak landatuta dauden sailek kolore bat dute, pagadiak beste bat eta haritzak dauden tokiek beste bat.

Lehengoaren osagarri

Geoinformazio espazialaren lanaketa egiten hasita zeuden Udalean. Udal mailako lanerako erabiltzen dutena dago, batetik; esaterako, kaleko farola batean matxura badago, informazio horri esker azkar jakin ahal dute zein sare-tara dagoen konektatuta argi puntu hori. Bestetik, herriko mapa interaktiboa ere eskuragai du jarrita webgunean herritarrek erabili ahal izateko, eta horren osagarri izango da *GeoOñati* erreminta hau. Udal webgunean sartuta, *GeoOñati* izenarekin ageri da, *Udala* atalaren barruan. Dagoeneko erabilgarri dago eta kontsulta daiteke jasotzen duen informazioa.

Kultura Departamentua hasi da herriko jai nagusiak antolatzen

Hainbat deialdi zabalik daude dagoeneko eta egitaraua prestatzeko bilera 29an egingo du herritarrekin

O.E.G. OÑATI

Irailaren bukaeran eta urriaren hasieran ospatuko diren herriko jai nagusiak prestatzen hasi da Udaleko Kultura Departamentua. Horren adibide dira dagoeneko zabalik dauden deialdiak: Herri Eguneko taberna kudeatzeko, artisau azokan parte hartzeko, herri bazkaria zerbitzatzeko eta egitarauaren azal lehiaketarako.

Herri Eguneko talo taberna kudeatzeko taldeak horniketaren eta ustiaketaren ardura ere izango du, eta, era berean, lortutako

irabaziak taldearendako izango dira. Herri bazkarian, berriz, mahaia jarri eta bazkaria zerbitzatu beharko du interesa agertzen duen taldeak; 40 bat laguneko taldea beharko da. Baterako zein besterako interesa duenak kultura etxean eman dezake izena. Kartel lehiaketarako lanak ere hantxe entregatu behar dira eta artisau azokarako, berriz, udal webgunean bete behar da orria.

Bestalde, eguaztenean da bigarrena jaietako egitaraua osatzeko. 18:30ean, kultura etxean.

Jubilatuen Eguna ospatuko dute domeka honetan

Mezarekin hasiko dute euren eguna domekan jubilatuek. 12:00etan Mikel Goiangeruaren parrokiaren izango da hori, eta meza ostean omenduko dituzte aurtengo Jubilatuen Eguneko Asun Arzuaga eta Jabier Alzelai omenduak, aldarean. Bertan, txapela, zapia eta erlojua jasoko dituzte biek, eta horren ostean, bertsoak abestuko dizkiete eta

Oñatz dantza taldekoen dantzak ere izango dituzte.

Ondoren, jatekoa eta edatekoa izango dute klaustroan eta bertan egingo dituzte sarien zozketak. Kiroldagian bazkaririk ez dute egingo aurtengo, eta mezara joan nahi ez dutenek baina luntxera bai, klaustroko atzeko atetik sartu ahal izango dira 13:00 inguruan.

Aurretik, gaur, *De vecinos como estos, libranos señor* antzerkia eskainiko dute antzerki taldekoek, 17:30ean, Santa Ana aretoan.



NIRE USTEZ

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Publiko-pribatu

Azkenengo bi urte hauetan, koronabirusak bete ditu prentsako orrialde eta ikus-entzunezko hedabideen ordu gehienak. Une honetan, denok txundituta, hitzik gabe, utzi gaituen Ukrainako Errusiaren sarraski basati eta krudelak hartu dio lekua. Europan ez da honelako egoera larrikeria ezagutu Bigarren Mundu Gerra bukatu zenetik. Baina, bitartean, egoera larri hauek ez dituzte baztertu beste gai interesgarri batzuk. Hauen artean, publikoaren aldeko iritzia sarri agertzen dira euskal hedabideetan. Batzuek, gainera, denak publikoa izan behar duela, hau da, sistema komunista defenditzen dute. Sistema hau ezarri zen tokietan, ez zaie ondo joan. Dena agintarien esku utzteak diktadurak sortu ditu, eta ekonomia ere ez du ondo funtzionatu. Funtzionarioak ugaritza darama, eta asko dira gizarteak funtzionarioak baino gehiago enpresa sortzaileak behar dituela pentsatzen dutenak. Ideia hau defenditzen zuen, besteak beste, Arturo Uslar Pietri venezuelar politikoa ospetsuak. Gizartearen, publiko eta pribatuen arteko konplexutasunak eztabaidarako gai garrantzitsu izaten jarraituko du.

Aparkalekuen erabilera egokia eskatu du Trautik

Mugikortasun arazoen simulazio ibilbideak, itsuen makilak eta gorren egoerak erakutsiko ditu Trautik zapatu goizean plazan, 10. urteurrena ospakizunarekin batera. Aparkaleku urdinekiko errespetua eskatzeko sentsibilizazio kanpaina ere bai

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Trauti elkarteak sentsibilizazio eguna ospatuko du bihar, zapatua, goizean, eta mugikortasun arazoen simulazio ibilbideak egingo dituzte, esaterako, plazan: aulki gurpildunak, itsuen makilak eta gorrieriaren simulazioa. Baita informazioa eskaini eta Joellette aulkia erabilera erakutsi ere. 11:00etan hasita egingo dituzte horiek. Aurretik, baina, 10:30ean hasita, sentsibilizazio kanpaina konkretua egingo dute plaza inguruko aparkalekuetan. Horien erabilera modu egokian egitea eskatu gura du-eta, bereziki, elkarteak.

Txandakako sistema aztertzen

Mugikortasun arazoak dituztenendako aparkalekuak errespetatzea eskatu gura du, batetik, Trautik. "Askok uzten dute euren ibilgailua urdinez margotutako aparkalekuetan, egin behar duten zeregina berehala egingo duten aitzakian. Baina hori ez

dago ondo. Kalte handia sor dakiok aparkaleku horren beharra duenari; adibidez, etxera joateko asmoa izan eta ezin heldu, aparkalekua okupatuta dagoelako", dio Trautiko kide Mikel Etxezarretak. Arazoak sortzen dituen beste ohiko adibide bat ere gaineratu du Etxezarretak: "Aparkaleku horiek zabalagoak dira, espazioa behar delako, adibidez, aulki gurpilduna sartzeko eta erabiltzailea bera ibilgailura ondo sartzeko. Eta askotan, beste ibilgailu bat egoten da ondo-ondoan aparkatuta, beharrezkoa den distantzia mantendu barik". Eta horrelako egoerak aipatzen dituzten eskuorriak banatuko dituzte, hain zuzen ere, goizean egingo dute

**HAMAR URTE
HAUETAN LAN HANDIA
EGIN DU TRAUTI
ELKARTEAK
IRISGARITASUNEAN**

sentsibilizazio kanpaina horretan. Bestetik, aparkaleku horiek txartelaren jabearen erabilerrako direla gogorarazi gura izan du Etxezarretak: "Gertatzen da titularrak barik beste norbaitek erabiltzea aparkatzeko txartela, eta hori ere ez dago ondo".

Aparkalekuei lotuta, Etxezarretak gaineratu du aztertzen ari direla herrigunean dauden aparkaleku urdinen txandakako erabilera nola egin, "ez daitezen egun osoan ibilgailu berdinarekin okupatuta egon".

10 urte Trautik

Elkartearen 10. urteurrena ospatuko du bihar Trautik. Sentsibilizazioa zabaltzeaz gain, hasieratik hona irisgarritasunean lan handia egin dutela dio Etxezarretak: "Arazo puntualen berri ematen diogu Udalari, baina proiektu handien barruan sartu du Udalak irisgarritasuna, eta hori oso ona da. Oñati irisgarriagoa da orain, eta Trautiren esker ere bada".



Musika eskolako ikasturte amaierako kontzertua, eguazten iluntzean. M.A.

Musikarekin hasi da Klean, Udalaren udako kultur egitaraua

Kaleko hainbat espaziotan egingo dira ekitaldiak; gehienak, uztailleko eguazten iluntzeetan

O.E.G. OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek eguaztenean egingo dako ikasturte amaierako kontzertuak eman dio hasiera Udalak udarako prestatu duen kultura eskaintzari. Musika eta antzerkia jasotzen ditu aurtengo Klean egitarauak, eta, ohiturak agintzen duen moduan, klean dauden herriko hainbat espaziotan izango dira aurtengo emanaldiak ere.

Eguaztenetan, 19:00etan

Musika ikasleena, esaterako, Lazarraga lorategian ziren egitekoak, baina berdura plazan egin zuten, azkenean, iragarrita zeuden ekaitz arriskuengatik. Banda gazteak, akordeoi taldeak eta triki-pandero taldeak euren saioa eskaini zuten, etxekoan aurrean, eta haiek aukeratutako koreografiarekin eman zioten amaiera saioari.

Bidaide eta Omago taldeek ere Lazarragan egingo dituzte euren kontzertuak uztailaren 13an eta 27an, hurrenez hurren. Zuzeneko musika entzuteko beste aukera bat Alarma Morea izango da; San Lorentzoko ermitaren aurrean joko du, uztailaren 20an. Eta leian, berriz, Ganbara eta Hots abesbatzek, Santa Lutzian. *Basoaren hotsa* du izena emanaldiak, eta berezia izango da. Ordua ere, ezohikoa: 22:00etan; beste guztiak 19:00etan izango dira.

Kale antzerkia

Aurten ere irailaren lehen asteburuko ekintzak itxiko du udako egitaraua. Trapu Zaharrak taldea etorriko da orduan, Errementeri plazara, *Turistreatzen* lanarekin. San Fermin bezperan, berriz, *Frontona* antzezlan eskainiko dute plazako pilotalekuan.



2018an egin zen Trauti egunean plazan jarri zituzten ariketak egiten hainbat ume. GOIENA



AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Txapelketan Burdinolako elastikoa jantziko duten jokalarietako batzuk, Labegaraietan, aste barruan. GOIENA

Espainiako talde onenak Bergaran, hiru egunez

LINEAKO HOCKEYA Burdinola Irristaketa taldeak antolatuta, emakumezkoen Espainiako Txapelketa jokatu dute gaurtik hasi eta domekara bitartean. Sarrera doanekoa izango da, eta, guztira, zortzi talde izango dira Labegaraietan

Xabier Urtzelai BERGARA

Emakumezkoen Espainiako Lineako Hockey Txapelketa jokatu dute gaurtik hasi eta domekara bitartean. Eta Labegaraietako kantxan izango diren taldeak dira, Burdinolakoez gain, Valladolid, Tres Cantos, ASME Tucans, Skulls Almasera, Aranda de Duero, Madrid eta Vila-real. Hala, 20 urtez azpiko jokalariek

izango dira kantxan. "Adin askotariko gazteekin osatutako taldeak izaten dira. Gure taldean nagusienak 18 urte ditu, eta 17 urte dituztenak, 16koak... ere baditugu. Beste sei jokalarik 14 urte dituzte. Hala, adin tarte horren barruan egia da gurea talde gaztea dela, eta oso maila oneko taldeak izango ditugu aurrean. Baina halako txapel-

keta bat gurera ekartzea oso garrantzitsua da talde moduan hazten joateko", adierazi du Agustín Ojanguren.

Partiduz betetako asteburua

Zortzi talde horiek, guztira, hogeitazko partidua jokatu dute. Gaur, egubakoitza, 09:00etan hasiko dute torneoaren Burdinolaren eta Valladoliden arteko

"Lurzoru berria jartzea estrategikoa da taldearendako"

AGUSTIN OJANGUREN BURDINOLAKO PRESIDENTEA

Eguazten iluntzean bi ordu pasatxoan egon ziren Burdinola irristaketa taldeko zenbait lagun lurzoru berria Labegaraietako kantxan jartzen. Asteburuan jokatu dute Espainiako Txapelketa antolatzeke ezinbestekoa izan da, eta ez horretarako bakarrik, baita klubak beste aurrerapauso bat eman dezan ere.


Asteburuan txapelketa polita egitetik zatozte Burdinolakoak.

Bai, halaxe da. Infantil mailako talde mistoa Tres Cantosen (Madrid) egon da asteburuan, Espainiako Txapelketan, eta Estatuko talde onenen kontra indarrak neurtu dituzte. Pozik geratu gara

egindako lanarekin, eta talde horretako bost neska asteburuan Bergaran izango dira jokatzeko.

Inbertsio polita egin duzue txapelketa Bergara ekarri ahal izateko.

Bai, halaxe da. Baina garbi geneukan lurzoru berria erostea bai ala bai egin beharreko



GOIENA

inbertsioa zela. 43.600 euro gastatu ditugu horretan, eta aldea ikaragarria da. Batetik, Espainiako Txapelketa moduko kirol hitzordu bat antolatzeke derrigor izan behar da lurzoru homologatu bat, eta erosi dugun lurzoruarekin lortzen dugu hori. Bestalde, Euskadiko Txapelketako jardunaldietan ez da ezinbestekoa, baina lurzoru hau baldin badugu askoz ere hobeto jokatu dugu.

Halako aldea dago?

Ikaragarriko aldea dago. Labegaraietan, besteak beste, eskubaloioek ere jokatzeko dute, eta horiek erretxina erabiltzen dute. Hala, egurrezko zoruan erretxina geratzen da, eta gero, patinetan eta pastillen abiaduran igarri egiten da. Erosi dugun zorua plastikozkoa da, eta abiaduran dago aldea. Burdinola klub moduan hazten joan dadin derrigor egin beharreko inbertsioa zen, estrategikoa da guretako.

partidua izango da lehena-. Eta arratsaldetan 16:30ean jokatu dute lehenengo partidua eta 20:15ean azkena. Zapatuko eta domekako jardunaldiek ordutegi berbera izango dute. Domekan, finala 20:15ean izango da.

PARTIDUAK GOIZ ETA ARRATSALDE JOKATUKO DITUZTE; DOMEKAN 20:15EAN IZANGO DA FINALA

Espainiakora doaz Maialen Axpe eta Malen Ruiz de Azua

ATLETISMOA Joan den astean Iruñean lortutako 4,45eko markak faboritoen taldean sartu du Valentziako atleta

X.U. ARRASATE

Ekainaren 24tik 26ra bitartean jokatu dute Nerjan (Malaga) Espainiako Txapelketa absolutua, eta dominengatik borrokan izango dira bi arrasatear, Malen Ruiz de Azua (Valentzia Sport)

eta Maialen Axpe (Atletico San Sebastian). Biak ala biak, bestela ere, txapelketa irabazteko faboritoen taldean daude, baina joan den eguaztenean Iruñean egin zuten Jose Luis Hernandez txapelketan 4,45eko salto egin-

da Ruiz de Azuak kolpea eman zuen mahai gainean -urteko marka onena da-. Izan ere, Valentzia Sport taldeko atleta, orain arte, entrenamenduetako lan-saio onak txapelketetara eraman ezinda zebilen.

Maialen Axperi, berriz, iaz Getafen (4,37) irabazitako urrezko domina defendatzea dagokio; aurten ez du marka pertsonaletik gertu ibiltzeko aukerarik izan -4,20 egin du-, baina Bedoñakoa da aire zabaleko azken txapelduna.



Ruiz de Azua, podiumeko lehen koskan, joan den astean Ordizian. J.P.

Saskibaloia kalean Oñatin eta Bergaran

HIRUKO SASKIBALOIA Oñatiarrek lehenengoz egingo dute bihar, zapatua, txapelketa, Olakua auzoko kirolgunean. Bergaran San Martin plazan izango dira partiduak eta eguraldi txarra egiten badu pilotalekuan jarriko dituzte saskiak

Xabier Urtelai ARRASATE

Ekaineko ohiturari eutsiz, as-
teburuan, Bergarako San Martin
plaza saskibaloia kantxa bilaka-
tuko da. Baina, oraingoan, hi-
tzordua bikoitza izango da, ber-
gararrei oñatiarrak ere batu
zaizkielako. Hala, txantxikuek
ere euren txapelketa antolatze-
ko lana hartu dute, baina horiek
Foruen plazan ez, horiek Olakua
auzoko kirolgunea aukeratu
dute hiruko torneoa egiteko.

Gazteen bila Oñatin

Oñatikoa, esan moduan, hitzor-
du berria da, baina, neurri han-
dian, Gabonetan egin izan duten
txapelketa ordezkatzeri dator.

"Gabonetan urte askoan jokatu
da saskibaloia txapelketa Oñatin.
Azken bi urteetan ez, pandemia-
gatik, eta ideia hau askoren
gustukoa izan da, jendea lagun
arteant jokatzeko gogoz dago eta",
diote antolatzaileek.

Helduen eta gaztetxoentzako txapel-
keta mistoa izango da, eta goizez
jokatuko dute, 09:00etatik 14:00eta-
ra. Kategoria bakoitzean hamabi
talde lehiatzea da antolatzaileen
nahia. Helduenean bete dute ko-
purua: hamabi taldek emanda
dute izena dagoeneko. Gaztetxoentzako
taldeak gutxiago dira, oraingoan,
eta antolatzaileek deialdi berezia
egin gura dute, gaztetxoak parte
hartzera animatzeko. 10 eta 15

urte artekoak sartzen dira kate-
goria horretan –izen-ematea: 688
78 57 54–.

Bergarakoak 14 urte

Bergarakoak gogotsu daude ha-
malaugarren ediziora begira:
"Klubetik saskibaloiaz disfruta-
tzeko gogoz gaude. Txapelketa
honekin gure helburua saski-
baloia sustatzea da, batez ere,
adin txikiko neska-mutilen arte-
an". Zapatuan goiz eta arratsalde
egongo dira partiduak, eta domekan kategoria txikikoak
ibiliko dira. Labegaraietan hoc-
keya egongo denez, euria egiten
badu saskiak pilotalekura era-
mango dituzte.

ZIKLISMOA Gazte mailako Gipuzkoako Itzulia, gaur hasita

Gaur, egubakoitza, hasi eta as-
telehenera bitartean jokatuko
dute lau etapa izango dituen
Gipuzkoako junior mailako Itzulia.
Atarikoa Idiazabalen jokatuko
dute gaur, eta bi kilometroko
erlojupekoa izango da. Eta
datozen egunetan lehiatuko dira
Zumaian, Andoainen eta Segur-
an. Tartean bailarako ziklistak
izango dira.

MENDI LASTERKETAK Eguenean aurkeztuko dituzte Ehun Miliak

Uztailaren 8an, 9an eta 10ean
egingo dute Ehun Miliak pro-
baren baitan dauden ultratrail
lasterketa bera –168 km eta 11.000
metroko desnibel positiboa– eta
baita G2H –88 km, 6.000 metro–
eta Marimurumendi –42 km,
2.200 metro– lasterketak ere, eta
datorren egunean egingo dute
horien aurkezpena. Aurtengoa
hamaikagarren edizioa da.

RALLYSPRINTA Zabaldur dute Eskoriatzako probako izen-ematea

Uztailaren 16an egingo dute Es-
koriatzako lehenengo rallysprin-
ta, eta dagoeneko eman daiteke
izena Federazioaren webgunean:
www.eaf-fva.net. Hori horrela,
lehenengo bi txandak Aretxaba-
letako Bainuetxe industrian
hasiko dituzte. Handik Mendiola-
rako bidea hartuko dute, eta, Lete,
Eraña, Bolibar eta Agiñatik pasata,
Atxorro-

txeko zementuzko bidean behe-
ra helmugara iritsiko dira. Hu-
rrerango bi txandak, berriz, Es-
koriatzako plazan hasiko dituzte,
eta ibilbidea kontrako nor-
rantzkoan egingo dute: Namaste
belar-dendan gora, depositu
zaharrean gora, Atxorrotzeko
zementuzko bidean gora, Bolibar,
Eraña, Lete, eta Mendiola egon-
go da helmuga. Tramuak zortzi
kilometro izango ditu eta autoak
Aretxabaletan –Portasolen– eta
baita Eskoriatzan ere egongo
dira ikusgai.




DEBAGOIENKO PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86 / Faxe: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA
Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiostudioa@gmail.com

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRATIOAK

URIBESALGO ADMINISTRATIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Arrasateko kaleetan dauden sorkuntza artistikoak. AUSORTU EKIMENA

Sortzaile gazteentzako espazioak aldarrikatuz

Ausortu ekimenak artista gazteendako eta hasiberriendako espazioen beharra eskatzeko asmoz, erdiguneko kaleetako hormetan eta bestelako guneetan sormen lanak jarri dituzte, QR formatuan batzuk eta artelana agerian beste hainbatetan

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE 15 eta 25 urte bitarteko gazteei diziplina artistiko ezberdinetara hurbiltzeko eta horietan trebatzeko eta sormena lantzeko asmoz abiatu zuten AEDko Ttak! gazte taldeak eta Txatxilipurdi elkarteak lankidetzan Ausortu sormen laborategia, 2018an, eta, harrezkero, herriko zein kanpoko artista eskarmentudunak gonbidatuta hainbat sormen laborategi egin dituzte.

Laborategi horietatik abiatuta jaio da, bada, herriko askotariko artista gazteak biltzen dituen Ausortu ekimena. "Aurten beste forma bat hartu du ekimenak, gazte sortzaileekin hainbat biler egin ditugu gazte sortzaileok,

orokorrean ditugun kezka eta hutsuneak identifikatzeko asmoz. Gazte sortzaile moduan ditugun beharretatik abiatuta, elkartzea, ezagutzea eta saretzea da gure helburu nagusia, artista bakoi-tzak bere proiektuak sortzeko bidelagunak topatzeko edo elkarrekin bestelako proiektu artistikoak gauzatzeko", kontatu du Ausortu ekimeneko kide Oihan Loitik.

Kale-ekintza aldarrikatzailea Aipatutako bilera horietatik sortu da egubakoitzean egin zuten kale-ekintza artistiko aldarrikatzailea. "Kaleak hartzea zen gure asmoa, gazte sortzaileak bagaudela eta aktibo gaudela

adierazteko eta gure lanak erakusteko espazioak behar ditugula aldarrikatzeko. Hori horrela, erdiguneko hamabost tokitan jarri genituen –taberna kanpo eta barruetan, adierazpen libreko guneetan, erakuslehoetan eta hormetan– askotariko sormen lanak, guztiak Arrasateko artista gazteek eta hasiberriei egindakoak. Kale ekintza bat izanik, bagenekien arrisku bat

"GAZTE SORTZAILE ETA AKTIBO ASKO GAUDELA ERAKUTSI NAHI IZAN DUGU"

OIHAN LOITI, AUSORTU EKIMENA

genuela; hau da, gertatu den moduan, lan batzuk desagertu ahal izango zirela, baina lortu genuen, une labur batez bada ere, kaleak gure koloreekin eta soinuekin janztea".

Kaleetan itsatsita dauden QR irudien bidez ikus daitezke, esaterako, bideoklipak eta ekimenaren aurkezpen-bideoa, abesti bat entzuteko aukera ere ematen dute kode batzuek, eta baita poesiak irakurtzeko bidea eman ere. Horrez gainera, agerian, ikusgai daude askotariko ilustrazioak eta baita argazkiak ere.

Instagramen, 'Ausortu' kanala "Pozik" daude lehen ekintzak izan duen harrerarekin. "Batzuei, akaso, ez zaie gustatu hormetan edo erakuslehoetan kartelak eta bestelakoak itsatsita ikustea, baina ekintza apurtzaile bat egin gura genuen, ezberdina eta zeresana sortuko zuena. Erakusleho kanpoan jarri ditugu etorkizunean barruan jartzeko aukera izango dugula pentsatuz". Instagramen dute *Ausortu* izenarekin kanala eta bertan daude aurrez aipatutako ekimenaren aurkezpen bideoa eta ekintzako hainbat argazki. "Gure ekintzak gazteengan eta orokorrean ere bai eragin egin duela sumatu dugu, Instagramen dugun kontu horretan bisitek eta parte hartzaileek gora egin dute-eta azkeneko egun hauetan; beraz, oso pozik gaude".

Irailetik aurrera, gehiago Ausortu ekimenarekin jarraitzeko asmoa adierazi dute. "Ez dugu zehaztuta zer eta noiz egingo dugun, baina gehiago antolatzeke gogoz gaude, beharrezkoa ikusten dugu-eta herriko gazte sortzaileendako espazioak aldarrikatzea".

Eskualdekoak Galiziako metal gogor musika jaialdian

Numen eta Sharon Stoner taldeek kontzertu bana eskainiko dute Viveiroko Resurrection Fest-en

A. A. ARRASATE

Uztailaren 1etik 3ra bitartean egingo dute EHZ jaialdia, Irizarin, eta, Debagoieneko musikazaleak joango diren arren, ez da eskualdeko ordezkariarik izango taularen gainean; bai, ordea, ekainaren 29tik uztailaren 3ra egingo duten Galiziako Resurrection Fest-en. Metal gogorra eta stoner doinuak oinarritu dituen jaialdian, Arrasateko Numen taldea ekainaren 30ean izango da eta Oñatiko Sharon Stoner hirukotea, berriz, uztailaren 2an, zapatua. Pandemiak bertan behera utzi zuen 2020ko aldirako jaso zuten bi taldeek gonbidapena.

Oñatiarrek, EP berria

Aurretik lau disko kaleratuta, Galiziako jaialdiaren aitzakian argitaratu du Sharon Stoner taldeak *VOL.5* disko laburra gaur, egubakoitza. "Halabeharrezko itxaronaldia izan dugu, baina gogotsu gaude datorren asterako. Bi kantu berri grabatu ditugu Oñatiko SEIAM estudioan; Iban Yanizek egin du masterizazioa, eta dagoeneko sare sozialetan ikusgai dagoen *Izan hare* abestiaren bideoklipa, berriz, Erik Zubiriak", kontatu du Egoitz Olalde bateria-joleak.



'JAIK' SAIO BEREZIA

ARRASATEKO SANJUANAK

EKAINAREN 28AN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

AITOR AGIRIANOK AURKEZTUTAKO SAIOA

BABESLEA:

LIRAIN
ARRASATE - ESTETIKA

goiena
Zu hemen zaude.



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Donostia. Antigua auzoan etxebizitza ematen da errentan, udarako. Hamabostaldika edo hilabeterako. Ondartzatik 300 metrora. 687 78 50 45

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Errentan hartzeko pisu bila nabil. Telefonoa: 671 16 54 60

105. ETXEAK OSATU

Bergara. Bergarako erdi-gunean gela bat hartuko nuke errentan. Telefonoa: 666 07 42 98

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Aretxabaleta. Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 676 13 27 45

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruak. Erizain laguntzailea gertu arratsaldetan nagusiak, gaixoak edo menpekotasun egoeran daudenak zaintzeko. 602 36 37 51

Arrasate eta inguruak. Haur Hezkuntzan graduatutako neska euskalduna uztailean umeak zaintzeko prest. 646 25 60 30

Arrasate eta inguruak. Neska euskaldun, gazte eta arduratsua naiz umeak zaintzeko prest dagoena. 679 73 80 69

Bergara. Goizez eta gauzez pertsonak zaintzeko gertu. Legezko agiriak eta titulazioa dauzkat. Telefonoa: 666 07 42 98

Bergara. Umeak zaintzen, taberna zein kafetegiren baten edota garbiketarako egiten lan egingo nuke. 634 47 13 84

Debagoiena. Asteburuetan pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 671 16 54 60

Debagoiena. Lan egingo nuke orduka edo asteburutan sukaldeko laguntzaile moduan, nagusiak zaintzen eta abar. Telefonoa: 609 31 34 36

Debagoiena. Emakumea prest pertsona nagusia zaintzeko eta etxeak garbitzeko. 611 24 18 98

Debagoiena. Erabateko prestutasuna daukat lanerako: sukaldari laguntzaile, pertsona nagusiak edo umeak orduka zaintzen, garbiketaren eta abar. Baita asteburuetan ere. 609 31 34 36

Debagoiena. Erizain laguntzaile titulazioa daukan neska nagusiak zaintzeko eta garbiketarako gertu. Telefonoa: 620 23 58 15

Debagoiena. Erizain titulazioa daukan mutila gaixo edota nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, orduka eta baita asteburuetan ere. 642 15 96 39

Debagoiena. Garbiketaren zein umeak edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 632 96 34 01

Debagoiena. Gizarte eta osasun arreta ikasketak eta titulazioa dauzkat. Goizez orduka, gauzez

edota asteburuetan. Baita ospitalean gautetan ere. 647 31 48 17

Debagoiena. Goizetan lan egingo nuke, umeak zaintzen. 643 06 36 62

Debagoiena. Goizez 10etatik 15etara eta gauzez pertsona nagusiak zaintzeko gertu, astelehenetik ostiralera eta asteburuetan. 602 49 39 31

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, ospitaleko zaintzan edo garbiketaren lan egingo nituzke. Gizarte-osasun ikastaroa eta esperientziaduna daukat. 641 51 13 06

Debagoiena. Mutil langileak pertsona adinduak zaintzeko, garbiketarako edota sukalde laguntzaile lanetarako prest. 605 520 696

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Telefonoa: 613 27 25 12

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko edota baserriko lanak egiteko. 677 00 90 26

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. 672 55 67 35

Debagoiena. Mutila, esperientzia eta erreferentzia onak dituen, zaintza lanetarako gertu. Legezko agiriak eta autoa. Telefonoa: 662 43 08 54

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo etxe, atari eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. Egunez orduka edo gauzez, baina etxean bertan bizi barik. 632 41 99 44

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edota garbiketaren jarduteko gertu nago. Telefonoa: 602 34 13 00

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edota garbiketaren lan egingo nuke, baita orduka edo asteburuetan ere. 609 31 34 36

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edota garbiketaren lan egingo nuke. Telefonoa: 632 30 61 49

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edota garbiketaren lan egiteko gertu nago. 612 40 93 00

Debagoiena. Neska arduratsua eta langilea naiz eta umeak edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia handia dut. 611 24 26 64

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak zaindu eta kalera laguntzeko, edota taberna, atari eta abarrak garbitzeko. 624 83 94 73

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak zaintzeko edota atari eta abarrak garbitzeko. Telefonoa: 631 64 66 36

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko edota garbiketarako egiteko. 612 55 61 76

Debagoiena. Neska langilea lan bila. Pertsona adinduak zaintzeko, gar-

biketarako edo sukalde laguntzaile lanetarako. 651 816 391

Debagoiena. Orduka edo jardun osoz nagusiak zaindu eta garbiketarako egingo nituzke. Telefonoa: 645 37 45 10 (Nuris)

Debagoiena. Orduka edo jardun osoz nagusiak zaindu eta garbiketarako egingo nituzke. Arrasaten bada, baita etxean bertan bizi izaten ere. Telefonoa: 634 94 30 78

Debagoiena. Orduka edo jardun osoz nagusiak zainitzeko gertu nago. Baita egoitzatan ere. Autoa daukat. 631 98 15 50

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaitzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 626 91 49 04

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan bost urteko esperientzia daukat eta baita soziosanitario titulua ere. 666 21 36 37

Debagoiena. Soziosanitario titulazioa daukan neska asteburuetan zain-tza lanak egiteko gertu. 653 36 85 80

Debagoiena. Umeak eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Baita garbitasun eta baserriko lanetan ere. 641 09 15 58

Debagoiena. Zuzenean bezeroarekin edo enpre-

saren baten garbiketa lanetan aritzeko gertu nago. 612 28 42 74

Garraiolari lanak. Esperientzia duen mutila, autonomoa, garraio lanetan jarduteko prest. Telefonoa: 616 82 83 20

Umeen zaintza. Uztail amaiera arte, umeak zaintzeko prest nago. 17 urteko neska arduratsua naiz. Esperientzia dut. Deitu: 688 72 34 05 edo 605 76 82 75

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katua opari. Txerto guztiak ditu eta kartilla egunean. Osagarri guztiekin ematen da. 637 22 36 19

8. DENETARIK

801. SALDU

Gurpildun aulkia. Gurpildun aulki elektrikoa salgai. Oso gubri erabilia dago eta osagai guztiekin saltzen dugu. Telefonoa: 678 98 02 04

809. ERRENTAN EMAN

Lursailak Aretxabaletan. Lursailak ematen dira errentan Aretxabaletan. Aproposak orturako, txakurrak edukitzeko, eta abarretarako. Prezio ona. 618 76 34 40

URTEURRENA



Basilisa Ugarte Aizpeurrutia

1933-01-09 / 2021-06-26

Urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 25ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Aurrez esker on bertaratuko zareten guztioi. Oñatin, 2022ko ekainaren 24an.

URTEURRENA



Rosario Zumalde Ezkurra

Juan Erostarberen alarguna

2021eko ekainaren 22an hil zen, 80 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 25ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Elizkizunera joango zaretenoi eskerrak sendikoen izenean. Oñatin, 2022ko ekainaren 24an.

URTEURRENA



Julia Galfarsoro Balerdi

Andres Umerezen alarguna

2021eko ekainaren 25ean hil zen, 92 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 25ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrak asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2022ko ekainaren 24an

HILETA



Pilar Santos Gaona

Domingo Gonzalezaren alarguna

2022ko ekainaren 22an hil zen, 102 urte zituela.

Seme-alabak: Jose Luis eta Lourdes Pagaldai, Jesus Mari eta Ana Mari Otxoa, Maria Eugenia eta Julio Hernaez. Bilobak: Xabier eta Cristina, Iban eta Anabel, Igor eta Nerea, Joseba eta Edurne, Iñaki eta Marta, Daniel, Maite. Birlobak, lobak eta gainerako senideak.

Haren aldeko hileta-elizkizuna bihar, zapatua, ekainak 25, izango da, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari. Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrak asko.

Arrasaten, 2022ko ekainaren 24an.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEAK
BEHAR DU DEBAGOIENERAKO

KOMERTZIALA

ESKATZEN DA:

- Euskaraz jakitea eta ondo idaztea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna izatea.
- Saltzaile lana gustuko izatea.

Curriculumak aurkezteko epea: 2022ko uztailaren 1a

Nora bidali: pertsonala@goiena.eus

KONTUAN HARTUKO DA:

- Taldean lan egiten jakitea.
- Selmentan esperientzia izatea.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Inmohogarai 3 - BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmohogarai.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Mesternika, 90 m², 3 lagola, igogailua, egurkitua. 195.000€
- San Antonio, 69 m², 2 lagola, igogailua, biitzera sartzea. 151.000€
- Modura, 52 m², 2 lagola, egurkitua, biitzera sartzea. 110.000€
- Freixakuri, 64 m², 3 lagola, igogailua, egurkitua. 160.000€ PREZIO JEITSIERA
- Irizar posetiekua 63 m², 3 lagola, igogailua. 164.000€ PREZIO JEITSIERA
- San Antonio, 77 m², 3 lagola, igogailua, garajea barne. 165.000€
- Mesternika, 75 m², 3 lagola, karpela polioa, biitzera sartzea. 120.000€
- Mesternika, 53 m², 2 lagola, beriztatutako erakintza. Biitzera sartzea. 148.000€
- Martolo, 60 m², 2 lagola, igogailua, biitzera sartzea. 120.000€ PREZIO JEITSIERA
- Barrenkale, 85 m², 2 lagola, beriztatua. 110.000€ PREZIO JEITSIERA
- Mesternika, 86 m², 3 lagola, beriztatua, biitzera sartzea. 150.000€ Negariagorie.
- Mesternika, 75 m², 3 lagola, beriztatua, biitzera sartzea. 150.000€ Negariagorie.
- Freixakuri, 100 m², 3 lagola, igogailua, garajea aukeran. 198.000€
- Metxakuri, 96 m², 4 lagola, beriztatutako erakintza. 139.500€ PREZIO JEITSIERA
- Akorante, 60 m², 2 lagola, beriztatutako, biitzera sartzea. 100.000€
- Mesternika, 75 m², 2 lagola, biitzera sartzea. 149.000€ PREZIO JEITSIERA
- Sanantonabot, 75 m², 2 lagola, parkinga, txakoa, biitzera sartzea. 175.000€

LOKALAK:

- Bidekurutzeta, 364 m², 3 lokal batere, bi sarrera. Boneto dotorea. 95.000€
- Ibargorai, 78 m², bi sarrera, bi sarrera, 3 lokalak. Lehen okidegia. 125.000€
- A. Fleming (poligonoz) 50 m², komertzio eta garajea ditu. Bi sarrera ditu. 65.000€
- Mesternika, 104 m², Bideberritik sarrera. Otxo orkidakizunak gabe. 80.000€

OSINTXIA:

- Oñate, 61 m², 3 lagola, beriztatutako, beriztatua. 55.000€
- Oñate, 75 m², 3 lagola, beriztatutako handiak. 63.000€ Aukera ona.

UBIKUA:

- Baserri eta 15 hektaroko lursaila (jainak, zelaiak) 340.000€ PREZIO JEITSIERA

ANTEGOKIA:

- Irimeigigona auzoan, Baserri salgai, hektaria bateko lursailarekin 295.000€
- Irimeigigona auzoan, Baserri salgai, hektaria bateko lursailarekin 120.000€
- Kalegoi, etxe osoa, bi etxebizitza eta trasterak. 120.000€
- Behoko auzoa, 90 m², 3 lagola, beriztatutako eta garajea barne. Biitzera sartzea 198.000€
- Kalebarren, 75 m², 3 lagola, igogailua, balkoi. 145.000€ PREZIO JEITSIERA
- Behoko auzoa, 54 m², 2 lagola. Beriztatua. 80.000€
- Behoko auzoa, 60 m², 2 lagola. Beriztatua. Biitzera sartzea. 120.000€
- Errekalde, 70 m², 2-3 lagola, igogailua, biitzera sartzea. 125.000€
- Kalebarren, 77 m². Beriztatua. 51.000€

RUSTIA:

- San Roke, duplexa, 83 m², beriztatua, biitzera sartzea. 190.000€

ESKER ONA



Ines Beitia Irasuegi

Agapito Gardokiren alarguna



2022ko ekainaren 15ean hil zen, 93 urte zituela.

Egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztiei eskerrik asko familiaren izenean.

Aixolako bazterrek igarriko dute zure falta, kanpaien sokak zure igurtzia; guztiok zure irribarrea, berba jarioa eta ematen zenigun guztia; baina kanpaiak entzutean eta bazterrak ikustean, sentituko dugu zure presentzia.

Aramaion, 2022ko ekainaren 24an.

ESKER ONA



Juan Ignacio Alcorta Gorosabel



2022ko ekainaren 9an hil zen, 77 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, ekainaren 25ean, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde z aurretik, eskerrik asko.

Oñatin, 2022ko ekainaren 24an.

ESKER ONA



Juan Jose Egidon Ortega



2022ko ekainaren 20an hil zen, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko ekainaren 24an.

ESKER ONA



Maximo Aranzabal Lascurain



2022ko ekainaren 17an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Elgetan, 2022ko ekainaren 24an.

ESKER ONA



Asensio Esnaola Ansorregi



2022ko ekainaren 14an hil zen, 98 urte zituela.

Asensioren tailako ikasleei eskerrak eman nahi dizkiet hainbeste urtez maitasunez zaindu dutelako.

Bere emaztea. Bergaran, 2022ko ekainaren 24an.

ESKER ONA



Marixol Garitano Arrieta



2022ko maiatzaren 31n hil zen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko ekainaren 24an.

ESKER ONA



Loli Leunda Uria

Jose Antonio Larrañagaren alarguna



2022ko ekainaren 20an hil zen, 75 urte zituela.

Seme-alabak: Maider eta Aitor Goiti, Gaizka eta Cristina Olaya. Biloba: Unax. Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi dizkizute. Etxekoek amaxori maitasunez.

Bergaran, 2022ko ekainaren 24an.

ESKER ONA



Pello Garitano Mendibil

Arantxa Askasibarren alarguna



2022ko ekainaren 18an hil zen, 82 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko ekainaren 24an.

ESKER ONA



Juan Miguel Urkiola Ibarra



2022ko ekainaren 20an hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko ekainaren 24an.

OROIGARRIA



Pilar Santos Gaona

Igor Gonzalez lankidearen amama



2022ko ekainaren 22an hil zen, 102 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



goiena“
KOMUNIKAZIO TALDEA

Goiena Komunikazio Taldea. Arrasaten, 2022ko ekainaren 24an.

OROIGARRIA



Pello Garitano Mendibil



2022ko ekainaren 18an hil zen, 82 urte zituela.

Lokatzagatik eta herrixagatik egin dozun dana ez dogu sekula ahaztuko. Zuregatik gara eta izango gara. Goian bego Pello.



Lokatza Ziklismo Eskola Bergaran, 2022ko ekainaren 24an.



Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren. Gure eskerrik beroenak gudan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik. Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

HILDAKOAK

- Juan Ignacio Alcorta Gorosabel.** Oñatin, hilaren 9an. 77 urte.
- Juanma Garcia Delgado.** Bergaran, ekainaren 14an. 56 urte.
- Asensio Esnaola Ansorregi.** Bergaran, hilaren 14an. 98 urte.
- Ines Beitia Irasuegi.** Aramaion, ekainaren 15ean. 93 urte.
- Maria Josefa Urriategi Zabaleta.** Bergaran, hilaren 15ean. 90 urte.
- Felicia Jorge Amado.** Arrasaten, ekainaren 16an. 72 urte.
- Maria Concepcion Apaolaza Azkargorta.**
- Oñatin, ekainaren 16an. 91 urte.
- Pili Sagasta Juldain.** Arrasaten, ekainaren 17an. 67 urte.
- Maximo Aranzabal Lascurain.** Elgetan, hilaren 17an. 92 urte.
- Fermin Pasamar Ruiz.** Aretxabaletan, hilaren 18an. 89 urte.
- Pello Garitano Mendibil.** Bergaran, ekainaren 18an. 82 urte.
- Julia Ruiz Ruiz.** Arrasaten, ekainaren 19an. 86 urte.
- Juana Ibabe Bengoa.** Aretxabaletan, hilaren 20an. 85 urte.
- Juan Jose Egidon Ortega.** Arrasaten, hilaren 20an. 87 urte.
- Loli Leunda Uria.** Bergaran, ekainaren 20an. 75 urte.
- Juan Miguel Urkiola Ibarra.** Bergaran, hilaren 20an. 86 urte.
- Vicente De Dios Carrascosa.** Bergaran, hilaren 21ean. 64 urte.
- Pilar Santos Gaona.** Arrasaten, ekainaren 22an. 102 urte.
- M. Angeles Berezibar Altuna.** Arrasaten, hilaren 22an. 91 urte.
- Eugenia Azurmendi Garro.** Arrasaten, hilaren 22an. 92 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ
Egubakoitza, 24 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Zapatua, 25 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
Domeka, 26 AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15
Astelehena, 27 JUNCAY: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Martitzena, 28 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Eguaztena, 29 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Eguena, 30 SANCHEZ: Euskal Herria 15 / 943 79 09 74
BERGARA EGUNEZ
Egubakoitza, 24 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 25 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Domeka, 26 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Astelehena, 27 ESTELLA: Mabxiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 28 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 29 URRITIKOETXEA: Oxirondo 4 / 943 76 11 74
Eguena, 30 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK
Egubakoitza, 24 ANDUAGA: San Lorentzo 3/ 943 78 21 16
Zapatua, 25 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 26 ANDUADA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 27 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 28 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 29 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 30 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2022ko abuztuaren 15era arte: ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2022 osoan: URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



ESKORIATZAKO JAIAK: TXUPINAZOA ZUZENEAN

'Bereziak' Martitzena, 18:30



ESKORIATZAKO JAIAK: NAGUSIEN DANBORRADA

'Jaiak' Martitzena, 19:00 eta 21:30

EGUBAKOITZA, 24	ZAPATUA, 25	DOMEKA, 26
08:00 Hemen da Miru	08:00 Astearen errepasoa	08:00 Hemen da Miru
08:30 Elkarrizkettap: Ane Sarasua	09:00 AKS 2022	08:30 Hemen da Miru
09:00 Jaiak: Entzierroa	10:00 Hemen Debagoiena	09:00 Hemen da Miru
10:00 Hemen Debagoiena	11:00 Jaiak: Corpusak	09:30 Galdegazte: Naiara Urzelai
11:00 Jaiak: Corpusak	11:30 Jaiak: Entzierroa	10:00 Asteko errepasoa
11:30 AKS 2022	12:30 Jaiak: Sanjuanak	11:00 Elkarrizkettap: Ane Sarasua
12:00 Jaiak: San Juan sua	13:30 Hemen Debagoiena (Sanjuanak)	11:30 AKS 2022
13:00 Jaiak: Entzierroa	14:30 Galdegazte: Naiara Urzelai	12:00 Jaiak: Corpusak
14:00 Albisteak	15:30 Hemen Debagoiena	12:30 Jaiak: Sanjuanak
14:30 Jaiak: Corpusak	16:30 Asteko errepasoa	13:30 Hemen Debagoiena (Sanjuanak)
15:00 Albisteak	17:20 Elkarrizkettap: Ane Sarasua	14:30 Jaiak: Entzierroa
15:30 Galdegazte: Naiara Urzelai	18:00 Jaiak: Sanjuanak	15:30 AKS 2022
16:00 Albisteak	19:00 Hemen Debagoiena (Sanjuanak)	16:00 Galdegazte: Naiara Urzelai
16:30 Elkarrizkettap: Ane Sarasua	20:00 Jaiak: Entzierroa	16:30 Harmailatik
17:00 Albisteak	21:00 Galdegazte: Naiara Urzelai	17:00 Hemen Debagoiena
17:30 Harmailatik	21:30 Hemen Debagoiena	18:00 Asteko errepasoa
18:00 Albisteak	22:30 Harmailatik	19:00 Jaiak: Corpusak
18:10 Jaiak: Sanjuanak	23:00 Jaiak: Corpusak	19:30 Elkarrizkettap: Ane Sarasua
19:00 Jaiak: Entzierroa	23:30 Elkarrizkettap: Ane Sarasua	20:00 Hemen Debagoiena
20:00 Albisteak		21:00 Elkarrizkettap: Ane Sarasua
20:10 Jaiak: Sanjuanak		21:30 Jaiak: Corpusak
21:00 Jaiak: San Juan sua		22:00 Jaiak: Sanjuanak
22:00 Albisteak		23:00 Hemen Debagoiena (Sanjuanak)
22:10 Jaiak: Sanjuanak		
23:00 Jaiak: Entzierroa		

ASTELEHENA, 27

ASTEBURUKO KIROL EMAITZAK

'Harmailatik'

21:30/23:30

ASTELEHENA, 27

ARRASATEKO SANJUANAK

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: **goiena.eus/telebista** Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

MARTITZENA, 28



ARRASATEKO SANJUANAK

'Jaiak'

21:00/23:00

EGUAZTENA, 29

OIER ZUÑIGARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizkettap'

21:00/23:00

ZORION AGURRAK



OÑATI
Iban Dorado Fuente
Ekainaren 30ean, 44 urte. Zorionak eta urte askotarako, Ibancillu! Oñatitik Vigora muxu handi bat bialtzen dotzugu. Zure familikoen partetik, maite zaitugu!



BERGARA
Enara Cenitagoya
Ekainaren 29an, 8 urte. Zorionak, maitia. Besarkada handi bat, zure familiaren partetik. Maite zaitugu.



BERGARA
Elene Contreras Arakistain
Ekainaren 29an, 9 urte. Artista, sortzaile, dantzari... Zoragarria da zure ondoan egotea. Besarkada Juneren, aitaren eta amaxoren partetik.



BERGARA
Eneko Muñoz Arrieta
Ekainaren 27an, 10 urte. Zorionak. Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna, maitxia. Jarraitu zaren bezain autentikoa izaten. Musu piloa, etxeko denon partetik.



OÑATI
Laket Korkostegi Urzelai
Ekainaren 26an, 4 urte. Zorionak, txiki! Muxu handi bat etxeko guztion partetik!



ARETXABALETA
Markel Barandiaran Otxoa
Ekainaren 26an, 10 urte. Zorionak, mutiko handi! Ederto ospatu! Familixakuak.




BERGARA
Izar eta Irati Loiola Lopez
Ekainaren 25ean, 4 urte. Etxekoan eta maitxe zaitxuzten guztien partetik, egun eta asteburu ederra pasatu, eta batez be izaroren partetik. Matxe-matxe txiki handiak! Aitaxo, amatxo eta Iزارo.



BERGARA
Unax Mujika Beistegi
Ekainaren 25ean, 10 urte. Zorionak, Unax! Oso ondo pasatu zure egunean. Ederto ospatuko dugu! Muxu handi bat, maitxia.



ARAMAIO
Jakes Valoria Garcia
Ekainaren 22an, 10 urte. Zorionak, mutikote! Joan prestatzen gorputza muxu eta besarkada piloa jasotzeko. Baita hartz besarkada ere! Asko maite zaitugu!



BERGARA
Jon Maiztegi Uribesalgo
Ekainaren 22an, 6 urte. Zorionak Jon, 6 urte! Egun polit politxa pasatu, etxekoan partetik.



BERGARA
Yasmina Moreno
Ekainaren 21ean, 32 urte. Zorionak, tia! Aurten zure urtebetetzea berezia izango da. Asko maite zaittugu. Mila muxu Kenarren eta Alaineren partetik.



ARETXABALETA
Maddi Loiti Etxeberria
Ekainaren 20an, 5 urte. Zorionak, Maddi! 5 urte! Azkenien heldu da eguna, ederto ospatu! Patxo bat familixa danaren partetik!



BERGARA
Unai Sotil Domenech
Ekainaren 19an, 10 urte. Zorionak, maitxe! 10 urte! Patxo potolo bat familiaren eta, batez ere, Aratzen, Sararen, Malenen eta Unaxen partetik!



BERGARA
Nora Gonzalez
Ekainaren 18an, 7 urte. Zorionak, maitxia! Oso ondo pasatu zure egunian! Patxo potolo bat familia osoaren partetik.

BERRI-ZAKUA

**Gipuzkoa, txapeldunorde**

Oñatiko Corpus eskubaloitxapelketan lortu zuen postu hori nesken taldeak. Horko kide da Miren Bermejo oñatiarra – argazkian, garaikurra eskuetan–. Mutilen kategorian Gipuzkoak irabazi zuen. Infantil mailako Gipuzkoako, Nafarroako, Bizkaiko eta Arabako selekzioak elkartu ziren Oñatin, bi urteko etenaren ostean.

Onena kopletan

Xabat Illarregik irabazi zuen Aramaioko III. Kopla Txapelketa, buruz burukoan Eli Pagola menderatu ostean; eta 2019ko txapela berretsi zuen. Guztira, hamalau bertsolari aritu ziren kantuan, eta zortzi sailkatu ziren Dukiena jatetxeko azken finalerako. 80 pertsona batu ziren finala zuzenean entzuteko, eta irabazlea aukeratzeko.

**Ikasturte bukaerakoa**

Oñatiko zizelkatzaile taldeko kideek bukatu dute ikasturtea. Urtean zehar egindako lanak elkarrekin ikusi eta diplomak banatu ostean, mahaiaren bueltan elkartu ziren. Aurtengoak errepasatu eta aurrera begirakoak lotzen hasteko aprobetxatu zuten elkartean egindako afaria. Taldera batu gura dutenendako ikastaroak egingo dituzte irailean hasiko den ikasturtean.

**Guardiara bisitan**

Arrasateko Bidean Heziketa Zentroko kideak Arabako Errioxa aldean egon ziren aurreko barikuan, Aisialdia Programaren baitan egiten dituzten bisitetako baten. Guardia ezagutu zuren gidari baten laguntzarekin, eta hango upategi pribatu batean egon ziren. "Beste behin, egun polita pasa genuen elkarrekin, eta desiratzen gaude hurrengo irteera eguna heltzeko", esan dute.

**Antzuola, gorrituta**

Eskolako patioa lepo bete zen *Baietz Antzuola gorritu! Jantzi danok gorritz!* lelopean AKE Eguna ospatzeko. Kirola eta festa batu zituzten inoizko AKE Egun jendetsuenean, eta ia 400 lagun batu ziren bazkaltzeko. Ez zen falta, noski, izan klubeko laguntzaile, guraso zein jokalariei egindako borondatezko lanari aitortza.

**Otaba jaiak bueltan**

Hiru eguneko egitarauarekin ospatu zituzten Elosua auzoan Otaba jaiak. Mus txapelketa, triki-poteoa, herri bazkaria eta bertsolariak izan zituzten zapatuan. Domekan, pilota partidua, meza eta bazkaria egin zituzten; eta ostean, ikusmen handia sortu zuen pentatloi proba. Andoni Iruretagoiena *Izeta* eta Xabier Zaldia lehiatu ziren bertan.

**45 urte ezkontuta**

Diego Sanchez antzuolarra eta Agustina Herrero soraluzetarra 1977ko ekainaren 18an ezkondu ziren. Zorioneko daude, beraz. Ospatzeko moduan. "Dagoeneko 45 urte ezkontuta! Zorionak, bikote! Segi beste hainbat urtemuga elkarrekin betetzen eta zoriontsu izaten. Besarkada handi bana, familia osoaren partetik. Maite zaituztegu".

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 24

ARRASATE San Juan Eguna
Entzierroa, meza nagusia, 80 urtetik gorakoei omenaldia, kale-antzerkia, azoka eta Neomak taldearen kontzertua, besteak beste.
Arrasaten.

BERGARA Espainiako Hockey Txapelketa
Burdinolarekin batera beste zazpi talde lehiatuko dira 20 urtez azpikoen txapelketan.
Labegaraietan, 09:00etan.

ARAMAIO Azkoaga auzoko jaiak
12:00etan, meza; 12:30ean, parrillada, trikitilariak animatuta; 17:00etan, puzgarriak; eta 18:00etan, mus eta briska txapelketak.
Azkoagan.

BERGARA Sanjuanak
12:00etan, meza; 13:00etan, lore-sorta lehiaketa; 13:15ean, 80 urtetik gorako auzotarrei omenaldia; ostean, ortu lehiaketako sari banaketa; eta 14:00etan, erretiratuaren bazkaria.
San Juan auzoan.

ANTZUOLA Kalebarrengo jaiak
18:00etan, danborradako umeendako merienda Zurrategin; 19:00etan, haurren danborrada; 19:30ean, Anelkarren eskutik elkartasun pintxoak; 23:00etan, Karena taldearen emanaldia; eta 00:00etan, aulki jokoa.
Kalebarrenen.

OÑATI 'De vecinos como estos, libranos señor' antzezlan
Pake Lekuko Ikusi-Makusi antzerki taldearen eskutik.
Santa Anan, 18:30ean.

OÑATI Aloña Mendiko futbol sailaren urteko batzarra
Ostea, afaria, jokalariei onenak saritzeko.
Aloña Mendi elkartearen, 19:00etan.

OÑATI Sanjuanak Garagaltzan
21:00etan, Gaztelondo baserriaren inguruan, San Juan sua, etxafuegoak eta brindisa.
Garagaltza auzoan, 21:00etan.

OÑATI Syberia eta Pelax taldeak
Rock eta metal doinuak nagusi. Sarrerak: bost euro langileendako eta hiru langabeendako.
Antixena parkean, 22:00etan.

BERGARA Txost taldea
Kartzela zaharraren 22. urteurrenaren harira.
Kartzela zaharrean, 22:00etan.

ZAPATUA 25

ARRASATE Sanjuanak: haurren eta gaztetxoaren festa eguna
Bertso jaialdia, Eguzkilaruren bisita herriko umeei, *Zeuk iñ, zeuk jan* bazkaria, errektorearen gaztetxoaren txapelketa eta musika kontzertuak, besteak beste.
Arrasaten.

OÑATI Hiruko saskibaloi txapelketa
Helduak eta gaztetxoak.
Olakuako kantxan, 09:00etan.

BERGARA Hiruko saskibaloi txapelketa
Euria bada, pilotalekuan.
San Martin plazan, 09:00etan.

ESKORIATZA Kontzejupe txapelketa
Binakako txapelketa. Irabazleendako, txuletak.
Kontzejupean, 10:00etan.

OÑATI Trauti eguna
10:30ean, sentsibilizazioa ekitaldia; eta 11:00etatik 13:00etara, mugikortasun arazoaren simulazio ibilbideak: aulkiak, itsuen makilak eta gorreriaren simulazioa. Sentsibilizazio mahaia eta Joëlette aulkiaren erabileraren erakustaldia.
Foruen plazan.

BERGARA Sarea Sortzen topaketa
Gure Platera, Gure Aukera ekimenaren eskutik, eskola-jangelak eraldatzeko ekimenen topaketa egingo dute.
San Martin eskolan, 10:30ean.

ELGETA Gaztekonkisi lehiaketa
LH-6ko, DBH-1eko eta DBH-2ko gazteendako askotariko probak.
Asentzian, 11:00etan.

ANTZUOLA Kalebarrengo jaiak
11:00etan, mural kooperatiboa eta ginkana; 18:00etan, buruhandiak; 20:00etan, arbola jasotzea, Ondarreko gaiteroekin; 20:30ean, Kittu taldearekin kalejira; 21:00etan, afaria; 23:00etan, Narbaiza eta Laja trikitilariak erromeria; eta 00:00etan, sagar dantza.
Kalebarrenen.

BERGARA Sanjuanak
12:00etan, *Auzoa ezagutu* bisita gidatua, Narbaiza Bolu eta Elortza Bolu errota ezagutzeko; eta 14:00etan, auzo bazkaria.
San Juan auzoan.

OÑATI Trikitika Eguna
12:00etan, triki-hika poteoa, Lizargarateko trikitilariak; 14:30ean, hika-bertso bazkaria, Oihana Iguaranekin, Amets Arzallusekin eta Eli Pagolarekin; eta 19:30ean, triki-hika-dantza poteoa, Eingo txarangarekin.
Oñatin.

OÑATI Sanjuanak Garagaltzan
13:30ean, etxafuegoak; eta 14:00etan, auzo bazkaria. Ostean, soinu-joleen dantzaldia, mus txapelketa eta haurrendako jolasak.
Garagaltza auzoan.

ARAMAIO Ardo dastatzea eta auzo afaria
Arteagako sommelier Maider Larrañagarekin; eta ostean, afaria.
Azkoagan, 19:00etan.

BERGARA Fango eta Low Cost Deluxe taldeak
Kartzela zaharraren 22. urteurrenaren harira.
Kartzela zaharrean, 22:00etan.

DOMEKA 26

ARRASATE Sanjuanak
Entzierroa eta erraldioen eta kilikien kalejira, Eusko Labeleko produktuen dastatzea, dantza emanaldiak eta Anariren kontzertua, besteak beste.
Arrasaten.

ANTZUOLA Kalebarrengo jaiak
10:00etan, txistularien goizeresia, eta ostean, meza eta luntxa; 12:00etan, dantzari gazteen saioa;



SYBERIA

OÑATI Syberia eta Pelax taldeak
Bartzelonako Syberia post rock/metal taldea eta Pelax donostiarrok oholiza gainean, ekaineko azken egubakoitzean. Sarrerak: bost euro langileendako eta hiru langabeendako.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

eta 17:00etan, Zirika Zirkus taldearen *Aurkitu gabeko altxorra* ikuskizuna.
Kalebarrenen.

ELGETA Hondarribira irteera: izen-ematea, gaurtik
San Fermin egun bezperan egingo dute herriko erretiratuak ibilaldia Gipuzkoako kostaldera. Izenak gaurtik eman daitezke, elkartearen bertan.
Ozkarbi elkartearen, 11:00etan.

OÑATI Sanjuanak Garagaltzan
11:30ean, etxafuegoak; 12:00etan, meza, eta ostean, luntxa.
Garagaltzan.

OÑATI Erretiratuaren Eguna
12:00etan, meza parrokiaren; 13:00etan, bi nagusiri omenaldia, bandaren eta Oñatzeko dantzarien laguntzarekin; eta ostean, bazkaria, bertso saioa, oparien zozketa eta dantzaldia.
Oñatin.

BERGARA Bergarako Musika Bandaren emanaldia, erraldoiekin
Eskainiko diren piezak erraldioen ingurukoak izango dira gehienak. Elgoibarko gaiteroen laguntza izango dute oholiza gainean.
Seminarioko patioan, 12:30ean.

BERGARA 'Missa coronación' kontzertu sinfonikoa
Bergarako Orfeoia eta Soraluzeko Ezoziko Ama Abesbatza elkarrekin. Sarrerak, hamar eurotan, Mujika

Sastreria dendan eta Lonbide zapata-dendan.
San Pedro parrokiaren, 19:00etan.

ASTELEHENA 27

BERGARA 'Amair' erakusketa
Irailaren 11ra arte egongo da ikusgai, eta bisita gidatuak egin ahal izango dira, 11:00etan eta 12:30ean.
Laboratoriumen.

ESKORIATZA 'Axtrokiko ontziak' erakusketa
Jatorrizko ontzien erreplikak erakusketa zabalduko dute gaur. Ikusgai egongo da uztailearen 26ra arte.
Ibarraundi museoan, 19:00etan.

MARTITZENA 28

BERGARA 'Levanteko labar artea' gune didaktikoa
Munduan bakarrak diren Holozenoaren hasierako manifestazio horiek ezagutarazteko eta baloratzeko bi aukera: 10:00etan eta 17:00etan. 8 urtetik gorako umeendako.
Laboratoriumen.

ESKORIATZA Sanpedroak: Bezpera Eguna
Arku tiro erakustaldia, marrazki lehiaketa, kuadrillen arteko jokoa, jaiak hasteko txupinazoa, salbea eta nagusien danborrada, besteak beste, jaietako lehen egunean.

Egitaraua osorik 18. eta 19. orrialdeetan.
Eskoriatzan.

ARRASATE 'Ikasleen irteera profila, hezkuntza eraldaketarako gakoa' hitzaldia
Xavier Aragayk eta Nagore Ipiñak egingo dute berba, online.
Mondragon Unibertsitatean, 17:30ean.

ESKORIATZA Bisita gidatua 'Axtrokiko ontziak' erakusketan
18:00etan euskaraz eta 19:00etan gazteleraz.
Ibarraundin.

BERGARA 'Finantza etiko burujabeak' hitzaldia
Koop57-ko kideek egingo dute berba, Ehunduk gonbidatuta.
UNEDen, 18:30ean.

ANTZUOLA 'LGTBIQ+ bizitzak Antzuolan' hitzaldia
Sexu Askapenerako Nazioarteko Egunaren harira, solasaldia egingo dute Bingen Alkortak, Belen Azkaretek eta Garikoitz Letek.
Torresoroan, 18:30ean.

EGUAZTENA 29

BERGARA Mikrometeoritoen tailerra
Zergatik desagertu ziren dinosauroak? Zer dira ozar-izarrak? Zein da meteorito, meteoro eta meteoroiddeen arteko aldea?
galderen erantzunak ezagutzeko aukera, 8-12 urte artekoendako.
Laboratoriumen, 10:00etan.

BERGARA Bedelkarren aukeren azoka
Denda aurrean ipiniko dituzte askotariko produktuak.
Denda aurrean, 10:00etatik aurrera.

ESKORIATZA San Pedro Eguna
Elizbira, hegazti harrapakarien erakustaldia, kenpo erakustaldia, profesional mailako pilota partiduak, rap kontzertua eta musika eskolako bandaren kontzertua, besteak beste. Egitaraua osorik 18. eta 19. orrialdeetan.
Eskoriatzan.

ESKORIATZA Bisita gidatua 'Axtrokiko ontziak' erakusketan
18:00etan euskaraz eta 19:00etan gazteleraz.
Ibarraundin.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

OÑATI Herriko jaiak antolatzeko batzar irekia
Herriko eragileendako deia.
Kultura etxean, 18:30ean.

OÑATI Sanpedroak Zubillagan
Meza esango dute auzoko ermitan, eta ostean, luntxa.
Zubillagan, 19:00etan.

BERGARA 'Regreso a Reims' pelikula
Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpтитuluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 30

BERGARA Txokolate beroa San Martzialen
Baselizara joaten direnendako txokolate beroa prestatuko dute San Joxepekoek. Meza nagusia ospatuko dute.
San Martzialen, 07:30ean.

ARRASATE Sasoibide
Erronka berezia ikasturteko azken ibilaldian: Ignaziotar Bidearen bigarren etapa egingo dute. Aurrez eman behar da izena.
Biteri plazan, 10:00etan.

ESKORIATZA Sanpedroak: Haurren Eguna
Entzierro txikia, bazkaria gaztelekuan, mus txapelketa, 12-16 urte arteko kuadrillendako jolasak, *Diskopuntx* ikuskizuna eta erromeria, besteak beste. Egitaraua osorik 18. eta 19. orrialdeetan.
Eskoriatzan.

OÑATI Garbigune ibiltaria
Egun osoan egongo da.
Olakuan, 10:30ean.

BERGARA Bedelkarren aukeren azoka
Denda aurrean ipiniko dituzte askotariko produktuak.
Denda aurrean, 10:00etatik aurrera.

ELGETA Ferixa Nagusiak: mozorro eguna
12:00etan, buruhandiei ongietorria; 19:30ean, mozorroen jaitsiera, alkate txikia izendatzea eta txupinazoa; 19:45ean, Burrunbazale txaranga; 23:00etan, Mugi Panderoa taldea; eta 00:00etan, larrain dantza.
Elgetan.

ESKORIATZA Bisita gidatua 'Axtrokiko ontziak' erakusketan
18:00etan euskaraz eta 19:00etan gazteleraz.
Ibarraundin.

EGUBAKOITZA 1

ELGETA Ferixa Nagusiak: umeen eta erretiratu
Kuadrillen hamaiketakoa, euskal pentatloia, meza nagusia, erretiratu

ESKORIATZA Sanpedroak: Euskal Jaia
Talo postuak eta kupelak, kantu bazkaria, Oztopo trialsin taldekoen erakustaldia, buruhandien txirindulari lasterketa eta umeendako puzgarriak, besteak beste. Egitaraua osorik 18. eta 19. orrialdeetan.
Eskoriatzan.

ESKORIATZA Bisita gidatua 'Axtrokiko ontziak' erakusketan
18:00etan euskaraz eta 19:00etan gazteleraz.
Ibarraundin.

ZAPATUA 2

ELGETA Ferixa Nagusiak: kuadrillen eguna
Kuadrillen hamaiketakoa, jaioberriei harrera, herri bazkaria, buruhandiak, pintxo morunoen dastatzea, eta elektrotxaranga, besteak beste. Egitaraua osorik 30.orrialdean.
Elgetan.

ESKORIATZA Sanpedroak: kuadrillen eta familien eguna
Patata + lehiaketa, erromeria, bazkaria, jolasak, kuadrillen lehiaketa, orkestraren dantzaldia eta puzgarriak, besteak beste. Egitaraua osorik 18. eta 19. orrialdeetan.
Eskoriatzan.

ANTZUOLA 'Bengoetxea bira' pilota jaialdia
Lehenengo, neskak: Galeanotarrak-Insausti/Barrocal; eta ostean, elite mailakoak: Mendizabal/Pascual-Bengoetxea/Balerdi. Sarrerak, bost euro.
Frontoian, 19:00etan.

ZINEMA

GASTEIZ

GORBEIA

Top Gun
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 11:45, 17:00, 19:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:00, 22:00.
Todos a la vez en todas partes
Egubakoitza eta zapatua: 21:50.
Domeka: 11:45, 19:40.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 21:45.

Jurassic World
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 18:30, 19:25, 20:30, 21:30.
Domeka: 11:30, 16:25, 18:30, 19:25, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 19:15, 21:30.

Ligthyear
Egubakoitzetik domekara: 16:15, 18:15.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 19:15.

Elvis
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 20:10.
Egubakoitza eta zapatua: 21:40.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:20, 21:35.

Promesas en Paris
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 22:10.
Domeka: 12:00, 16:10.
Astelehenetik eguenera: 17:05, 20:15, 22:15.

The black phone
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:45, 22:00.
Domeka: 12:00, 17:30, 19:45.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:10, 22:20.

Un lio inesperado
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:40.
Domeka: 12:00, 17:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:10, 22:20.

Llenos de gracia
Egubakoitza eta zapatua: 17:10, 19:40, 22:10.
Domeka: 12:00, 17:10, 19:40.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

Black phone
Egunero: 15:50, 18:05, 20:20, 22:35.
Egubakoitzetik domekara, eta eguaztena: 19:05, 21:20, 23:35.

Llenos de gracia
Egunero, eguena izan ezik: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.
Eguena: 17:30, 20:15, 22:30.

Anythings goes vose
Eguena: 20:00.

Ligthyear
Egunero, martitzena izan ezik: 17:00, 19:15, 21:30.
Martitzena: 19:15, 21:30.

Jurassic world
Egunero: 16:00,

19:00, 22:00.
Egunero, martitzena izan ezik: 18:00.
Martitzena: 21:00.
Egunero, eguena izan ezik: 17:00, 20:00, 23:00.
Eguena: 17:00, 19:40, 22:20.

Top Gun
Egunero: 17:00, 19:40, 22:20.

El insoportable peso de un talento descomunal
Egunero, martitzena izan ezik: 22:35.

Doctor Strange en el multiverso de la locura
Egunero, martitzena izan ezik: 22:35.
Astelehena, martitzena eta eguena: 19:00.
Egubakoitza, zapatua eta eguena: 23:25.

Marmaduke
Zapatua, astelehena eta eguaztena: 15:45.

Todos a la vez en todas partes
Astelehena eta eguena: 21:40.

FLORIDA

Cinco lobitos
Egubakoitza: 17:30, 22:20.
Zapatua: 11:30, 17:30, 22:20.
Domeka: 11:30, 17:30.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

Top Gun
Egubakoitza: 21:40.
Zapatua: 11:45, 21:40.
Domeka: 11:45, 19:35.

Jurassic World
Egubakoitza: 17:00, 19:10, 22:00.
Zapatua: 11:30, 17:00, 19:10, 22:00.
Domeka: 11:30, 17:00, 19:10.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:15, 19:40.
Martitzena: 17:15.

Ligthyear
Egubakoitza: 17:00, 19.50, 22:00.
Zapatua: 12:00, 17:00, 19:50, 22:00.

Domeka: 12:00, 17:00, 19:50.
Astelehena eta eguaztena: 17.30, 20:10.
Martitzena: 17:20, 20:10.

La brigada de la cocina
Egubakoitzetik domekara: 19:40.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Promesas en Paris
Egubakoitza eta zapatua: 19:10, 21:20.
Domeka: 19:10.
Astelehenetik egueaztenara: 20:00.
Eguena: 20:10.

Un amor en Escocia
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:35.
Domekatik eguenera: 17:30.



AZKEN BERBA

MARIA AGIRRE

Euskalkia eta batua

Azken asteetan hausnarketa interesgarriak argitaratu dira euskalkien eta euskara batuaren inguruan. Horietako bat Iñaki Galdosi irakurri nion *Berria*-n maiatzaren amaieran. Bestea, joan den astean Elena Lakari *Puntua* aldizkarian. Biak gustatu zaizkit, biak irakurtzea aholkatzen dizuet.

Ni neu Martutene auzotik oso gertu bizi naiz, eta laster ohartu nintzen apur bat barbarotzat jotzen zutela nire hizkera. Horregatik, "zein zaila den zuri ulertzea" entzuten hasitakoan, kalean euskara batuaz hitz egiteko hautua egin nuen. Moskeorik gabe, praktikotasunetik.

Niri batua gustatzen zait, eta euskalkiak ere bai. Horregatik sufritzen dut Goiena telebistako mikrofono aurrean euskara batuarekin ezinean ari diren edadetuekin. Jakinda, gainera, euskalkian ederki moldatzen direla. Agian, galdera batuan egin zaielako izan liteke. Baina, era berean, ez dut ulertzen Euskal Herri mailako komunikabideetan batuaren ordeztuak euskalkiarekin tematen direnekin. Batzuei entzuten baitiet etengabe berben bila gaztelarara jotzen, aditzekin hanka-sartzeak egiten, eta, azkenean, ez bata eta ez beste. Nire belarriak, behintzat, ez du gozatzen.

GOIENA OKM GIDA

"Bezeroekin aurrez aurre egoteak asetzen nau"

JOSE IGNACIO RODRIGUEZ GOIENA ASEGURU ARTEKARITZA

Bergaran, Arrasaten eta Gasteizen ditu bulegoak artekaritza enpresak; talde-lana dute oinarri eta duela hogeita sei urtetik egiten du lan Rodriguezek sektorean

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Goiena Aseguru Artekaritza 2003an sortu zen, eta Arrasaten, Bergaran eta Gasteizen ditu bulegoak. Guztira, zortzi langilek osatzen dute lantaldea, eta euren helburua da pertsonai, profesionalei eta enpresei zuzendutako aholkularitza zerbitzu integrala ematea. Halaber, bai-larako kultur eta kirol ekintza eta ekitaldiak babesten dituzte; Mondragon CF taldea, Antxintxika Triatloloia eta Arrasate-Udalatx mendi lasterketa, adibidez.

Nolatan aukeratu zenuen lanbidea?

Beste aseguru-etxe batean hasi nintzen lanean duela 26 urte, eta han beste bi lankidek eta hirurok aseguru-artekaritza sortzeko aukera izan genuen. Azkenean, halako enpresa batek aukera ematen dizu independentzia izateko, konpainia gehiagorekin lan egiteko eta bezeroei aukera gehiago emateko.

Zein zerbitzu ematen dituzue?

Bergarako eta Arrasateko bezeroak partikularrak dira; Gasteizkoak, aldiz, enpresak. Edozein motatako aseguruak eskaintzen ditugu. Plan estrategikoko moduan sartuta daukagu espezializazioa ematea enpresei kreditu aseguru bitartez, eta pertsonai,



Jose Ignacio Rodriguez eta Nerea Atxa, Bergaran dagoen bulegoan. I.A.A.

Zer aseguratzeko den jakitea komeni

"Bezero batzuek prezioari begiratzen diote, baina askok garrantzia ematen diete aurrez aurrekoari eta aholkularitzari. Bezeroak prezioa ikusten duenean, Internetera jotzen du, hango konparaketak ikusteko. Aseguruaren atzean estaldurak daude, eta komeni da jakitea zer kontratatzen duzun. Prezioa eta estaldura dira garrantzitsuenak. Guk badaukagu aukera konpainiekin alderatzeko, eta bezeroari aukerarik onena eskaintzen diogu".

aurrezki arloan nahiz bizitza eta osasun aseguruetan.

Nola dago aseguruen mundua?

Sektorea bidegurutze batean dago. Aldaketa teknologikoak eta eraldaketa digitalak gertatu dira; iraunkortasunean eta digitalizazioan arreta berezia jarri beharko da, horiek izango dira etorkizuna finkatzeko oinarriak.

Partikular batek ze aseguru izan behar du nahitaez?

Ohiko aseguruak izan behar dituzte; hau da, ibilgailu, etxebizitza eta bizitza aseguruak.

Debagoienarrek badute aseguruak berraztertzeko ohiturarik?

Batzuek urtero aztertzen dituzte polizak. Guk konpainia askorekin egiten dugu lan, eta, normalean, bezeroak ez du izaten arazorik konpainiaz aldatzeko.

Bezeroaren eta konpainiaren artean dauden tirabirak kudeatzea tokatzen zaizu. Lana etxera eramaten duzu?

Ezbeharrak kudeatzerakoan edozer gerta daiteke, eta bezeroak artekariari deitzen dio. Bezeroekin tratatu zuzena daukagunez, azkenean, etxera eramaten duzu. Dena den, etxera iristean lanaz ahazten saiatu behar da, eta lanera itzultzean arazoari konponbidea eman.

Lanaren alderik onena?

Tratu pertsonala, dudarik gabe. Gertutasunak bezeroarekin egoteko aukera ematen dit, eta horrek ase egiten nau.

Herriko dendetan erosten duzu?

Normalean, herriko komertzioetan erosten dut. Herritar bezala saiatzen naiz bertako komertzioa bultzatzeko.

Goiena OKM
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

Euskaraz

Profesionalekin

Telebista

Komunikazio
Campus
2022

Kamera aurrekoak

Podcastak

Sare sozialak

Fotokazetaritza



EKAINAREN
27RA ARTE
EMAN
DEZAKEZU
IZENA!



m

Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA